

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actos de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1996, 3
41. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpen batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Endrike Knörr Patxi Goenaga J. A. Arana Martija Miren Azkarate Beñat Oihartzabal Patxi Altuna Juan Luis Goikoetxea
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71, 48012 Bilbo

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

JOSE ARIZTIMUÑO 'AITZOL'-EN MENDEURRENA

Antxon Gonzalez Monfort, herriko alkateordea, <i>Aitzolen mendeurrena. Aitzolen jarduera akademikoa</i>	447
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Jose Ariztimuño 'Aitzol'-en mendeurrena</i>	449
Martin Ugalde, <i>Aitzol eta bere garaia</i>	451
Xabier Iratzeder, <i>Hiru aldiz ikusi dut Aitzol</i>	455
Xabier Altzibar, <i>Aitzolen kazetaritza</i>	467
Lurdes Otaegi Imaz, <i>Aitzol eta Euskaltzaleak</i>	499

II. JAGON JARDUNALDIAK

Beñat Oihartzabal, <i>Euskara batua eta euskalkiak</i>	511
Juan Luis Goikoetxea Arrieta, <i>Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan</i>	517
Juan Martin Elexpuru, <i>Herri-euskararen eremua</i>	523
Jean-Louis Davant, <i>Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean</i>	531
Jojo Bidart, <i>Euskara batua / euskalkien erabilera Iparraldeko hiru euskal irratietan</i>	541
Igone Etxebarria, <i>Euskalkiak EITBn: Orain arteko jokabidea eta ondorioak</i>	547
Miren Azkarate, <i>Euskaltzaindiaren araugintza</i>	557
Xabier Mendiguren Bereziartu, <i>Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta</i>	583

HERRI LITERATURAREN IV. JARDUNALDIAK: PAREMIOLOGIAZ

Pilar Ardanza, herriko alkate anderea, <i>Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak: Paremiologiaz</i>	607
---	-----

Jean Haritschelhar, <i>IV. Herri Literatura Jardunaldiak: Paremiologiaz</i>	609
Xabier Kaltzakorta, <i>Euskal Atsotitz-bildumak</i>	611
Julia Sevilla Muñoz, <i>Sobre la paremiología española</i>	641
Gotzon Garate Goihartzun, <i>Ohiturak eta folklorea euskal atsotitzetan</i>	673
Alfonso Irigoyen, <i>Gnomica Biscaiensis: Refranes y Sentencias de 1596</i>	689
Károly Morvay, <i>Harri batez bi kolpe. Cuestiones de fraseología comparada</i>	719
Txomin Peillen, <i>Jakes Belakoaren erran zaharrak eta filosofia</i>	769
Juan Mari Lekuona, <i>Refranes y Sentencias: Zenbait baliabide mnemotekniko</i>	791
Patxi Juaristi, <i>Esaera zaharren azterketa soziologiaren ikuspegitik</i>	799
Louis Combet, <i>Los refranes en la literatura</i>	821
Juan Manuel Etxebarria Ayesta, <i>Esaerak etnografia ikuspuntutik</i>	841
Anjel Lertxundi, <i>Tradizioa, idazlearen kale kantoitik</i>	861
IV. Herri Literatura Jardunaldiak: <i>Ondorioak</i>	875

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

64. Hiztegi batua: <i>epai - erretratu</i>	881
65. Hiztegi batua: <i>erretreta - esplotazio</i>	891

BATZAR AGIRIAK

Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak (1996-IX, X, XI eta XII)	899
Jose Luis Lizundia, <i>1997. urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia</i>	915
Sailburu eta ordezkariak	919

JASOTAKO TXOSTENAK

ONOMASTIKA

Mikel Gorrotxategi Nieto, <i>Grumeran edo Triano mendikatearen okerrreko izenaz</i>	925
---	-----

LEXIKOGRAFIA

Orreaga Ibarra Murillo, <i>Erroibarko lexikoaren gainean</i>	929
Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les "materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca"</i> págs. 281-340	975
Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les "materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca"</i> págs. 645-694	983
Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les "materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca"</i> págs. 825-914	991

LITERATURA

José Garmendia Arruebarrena, <i>Los restos de la biblioteca de Francisco Ignacio de Lardizabal</i>	1001
José Garmendia Arruebarrena, <i>Iztueta y el euskera</i>	1007
José Garmendia Arruebarrena, <i>Aspectos de la personalidad de Iztueta</i>	1013

BERRIAK

Ayuntamiento de Vitoria / Gasteiz-R.A.L.V. / Euskaltzaindia: <i>Hitzarrena / Convenio</i>	1025
Palabras de Jean Haritschelhar, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con ocasión de la audiencia concedida por la Excma. Señora Dña. Esperanza Aguirre, Ministra de Educación y Cultura a la Junta Rectora de la Institución el día 30 de octubre de 1996	1029

AURKEZPENAK

Juan Mateo Zabala: *Sermoiak (I)*

Ricardo Badiola Uriarte, <i>Aurkezpena</i>	1037
Jean Haritschelhar, <i>Aita Juan Mateo Zabala</i>	1039
Luis Villasante, <i>Aita Zabalaren Euskal sermoien argitalpena</i> (1. liburukia)	1041
Tomas Uribeetxebarria, <i>Juan Mateo Zabala: Sermoiak (I)</i>	1045

AURTEN BAI FUNDAZIOA-EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindia eta <i>Aurten Bai Fundazioaren artean Euskera</i> agerkaria informatizatzeke <i>Hitzarmena</i>	1049
---	------

BILBAO BIZKAIA KUTXA- -EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

Jean Haritschelhar, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-R.A.L.V./Euskaltzaindia: Literatura sariak</i> , 1996	1053
Jon Mancisidor, <i>Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: Literatura sariak</i> , 1996	1055
Euskaltzaindiaren aurkitegia eta organigrama	1059
Aurkibidea, 1996	1089

**JOSE ARIZTIMUÑO 'AITZOL'-EN
MENDEURRENA**

Tolosa, 1996-X-17

**AITZOLEN MENDEURRENA.
AITZOLEN JARDUERA AKADEMIKOA**

Tolosa, 1996-X-17

*Antxon Gonzalez Monfort,
herriko alkateordea*

Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzain jaunak,
Jaun-Andreok,

Arratsalde on gutztoi eta ongi etorri alkateordea naizen aldetik.

Dakizuenez, gaurko egun batez, urriak 17, fusilatu zuten Jose Ariztimuño Olaso 'Aitzol', duela 60 urte.

Garai hartako prentsak, prentsa frankistak jakina, modu tragikoan hil zela esan zuen, autoistripua edo beste ezbeharren bat izan balitz bezala. Ez, fusilatu egin zuten, haren 'errua' euskaldun eta euskaltzale izatea izan zen. Barkatu egin behar dira gertakizun latzak, baina ez zait iruditzen ahaztu behar ditugunik nolanhari behintzat.

Beraz, poz handia da gaur Tolosan, gerra aurreko euskal kulturaren buruzagiari omen eta gorazarrea eskaintzea, aurtengo ospakizunetan Lizardiren alboan egon behar izanak, agian, merezitako lekua kendu baitio.

Bukatzeko nire eskerrik beroenak eman nahi nizkioke Euskaltzaindiari, Aitzolez gogoratu eta beharrezkoa duen tokian jartzen ahalegintzeagatik, saiatzeagatik, egia aitortu behar da Aitzol ilun xamarra geratu da eta, orain arte.

Besterik gabe, hitza Euskaltzainburuak du, Jean Haritschelharrek.

JOSE ARIZTIMUÑO 'AITZOL'-EN MENDEURRENA

Tolosa, 1996-X-17

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Tolosako alkate-orde jaun agurgarria,
Euskaltzainkideak,
Jaun-Andereak, agur.

Aurten Euskaltzaindiak nahi ditu ohoratu bi euskaldun idazle beren jaiotzeko mendeurrenean. Lizardi olerkariaz mintzatu dira Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeko kide batzuk, mende honetako olerkari bikaina gorai patuz Zarauzko Udaletxean, joan den apirilean. Gaur, hemen gaude, Aitzol dugula gogoan, oroitarazi nahiz nor izan den, zer egin duen bizia labur izana gatik, zer eragin haundia ukan duen euskal letretan.

Hil dute Aitzol, hil dute euskaltzalea, hil dute abertzalea eta hil dute apaiza. Garai nahasi haietan bizia merke "kruzada" famatuko soldadoentzat, "fedearen" izenean hiltzen zituztelarik apaiz euskaldunak. Hamazazpi apaiz tirokatu dituzte, haien artean Aitzol eta ere Martin Lekuona, on Manuel Lekuona euskaltzainburu zenaren anaia, Juan Mari Lekuona oraiko euskaltzainburu ordearen osaba. Gogoan ditugu denak.

Gaur bilduak gara Tolosan, urriaren 17-a hautaturik, 1936-eko urriaren 17-an hil baitzuten Aitzol. Hirurogei urte iragan dira baina bizi da oraindik Aitzol, ez baitaiteke ahantz holako gizona, ez baitira ahanzkorrak euskaldunak. Ez naiz Aitzol-ez mintzatuko. Literatura Ikerketa batzordeko kide batzuei uzten diet lan hori.

Mintzaldiak entzun baino lehen, nahi dizkizut, Alkate-orde jauna, ene eskerrik beroenak eskaini, Tolosako Udalak egiten digun harrera ona gatik. Ongi etorri anaikorrena egin diozue Euskaltzaindiari. Esker mila, beraz, bihotzaren zolatik.

AITZOL ETA BERE GARAIA

Tolosa, 1996-X-17

Martin Ugalde

Jose Ariztimuño Tolosan jaio zen orain ehun urte. Eta bere garaikideen testigantza bila joan nintzenean, don Manuel Lekuona, don Antonio María Labayen eta don Pío Montoyarena, Tolosa berak izan duen eraginaz mintzatu zitzaizkidan aho batez: Aitzolek zerbaiti zor ba dio bere sorterriari zor dio, Tolosako giro euskaldunari. Hor zegoen aspaldiko urtetan Andoaindik etorritako don Patrizio Orkaiztegi, dio Lekuonak, idazle joria, *Euskal Erriko* laguntzaile, eta batez ere honek Tolosan bertan argitaratu zuen euskaraz nola idatzi erakusten zuen eskuliburu baten egilea, eta bere inguruan euskal kulturako talde bat biltzen zuena ere bai. Aitzolek berak aipatu zuen don Patrizio idazlan batean Mendibururen editore bezala. Tolosaren beste aberastasuna, inprimategiak: Gorosabelena izana, López Mendizabal kultur gizon handiarena; Probintziakoa aldi batean bertan egon zen, eta Tolosan argitaratu zen euskal astekari errepublikarra zen *Euskal-Egia* (1894), eta baita, Aitzol beraren denboran (1915-1930), erderazko beste batzuk ere. Gipuzkoako politikan izan zuen Tolosak eragina, bestalde, eta honetaz Pío Montoyak, Aitzolen lagun min eta apezki-deak, hitz egin zidan: Tolosarrak ziren Emeterio Arrese, aipatutako López Mendizábal, Joan Andoni Irazusta (*Joañixio* eta *Bizia garratza da* eleberrien egilea), Antonio Maria Labayen, “Lizardi” handia, Pepe Eizagirre, diputatua (*Ekaitzpean* eleberriaren egilea), hauek denak EAJ/PNV barruko politikan lanean aritutakoak; Doroteo Ziaurritz, bere idazkari nagusia, ahaztu gabe! Baina ez ziren Alderdikideak bakarrik izan tolosarrak, baita sozialistak ere, De Francisco kasu, eta anarkistak, Viteri, eta karlistak Caballerotarrak, Elosegi.

Behar bada Donostiak zuen marko liberala politikan, baina politikako zuzendariak Tolosan zeuden.

Comillas eta Gasteizko Seminarioa

Comillaseko Unibertsitatean sartu zuten Aitzol izenaz ezagutua izango zena hamairu urte zituela, 1909an, eta eliteko ikastetxe honetan “Orixe”kin egin zuen topo, hau maisu zela; urte batzuk gero Gasteizko Seminarioa pasa zutenean, berriz, don Manuel Lekuonarekin aurkitu zen euskal kulturalo bide

aberatsean, zorte hau ere izan zuen. Hemen apezten da 1922an, hogeita sei urtez, Eijo y Garay gotzain zela, eta laster ematen du bere bideko urrats garrantzitsu bat: Misioetako buru egiten dute (1923), hemen sortzen du *Gure Misionaria / Nuestro Misionero* (1924-1929), elebiduna, eta bertan erakusten du lehen aldiz tolosarrak zuen eratzaillearen sen harrigarria, zeren eta bost urte gero Espainia osoko Misioetako Idazkari Nagusia da sona handia duen Bartzelonako Primer Congreso Nacional de Misiones delakoan: 1929.go irailak 22-29.

Ahalegin handi honen ondoren gaisotu egiten da, hau dela eta suertatzen da aldaketa: Gipuzkoako Garin herrixkako apez bezala erretiratzen da.

El Día egunkaria

Lehenengo zenbakia 1930.go ekainaren 1.^oan irten zen.

Seminarioan eratzaille bezala erakutsi zuen ahalmenaren doainaz gain, kazetaritza beste bat erakutsi zuen: bere erizpide orekatua, independentea. Ego-ki da, nik uste, bere garaiko giroaz ari garenez, orduko prentsaz zerbait esatea. Donostian garai hartan goizeko hiru egunkari argitaratzen ziren: *La Constancia* eskuin muturrekoa, *El pueblo vasco*, Pikabea eta Urkola bi luma ezagunak buru zituela, moderatua, eta *La Voz de Guipúzcoa*, ezkerrekoa, ongi egina. Bazen arratsaldeko bat, errotoplanaz tirada laburra botatzen zuen *El País Vasco*. Falta zena, euskaltzale izan zitekeen bat, eta hauxe sortu zuten arratsaldekoa erosi eta Rikardo Leizaolak (Jesus Mariaren anaiak) okasioko makina azkarragoa Alemaniatik ekarri, dirua don Pio Montoyak jarri, eta honen erakundea Aitzol lagunari proposatu zionean. Lanean hasi zirenerako inguratu zitzaizkien bere lagun naturalak, EAJtarrak, bai Tolosakoak eta baita Donostiako Barriolatarrak eta beste ere, noski, zeren eta Alderdiak Bilbon egiten zuten *Euzkadi* iristen zen Donostiara, baina Errepublikaren zain zeuden abertzaleak Donostia indartu nahi zuten... Hemen bi apezek tinko eutsi zien erasoari, egunkari euskaltzalea, eta abertzalea ere, nahi zuten, baina politikaren gorabeheretatik kanpora.

Eta hala jokatu ere egin zuten gero, hilabete batzuk barru, Errepublika 1931.go apirilaren 14ean etorri zenean.

Euskaltzaleak

“Euskaltzaleak” elkargoa ez zen, askotan usten den bezala, Aitzolek sortua izan. Arrasaten jaio zen, herri honen tradizioan, euskararen defentsan, 1927an, Aitzol berak bere idazlan batean esaten digun bezala, eta gero herriz herri Zumarragan (1929) eta Andoainen, Salinas de Leniz, Zaldibia, Gasteiz, Donostian (1930), Erreterria, Segura, Irunen (1931), Azpeitian eta beste, herriz herri, baztarrekin eta Aitzolen buru argi eta lanek sendotuta. Ez da erakunde “politi-

koa”, honek behin eta berriz dionez; apez bezala arerioek asmo iraultzaile eta gaizto hau aurpegiratzen badiote ere; “nazionalismo politikoak ere euskal kultura indartu nahi du”, hau hala da, aitortzen du, baina hor mugatzen da apezaren “politika”.

Dagoeneko apuntatzen dute, bai, maltzurrek!

Bestalde, euskara maite du, baina hemen ere ez da hizkuntzalari, teknikari, bezala, bere herriaren hizkuntza oso eta bete bezala baizik.

Eta alor honetan hizkuntzak berez dituen kultur-mailen fenomenoarekin aurkitzen da. Bertsolaritza eta poesia idatzia bi mundu dira, don Manuel Lekuonagandik ikasten duen bezala. “Aitzol” eta “Lizardi” konturatzen dira ongi hizkuntza batu baten beharraz, aurretik Azkue, Arana, Campi3n eta Broussain konturatu ziren bezala, eta biak eskatzen dute egunkari euskaldun bat ere! Kulturaren bideak, bide landuak, arazoak sortzen datoz, noski, baina soluzioak bilatzen dizkie.

Hala antolatzen ditu Aitzolek, bertsolarien lehiaketekin batera, “Eusko Olerti Egunak”.

Belaunaldiak

Jokin Zaitegi izan zen Aitzolek prestatutako Olerti Eguretako bat irabazi zuena, eta badu zer esanik belunaldiaren gai honetaz. Egindako azterketa batean bere buruari galdetzen dio: “Ba ote da ‘Aitzolen belaunaldia’ izenda genezakeenik?”

Eta euskal literaturako belaunaldien zerrenda baliotsu bat egiten du. Berak 1950tan egin zuen lehen aleko *Euzko-Gogorako*: Aitzolen belunaldiko bezala joango lirateke Aitzolek berak sortutako Olerti Egunean irabazi zutenek: Lauaxeta (1930), Lizardi (1931), Loramendi (1932), Patxi Etxeberría (1933), Zaitegi (1934), Jauregi (1935), eta Otamendi (1936); hauekin batera: Orixe, Lekuona anaiak, Tapia-Perurena, Iakakortsaxarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Barren-soro, Arrizubieta eta beste; eta aipatzen ditu beste izen batzu beste maila batean, eta erdaraz idazten zutenak ere aipatzen, adina kontun hartuz, nonbait. Gero aipatzen ditu, hurrengo belaunaldi euskalduneko bezala: Monzon, Ibiñagabeitia, Aurre-Apráiz.

Hemen, giroko zerbait aipatzearren: Izan zituzten Orixe eta Aitzolen artean, diferentzia batzuk. Hark erantzun izan zion, noizpait, bera saritu ezaren erantzutea, egiatan hala gertatu ez bazen ere, argitu izan den bezala.

Aitzol eta gizartezkoa

Hernandorenak hitz egin zidan gai honetaz. Kezkatzen zuen, bai, Aitzol arazo sozialak, eta parte hartu zuen Donostian Errepublika garaian Alberto Onaindiarekin batera hitzaldi publikoetan. Idatzita geratu dira bere kazetaritzako lanetan ardura hauek. Eskuindarrek, *La Constancia* egunkariak bereziki, asmo guztiak bere nahikarietara moldau zizkien, noski.

Oso labur esateko, puntu hauek adierazten dute nolabait Aitzolen garaia.

HIRU ALDIZ IKUSI DUT AITZOL

Tolosa, 1996-X-17

Xabier Iratzeder

I.—Lehen aldia hogoi-ta hamalauan ziteken; Espainiako gerla has aintzin, bi urte lehenago.

Aitzol, Ariztimuño apeza ikusi nuen *Donibane*-ko karrika-nausian iraganki, xuri-gorri-ferde xingolez apaindu Gipuzkoar gazte andana batek inguratua.

Ez nituen orduan hamalau urte baizik; eta banago ez ote nuen hori izan: ene bihotzeko euskal-ametsen goizargi zirrinta.

Etxeko leihotik beha nindagokioten; eta gero, karrikaraino jauntsirik, heien ondotik joan nintzen, “Gure Etxea” deitu antzerki-tokirat.

Han *Aitzol*-ek izan zuen lehen hitza, hitz sarkor eta beroa: “Lapurdiko, Benabarreko ta Ziberoko euskal-anaieri bihotz-bihotzetik agur!”.

Paristarrez, Inglesez eta nork-daki-nungotarrez itoa zen, uda egun hoitan, *Donibane*. Egina nuen ordukotz ene bizi-bidearen hautua: Euskal-Herria salbatu behar-eta, ez nintzen gerla-gizonen artean sartuko, ez eta politikari-eleketarien artean ere. Joanen nintzen apezterat, geroko euskal-anaien argiratzaille.

— Ez zuen *Aitzol*-ek lehen aldia *Hendaia*-ko zubitik hunat iragaiten zela.

Mila bederatzi ehun eta hogoi-ta hamekan apez bakar bat izan zuen *Segura Toledo*-ko Kardinaleak, muga iragaiten, lagun; eta, apez hura: *Aitzol* (*).

Nunbeitik jakina zuen, Gobernamentuak ohildurik, Gipuzkoan barna zela ihesi joatekoa. Ez zuen nahi izan Eliza Sainduko Kardinale bat euskal-lurrean iragan zadin, gehiagoko jauspenean eta maltasunik gabe.

Ezaguna zuen jadanik Segura jaun apezpikua; ikusia zuen *Barzelona*-ko Misione-biltzar handian. Ez zituzten denetan *Aitzol*-ek eta harek ikus-molde berak; bainan Espainiatik ohildu hori gaizki-erabili Eliza Saindua bera baitzitzaion, ez zuen nahi hola denek utzia urrundu zadin. Zubiaren iragaiteko, joan zitzaion laguntzaile; eta biharamun goizean berak zuen Meza emaiten lagundu.

(*) Ikus: Oharra I, p. 413.

Hendaiatik norapeit joan behar eta, *Beloke*-ko fraideri zioten Kardinaliak aterbe eskatu. Ez zuen orduan, *Ariztimuño* apezak asmatuko: bera ere, bortz urteen buruan, ihes-leku bereratz zela joan beharra.

II.—Hogoi-ta hamabortzeko irailaren 22-an, bigarren aldikotz nuen *Ariztimuño* ikusi eta entzun.

Atharratze-n bilduak ziren zazpi Euskal-Herrietako Euskaltzaleak. Hamabortz urte nituen eta gogo bihotzetan egon zaizkit egun hartan ikusiak, ikasiak, entzunak.

Bazkaltiarren esku-zartek xuti-arazi zuten *Aitzol*. Urrian agertu “Aintzina”-k aipatu zituen erdaraz haren erranak; huna, gure euskalkirat itzulirik, nolatsukoak izan ziren:

“Euskal-aniak doi bat zarrapaturik ere, nahi dut argi eta garbi mintzatu, gauzak diren bezala aipatuz; ez naiz-eta gezurka aitzeko *Atharratze*-rat etorria.

Hogoi-ta hamabortz urte bada Euskaltzaleak biltzen direla. Zertarat heldu izan dira? Euskarak bizirik irauten du, bai edo ez? Zabaldu ote da ala galdu, hogoi-ta hamabortz urte huntan? Norat goazi, frantses-espainol uholdearen aurka, ez badugu urteko bazkari handi hau baizik ezartzen?

Ez da harat-hunatik; hola ibiliz, hurbiltzen ari gitzaio hau entzungo den egunari: “Kantabria-ko itsas-bazterrean bazen aspaldian gizalde bat, Euskaldunen gizaldea deitua; bainan irauten jakin ez duena.” Hortaratu nahi ote dugu? Segur ezetz; haatik, ohartuz ala ez, bagoazi leize zilorat.

Zuk aipatu “odolaren mintzoa” entzuten dugu, *Oxobi* maitea; eta *Eizagirre*-k erran bezala, gure Herria maite dugu, bainan bihotzeko mintzoa ez aski: aipatu behar da egun guzitako bizia, egunean eguneko ogia. Ogi hori Erdaldunen ganik behar balin badugu eskuratu, gure geroko bizia kanpotarren ganik igurikatzen balin badugu, nolaz ote ez da gure euskalgora, gure euskal-gogoa urtuko, izaite gabeko amets hat bezala. Euskalzaletasuna salbatzeko, behar da Euskal-Herria salbatu; ez hitzaldi ederrekin, bainan bai gure Euskal-Herrian lan-bideak hobekituz eta bizi-ahalak zabalagotuz.

Eskuinekoak eta ezkerrekoak lot ditela denak salba-bide horri, bi eskuak Euskal-Herriko anai-eskuak bezale josiak.

Politika guziak baino gorago, hasiko direnean Euskaldun guziak elgarri hurbilago, elgarri josiago bizitzen, -eta auzoko erdal-jenderi ezinbertzez hain menpetuak gaketuak izanen ez direnean, errexago izanen da orduan euskal-odolaren mintzoa entzutea bai-eta mintzaira ta ohidurak salbatzea.”

Bururatzean, *Aitzol*-ek dei bat egiten diote gazteeri eta barkatu galdetzen, euskara bizi-arazteko bideak, berak bezala ikusten ez luzketeneri.

— Atharratzeko Euskalzaleen Biltzar hortan ikusi eta entzunak, enetzat ezin ahantzizkoak; pertsutan ere aipatu gabe ezin utziak:

Dena begi zagon mutiko bat nintzen...
 Orroit naiz eguerdi batez, Atharratzen,
 Gizon horiek ikusirik, aditurik, miretsirik:
 Zer gizonak!...
 Argi zabaltzerik ez da hain argi eta su,
 Ez itsaso uhainik hain tiraintsu,
 Ez eta euskal-mendirik hain gorarik,
 Nola baitziren gizon horiek... gizon!
 Ikusten ditut oraino xutitzen,
 Mintzatzen, kantatzen
 Aitzol, Eizagirre eta Monzon.

Ikusten ditut heien behakoak,
 Aditzen heien mintzoak, heien kantu beroak.
Aitzol! barneko suak jana,
 Euskal-arimari osoki emana.
Aitzol eta *Eizagirre*,
 Besoak zabal ta bihotzak zenbategi zabalagoak,
 Mendiz hunaindikojendeari
 Oihuz eta kantuz ari.

III.—Hirugarren eta azken aldian *Aitzol* ikusi dutalarik, *Beloke*-ko haizondoan itzalean izan da; eta, ordukotz, hamasei urte nituen.

Fraidetu osaba-apezaren ikusterat etorria nintzen eta ereman ninduen, eleketa ariz, gazteen pilota-plazaraino. Bazen hor galtza beltzez eta atorra xuriz jauntzi gizon bat, pirripitan ibiltzen ikasten iduri zuena. Gizon hori: *Aitzol* apezaz.

Ez nuen harekin solasik egin. *Donibane*-ko karrikan iragaiten eta *Atharratze*-ko Biltzarrean mintzatzen urrundik ikusirik ere ez nuen, egia erran, kasik ezagutzen.

Geroztik dut jakin, sortzez Tolosarra zela eta hamabi haurridetarik hamekagarrena. *Comillas*-eko apezgaitegirat joan zen hamahiru urtetan eta, mila bederatzi ehun ta hemeretziari, *Gasteiz*-ekorat. Apezte-eta, hogoi-ta bitik bederatziraino su eta kar aitu zen Misionen alde, bai idazten, bai biltzarreak antolatzen.

Bularretarik odola emaiteraino eriturik, bere apez bizimodua aldatu behar izan zuen. Orduan zuen *Pio Montoya*-rekin "El Día" egunkaria sor-arazi eta euskarazko lanak sustatu; orduan ere zen hasi euskal gazteak biltzen, argitzen, sugartzen.

— Horiek hola, horra bet-betan Espainiako gerla. Uztailaren 27-an *Requete*-ak *Beasain*-en eta *Oiarzun*-en sartzen dire; 28-an *Donostia*-n nausitzen.

Aboztuaren 2-an Frantzia alderat doa *Benegas*-ekin *Aitzol*, 14-an *Hendaia*-tik *Echalar*-rerat, *Sara*-ko auzapezarekin egin-ahalak egin nahiz tirokatzeak eta elgar-hiltzeak geldi ditezten. Etsaiaren aztparretarat erortzer izan ondoan, *Benegas*-ekin *Beloque*-ko aterberat joanen da eta, irailaren 9-tik urriaren 13-raino, hango bakean biziko bertze Gipuzkoar iheslari zenbeiten artean.

Orduko argazki batean ikusten ahal dire, aita Abadearen eskuinean, urrunagotik hurbilenerat:

- Jose-Maria *Benegas*, abogadoa,
- Jose *Ariztimuño-Aitzol*,
- Juan-Migel *Sansinenea*;

aita Abade Jean-Gabriel *Hondet* Hendaiairen ezkerrean:

- Antonio *Labayen* (haren gibeledko biak?),
- Jose-Maria *Barandiaran*,
- Benito *Begiriztain* (orduan *Beloque*-n bizi zena),
- D. Ramon *Laborda*.

— Hilabete oso batez eta lau egunez egona da *Aitzol* fraiden aterbe hortan.

Huna hemen, euskararat itzulirik, handik *Pio Montoya*-ri idatzi diozkan bi azken eskutitzetarik zenbeit lerro:

“Etorri berria naiz bake-leku huntarat, zenbeit egun iragan-eta gure aberzale iheslarientzat laguntza aurkitu ta antolatu beharrez. Ipar-aldeko Euskal-Herri hunek ez du euskal-anaitasunik.

Karlisten eta Abertzaleen artean elgartzeko solasak zertan ote diren jakiten baduzu, eskertuko nitzazuke bi hitz igortzea.

... Orai da heien artean bakea egiteko ordua ...

Hitz hau idazten hasterakoan, etorri zaiku ametsetako gure *Laborda* ... Errana dio aita Abadeak egon ahalko dela apur bat *Beloque*-n...

Erraiten du *Laborda*-k ez dela berritz *Donostiarat* itzuliko, *Mola* ikusten ez dueno “*Poxpolin*”-en aintzindari.

Ea etorriko ote zaren egun batez ikusterat eta gurekin mintzatzerat.”

Aitzol

(36-eko irailaren 11-an)

Bi egunen buruan:

Gare et Postes : Urt
Télégr. | Labastide-Clairence
Téléph.

1736 ng-x garin-6 an

Lafitte up an jaman
Mstanken.

A gur adiskide;

Ornen darumustikju pake sam
duan gure egnak porantez pis-
ka bat ik'asi naink.

Aruntiki. Cuskaldunen coraonak
egnetik; egnora ari dira itxur-
ken eta beltzago arpezia orakuy-
ten.-

Barba zaidaru Mstanken nui
katutakoa gorruaten.- i Tlatzi
al-dion? aita Dionos Vaudhori
Pauj'orat? - Ezin baigora sekun-
du guzian unen, Belloc'en egon,
eta zor baitetan p'usatn bear de-
gu un'orantzeru begiratuaz.-
L'euengor ekeini zizkidarun

mozak aiske nora dijoskit eta
al-bazenuke beste batzuk erin-
teko-al eskaten ditut.-

i Ezeren berinik bai-al-dion?
Einen berinonen. g'ozak goruak k'oma
gaur on gutxi dir g'ozak gu, oraingor
beintat.-

Barba ezartzen diskidunlan la-
nengatik.-

Esker auzi -
Zel' bantun

Christiano fufria

“Agur:

Eskerrak dauzkitzut, bakeratzeko solasen berri emanik. Nik ere zuk bezala daukat: apezpikuekin gezurka ari direla militarrek, eta ez dezakegu heien ganik deusik igurika.

Badakit ez dezakegula azkatasun ondar ttipienik ere igurika. Bainan eka-
rria banintzen ni militarleri hautsi-mautsi zerbeit eskatzerat, hori zen beldur
bainintzen eta beldur bainaiz euskal-gudarietan sartu ziren gure gazteentzat.

(...) *Toulouse*-ko irratiak jakin-arazi dauku: *Donostia* militarren eskuetarat
erori dela goizeko oren batean. Harritzen gaituena, haatik: ihardokitzerik gabe
erori dela etsaien eskuetarat.

(...) Idazten dit *Lafitte*-k egin-ahalak egin dituela ihesi etorri abertzaleen
alde; eta iduri du ondorio onik ekarriko dutela (Baiona-ko) Apezpikuaren eta
Ybarnegaray-en urratsek.

Begiraleak ere, hemengo “Euskalerrizale“ taldeko emaztekiak hasi dira ere
mugitzen eta gureak laguntzen.

Agur, bihotzez bat.

(34-eko irailaren 11-an)

Hirugarren eskutitza, urriaren 6-ekoa:

Lafitte apaiz jaunari
Ustaritzen

Agur, adizkide:

Emen daramazkigu pake sainduan gure egunak, prantzez pizka bat ikasi
nairik.

Aruntzko Euskaldunen arazoak egunetik egunera ari dira itxusitzen eta bel-
tzago arpegia erakusten.

Barka zaidazu Ustaritzen mintzatutakoa gogoraztea.—Idatzi al-diozu aita
Piarres Lhande-ri *Parise*-rat?—Ezin baigera sekula guzian emen *Belloc*-en
egon; eta zerbaitetan pentsatu bear degu, aurrerantzera begiraturaz.

Lenengoz eskeñi zizkidazun mezak azkenera dijoazkit: eta, al bazinu, nik
beste batzuek erraitekoak eskatzen dizut.

Ezer-en berririk bai al dezu? Emen berri onen goseak gera; baña gauz gutxi
dagerkigu, oraingoaz beintzat.

Barka ezartzen dizkizudan lanen gatik.

Esker anitz

Jel baitan.

Ariztimuño

IV.-Ordukoa ditake *Lafitte* eta *Aitzol* apezek *Uztaritze*-n izan zuten azken elgar-hizketa. Ene “Orroitzapen purruketan“ aipatua dutan bezala, *Lafitte*-k berak kondatua daut, hirurogoi-ta hemeretzi-ko aboztuaren 25-an:

“Beloketik, egun batez, etorri zen *Ariztimuño* nerekin mintzatzerat. Erran zautan: “*Horra, Espainiarat noa. Ez ditut gazte hoik guziak hola utzi nahi; uste dut harat itzultzea dela nere eginbidea... Harat noa.*”

Erran nion, orduan: “Zuk ikus! Agian zerbeit onik egin ahalko duzula! Badakizu zer duzun irriskatzen.“ Hori bazakien: *Banoa, gau huntan, «Galerna» untzian... Otoitz eginen duzu neretzat?*” - “*Bai otoitz eginen dut zuretzat. Ez da, egia erran, lehen aldia izanen...*” “*Ederki, bainan egiten duzu zinez otoitz?*” - “*Bai, otoitz egiten dut*”. “*Eta zer diozu Jainkoari galdegiten?*” - “*Hau diot beti: egin bedi zure nahia*”. “*Hau gizona! Ez duzu, beraz, deusik galdatzen!*” *Eta irriz hasi zen.*

Nik orduan berriz: “*Eta zuk zer diozu, otoitz egitean?*” *Ariztimuño*-k neri: “*Nik Santa Teresa-k bezala dut otoitz egiten*”. - “*Zer egiten zuen ba Santa Teresa-k?*” “*Hau erraiten zuen: Bai, Jauna, zure nahia egin bedi; bainan zurea nerea izan dadila*”. Berriz ere irriz.

“*Ederki, egin zion Lafitte-k aintzinat, antola zaite zure gisan; bainan... iduri zait ez litakela hain gaizki, Haren nahia egina balitz*”. *Aitzol*-en azken hitza: “*Gauden hortan: zure otoitza nahikoa zait; aski duzu hola egitea*”.

Horiek hola, elgarri “ikus arte” erran dugu; eta joan da... ().*

— *Aitzol*-en azken eskutitza urriaren 15-ekoa da (itsasoz joan aintzin, bi egun; *Pio Montoya*-ri idatzia):

“*Enehun Beloke-rat itzultzean, erran didate etorri zinela igandean ene ikusterat.*

... Ez naiz gehiago Beloke-rat itzuliko.

... Dudarik gabe, gure herritarreri egon-toki aurkitzeko egiten ditudan indar-gutiko egin-ahalak eta harat-hunatak, badazkite militarrek beren salata-rieri esker. Badauzkate heiek politika-urratsak direla.

... Zenbeit egunez (Baiona-ko) hotel batean nago; bainan ez hitzik igor, laster naiz hemendik airatuko. Ez dakit oraino norat. Beharba Bilbo-ra, zer-berrietako on balin banaiz...”

Goizean Meza *Ziburu*-ko elizan emanik, eta azken eskutitz hau igorririk, *Baiona*-rat joan zen “*Galerna*” itsas untzirat, *Pasai* aldean hartua zen eta, 17-18-ko gau beltzean, *Hernani*-ko hil-harrietan tirokatua.

(*) Ikus: Oharra II, pp. 14-15.

* * *

Eta, bururatzeko, huna orduko ene pertsu bat:

... Ikusi dut *Aitzol* fraiden artean ameska... Eta joan da, bere gazteen azken hil-deiak entzunik; Joan da eta hil... heien odolean bere odola emanik, Euskal-errautsean bertzen amodioz auhenkatuz: *Barka!*

OHARRA I

“El 16 de junio de 1931, en la tarde, Aitzol sale para la frontera de Irún; supo por Aldasoro, Gobernador de Guipúzcoa, que el Cardenal Primado, Sr. Segura, salía exilado por orden del Gobierno, y llegaría a Irún al atardecer. Ariztimuño había conocido al Cardenal Segura en el Congreso Nacional de Misiones en Barcelona, quiso acompañarlo en aquel trance. Después de una larguísima espera, ya de madrugada, llega el auto policial, y tras los guardias que lo custodian aparece la aceitunada y destroncada figura del cardenal... Sus cansinos ojos miran aturridos y se cruzan con los de Aitzol. Ambos avanzan al encuentro. Primera sonrisa en la fláccida faz del Sr. Cardenal trenzada con sus primeras palabras... —¿Cómo Ud., don José, aquí?... —Sí, mi cardenal, le estaba esperando para ayudarlo en lo que pueda en estos momentos de dura prueba... En Hendaya tengo en el convento de las Siervas una hermana, y es allí donde pensaba conducirle para que repose—. En el convento, el Cardenal desea celebrar la misa, que es ayudado por Aitzol, y tras la misa, el adiós definitivo. No se volverán a ver más en la vida”.

Este era el *saeerdote* Ariztimuño, quien dio más de una prueba de su vocación y de su entrega a la labor sacerdotal.

(AITZOL-en idazlan guziak I, p. 44)

OHARRA II

Hogoi-ta hamaseian

Lafit apezak, uztailleko lehen egunetan, *Jakes Mestelan*-ekin, sor-arazi zuen “*Menditarrak*” deitu mutiko-taldea Horien helburua: euskal-mendien ezagutzea eta euskal-dungoan aintzinatzea.

Zortzi lagun bildu ginen orotarar. Gure oihal-etxolak *Eihalarre*-n finkatu ginituen, hortik *Arnegi* alderat bai eta *Artxilondoraino* ibil-aldiak egiteko. Laruzko untzi bat liburuz betea ekarri zuen lehen egunean, eta ez zuen azken egunean, liburu bakar bat ere irakurri ahal izan.

Han ginelarik hasi zen Espainiako gerla; eta ginauden tokiraino etorri zitzaizkon egun batez bi jaun: *Aizpun* Naparroakoa eta *Louis Inchauspe* Garazikoa.

Euskal-mendietarik Uztaritzeko zelaierat jautsi orduko, izan zuen zer egin eta zertaz kezka.

Napartarren eta Gipuzko-Bizkaitarren arteko har-emanen sustatzerat bermatu da.

Ariztimuño, *Aitzol* famatua, etorri zitzaion ere lagun zonbeitekin mintzatzerat: haizu ote zitzaioten Espainiaren aurka, Euskal-Herriaren eskubideen zaintzea?

Erran zioten ez zela errex ihardestea; irakurri zioten, haatik, liburu batean noiz eta nola zitaken gerla bat zuzen, bai eta zer zion hortaz *San Tomas* Akinakoak.

Aitortu zioten ez zuela berak arrunt argi ikusten; baina hek joan ziren haren gelatik, erranez: orai argituak zirela, bazakitela orai zer egin, *San Tomaseri* jarraikiko zitzaioleta: gorriekin joanen zirela, ez gorri zirelakotz, baina, tokian tokiko, helburu berak zaintzen zituztelakotz.

Handik laster, Belokerat etorri da *Aitzol* ihesi. Zenbeit ilabete egon zen hemen, mendiz bertzaldeko berrien entzunka. Azkenean joan zitzaion berriz *Lafit*-i, erranez: berak berotu zituela gazte abertzaleak, eta ez zagokela hemen, hek gerlako hil-irriskuetan zabiltzalarik.

Huna bien arteko azken solas-aldia, *Lafit*-ek berak neri, erdaraz, kondatua (28/8/79).

“Abiatzean, erran zautan: «Otoitz egiten duzu enetzat?» - «Bai, otoitz egiten dut zuretzat. Ez da, funtsean, lehen aldia izanen: otoitz egiten dut maiz zuretzat.» *Aitzol*-ek orduan: «Otoitz egiten duzu, baina zinez eta egiazki?» «Bai, bai, otoitz egiten dut.» *Aitzol*-ek berriz: «Eta zer galdatzen diozu Jainkoari?» - «Nik erraiten diot beti: egin bedi zure nahia.» «Ai! gaizo abila! ez duzu beraz deusik galdatzen... (biek irri).»

Lafit apezak: «Eta zuk nola egiten duzu, otoitzean ari zarelarik?» «Oi! nik, ihardetsi zion bertzeak, otoitz egiten dut *Santa Teresa* handiak bezala.» - «Zer egiten zuen *Santa Teresa*-k?» «Erraiten zuen: bai, Jauna, egin bedi zure nahia, baina zure nahia nerea izan bedi (berriz ere bieki irri).»

Horiek hola, *Lafit*-ek: «Ederki, antola zaite; baina nik pentsatzen dut ez dugula Jainkoaren nahia ahanzten ahal. Ez dakigu baduenez gure otoitzaren halako beharrik. Nik ez dut bertze deusik galdatzen, Jainkoari mintzo naizelarik-Uste dut ez litakela hain gaizki haren nahia egina balitz. Guk dugu haren nahi hori tratatzen: erran daukularik zer ginuen egitekoa, eman dauku-eta, on-

dikotz, nahi dugunaren egiteko ahala, ahal harrigarria...» «Ondo, ondo: zure otoitza nahikoa izanen dut: otoitz egizu horrela.»»

Hortan joan zen **Aitzol** eta «**Galerna**» itsas-untzian sartu. Hartua izan zen eta, **Hernani**-ko hil-harrietan, titokatua.

1985-eko *Otoitzlari*-116etik

OHARRA III

BARKA

España hortan izan da segur asko bitxikeri:

Horra nun zaikun etorri

Euskadirat Galtxagorri

Jainkoaren amodioz jazartzerat apezeri.

Berriki apez suhar bat hil beharrez zeramaten;

Hil-harrietan tiroka odolez estali zuten.

Ifernuan zer irriak orduan egin dituzten.

Apez gaixoak begiak, suharrik, zerurat dauzka,

Gizon bat doa lasterka

Bularrak zilatzen diozka:

Jaunak bezala hiltzean dio: "Jainkoa, oi, barka!"

Apez haren kar sailduak lurak ikusi balitu

Bai eta zer gizon gaitzaz mundua zuten gabetu,

Lurak berak hiltzaileak, segur, zituzken suntsitu.

Nor zen? Zer egin ote du? maitatu herri zaharra

Eta langilez leherra

Itzularazi ongira.

Nor zen? Apez suharrena: Aitzol, Aitzol kartsu hura.

Garrak ezeztatu nahiz bihotza dute zilatu;

Bainan gure bihotzerat gar hek zaizkigu airatu.

Zure heriotzak, Aitzol, fruituak emanen ditu.

"Biziaren olerkia" p. 25

OHARRA IV

ZORIGAITZEZKO EUSKADI

(airea: Ara nun diran...)

Euskal-Herriko zeru ez-tian, hedoi beltzak bildu dira;

Haitzen artetik izigarriko sistutan ari da herra;

Odol berozko iturburu bat doa menditik behera...

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Lanerat goizik gizon gaztea abiatu da kantari;
Bainan anaia, ustegabeen, tiroka zaio jazarri:
Oihu samin bat botatuz kolpez zauriturik da erori.

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Bere haurñoa salbatu nahiz, ihesi joan da joan ama;
Laster mendiez alde huntarat besoetan baderama:
Zori oinazen artetik doa. Gaixo amaren marruma!

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Zelaian bada harri meta bat, erditik kea dario...
Jabe zaharrak, hurbil jarririk, nigarrez behatzen dio.
Zenbatek dute aiten egoitzer tristerik erran adio!

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Amodiozko Jainkoarentzat hori egin omen dute.
Jainkoarentzat bazterrak erre eta apezak hil ote?...
Zu, otoi, Jauna, gure herriaz zerutik urrikal zite.

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,
Zorigaitzezko Euskadi!...

Berritz ohiko irrintzin hura badoala mendiz mendi.
Gure herrian burrunba tzarra ez dadin geiago adi:
Ezin hilezko gure Euskadi berritz ere atzar bedi;

Jainkoa lagun, bai berpitz hadi,
Arbaso gaitzen Euskadi!

Larresoron, ...-3-3-37.

“Biziaren olerkia” p. 26

AITZOLEN KAZETARITZA

Tolosa, 1996-X-18

Xabier Altzibar

Aitzolek bere pentsabide, asmo eta ekintzak kazetalanen bidez agertarazi eta zabaldu zituen, batez ere *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan. Lan honetan kazetalan horiek aztertuko ditut, orokorki, batez ere euskal kultura eta gizarte-ari buruzko Aitzolen pentsaera, gai nagusiak, iritziak, gidari eta eragile moduan erakutsitako jokoera, eta, azkenik, haren kazetari idazkera.

Aitzolen artikuluak batuta daude *Obras Completas-Idazlan Guztiak* bildumako liburukietan (Erein, 1987), bereziki 5 eta 6.etan, hots, *Impulsor del Renacimiento Cultural Vasco y Social Cristiano-Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile* (I) eta (II). Aitzolen idazlan ustez guztien berrargitalpen hau, orain ia hamar urte talde batek burutua, lan txalogarria eta eskertzekoa da, haren obraren azterketa erretzen baitu. Aitzolen artikuluen aipamena (izenburua, egunkaria, data) parentesi artean jarriko dut, liburuki horietatik hartuta.

Aipatu beharrekoak dira zenbait ikerlan: M. Ugaldereen biografia (“Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I. lib.); “Aitzol” en su tiempo (J. Insausti, X. Azurmendi, J. Kortazar, L. Otaegi, J. R. Scheifler-en artikulua), Fundación Sabino Arana, 1990; L. Otaegiren *Lizardiren poetika* (Erein, 1994), 94-121. or. Argitaraberria da I. Aranbarri-K. Izagirrerren *Gerraurreko literatur kritika* (Labayru Ikastegia-Amorebieta-Etxanoko Udala, 1996), Tolosako hitzaldiko testua berridazten ari naizen une honetan.

Pizkundera, Aitzol eta Euskaltzaleak

Jose Ariztimuño Olaso “Aitzol” (Tolosa, 1896-Hernani, 1936) *Pizkundera* deritzon mugimendu zabalaren erpinean kokatzen da. *Pizkundera*z mintzatzean euskara, euskal literatura eta kulturaren zuzpertzeari abertzaletasunarekin batera-ari gara. Pizkundera aspalditik zetorren bidean: 1876an foruak galdu ondoren, “Zazpiak Bat” eta “Ama Euskara”-ren aldeko sugarra piztu zenetik Euskal Besta edo Lore Jokoen zuzia Iparraldetik Hegoaldera igaro zen. Hots, alde batetik, Asociación Euskara de Navarra eta *Revista Euskararen*, hau da, Kan-

pion eta abarren eskuetara; bestetik, Donostiara, Manterolarenetara. Honek Lore Jokoei segida eman eta *Cancionero Basco* literatur bilduma eta *Euskal-Erria* aldizkaria sortu zituen, 38 urtez pizkundearen suari isiotuta iraunaraziz. Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldean hainbat elkarte, aldizkari eta langile bilduko zituen pizkundeak: Iparraldean *Eskualduna* astekaria, *Gure Herria* eta Eskualzaleen Biltzarra; Nafarroan Euskararen Adiskideak. *Euskal-Erria* aldizkariaren ondoren *Euskal Esnalea* (1908-1911, 1911-1931) eta *Euskal Erriaren Alde* (1911-1931) etorriko dira.

Bestalde, Sabin Aranaren abertzaletasunak euskara eta euskal literaturari bultzada handia eman zion: *Euzkadi* egunkarian euskarazko kazetalaran ager-tarazi zituzten Kirikiñok-eta, euskararen aldeko kanpainak egin, kultur aldizkariak (*Euzko-Deia*, *Hermes*, *Euzkerea*) eta euskal teatroa bultzatu. Euskal-tzaindia bera pizkundetik sortutako adarretariko bat izan zen, Eusko Ikaskuntza eta beste kultur elkarte batzuekin batera, eta haren zuzendaria, R. M. Azkue, erraldoi handia, hizkuntzaren arloan bereziki, nahiz ez hor bakarrik.

Euskal pizkundearen arbola frututsua adar eta aldaska ugariduna da, beraz, Euskal Herriko zazpi probintzietan hedatua, hazaldiak bata bestearen ondoren elikatuko dituena. Hona bultzagile erraldoi batzuk, eta euskal kultura nahiz li-teraturako aldizkari oso garrantzitsuak. Horra euskara eta "Zazpiak Bat" goi-buru nagusi legez jarrita eta euskal literatura kulturaren esparruan lan ixilean. Hara belaunaldi desberdinak eta tarteko katenbegiak: zaharragoen artean Arre-se Beitia, poeta omendua (El Día, 1930-XI-21); tartean Kirikiño, G. Mujika, Zamarripa...

Hortik sortuko da Euskaltzaleak taldea 1927an, Primo de Riveraren dik-tadurapean, Lizardi duela zuzendari. Hortik sortuko da Errepublika garaiko *Pizkundera* edo "Aitzolen Belaunaldia". Olertian Lizardi, Orixe, Lauaxeta; an-tzertian A. M. Labaien; kazetaritzan *Argia* astekaria eta *Euzkadi*, *El Día* eta *La Voz de Navarra* euskarazko artikuluak; kultur aldizkariaren artean *Yakintza*, Aitzolen eraginpean sorturikoa; ikerketan Barandiaran eta Eusko Folklore tal-dea, eta, herri-literaturarenean, M. Lekuona bere *Literatura Oral Euskérica* li-buruarekin (1935). (Aitzolek Barandiaran eta Lekuona Gasteizko seminarioan ezagutu zituen).

IBILBIDE LUZEA DAGO, BERAZ, AITZOL BAINO LEHEN. Baina diktaduraren ondoren, Errepublika garaian, giroa euskararen alde lan egiteko egokia bihurtzen ari zen, gazte askok eta jakintsu, irakasle eta idazle askok ekin zitoten euskal kulturaren aldeko lanari, aurreko urte latzagoetan ereindako haziaren fruituak bilduz. 1936ko gerrak Aitzol hil zuen eta Aitzolekin batera euskara eta euskaldunta-suna ere ia-ia.

Aitzol baino lehen, hor ziharduen Euskaltzaleak taldeak, Lizardirekin, ar-tean Aitzol misioak antolatze eta bultzatze lanetan zebilela. Gazteak ziren eta Kirikiñoren ikasleak: "Son los discípulos de Kirikiño, son los denodados "idaz-les"", honela aurkeztu zituen zuen Aitzolek (El Día, 1930-II-19). Diktadura-

pean Euskeraren Eguna antolatu zuten Arrasaten, arrakasta handiz: hori izan zen mugimenduaren abiapuntua. 1927ko Arrasateko ospakizun horretan Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta aldizkari eta egunkarietako ordezkariak parte hartu zuten. 1929an Zumarragan ospatuko da Euskeraren Eguna. Gero Euskal Umearen Eguna etorriko da, haurrak euskalduntzeko, euskararen munduan sartzeko -haurtzaindegien beharra aldarrikatuz-, eta Euskaltzaleak-en kanpaina, haurrengana hurreratzeko asmoz antolatua eta Seguran ospatua 1930-VI-24an, Txuntxungilloa edo euskal giñola erakutsiz (Euzkadi, 1932-XII-8). Ondoren Emakumearen Omenaldia Euskerari (Euzkadi, 1930-VIII-6) eta abar.

Altzeta, Mendi-Lauta, Aberri, Atarrene, Otarra, Udalamendi, Luzear, Labaien...horiek ziren hasierako Euskaltzaleak taldekoak. Hizlariak, kazetariak eta publizistak ziren. Errepublikaren etorrerak aukera hobea ekarri zuen. Eusko Ikaskuntza kultur erakundearen babestu ziren, egoitza Gipuzkoako Aldundian zutela. Euskararen aldeko ekintzak antolatzen zituzten, propaganda egiten, arlo askotan, baita proselitismoa ere, gurasoak-eta elkartera biltzeko deia zabalduz (Euzkadi, 1931-I-28).

Halako batean Lizardik Aitzolengana jo zuen, Euskaltzaleak eraberritu nahiz: "Ezin genezakek abertzale bidetik jo. Euskeltzaleasunara (sic) jo dezagun" hots egin omen zuen Lizardik (Aitzol, El Día, 1933-III-14). Aitzol bera 1931an agertzen da Euskaltzaleak-en buruzagitzan, dinamika berri bati ekinez, eta, dirudenez, Lizardik markatutako bidetik. Aurrerantzean agintariak gutxiago agertuko dira eta erakundea Donostiatik irten eta zabaltzen da. Aitzolekin Euzko Olerti Eguna ospatzen hasiko da, Euzko Antzerti Eguna (1934), Bertsolari Eguna, Eleberri Eguna (1935), Euskal Idazleen Kongresua, Kirikiño Saria, euskal literatura ikastaroak, umeentzako lehiaketa eta sariketak Santo Tomas egunean etab. Orain ikastolen aldeko ekintzak bezala, orduan euskara eta euskal poesiaren aldeko jaialdiak eta lehiaketak antolatzen eta ospatzen zituzten. Ekintza hauek *Yakintza* aldizkariak bere azken sailean jasotzen zituen. Urteen puruz, Euskaltzaleak bazkun herrikoia izatera iritsi zen, 2000 bazkiderekin. Honen guztiak Aitzol eta Euskaltzaleak euskal kulturaren azpiegitura antolatzen ari izan zirela darakusa.

Bi arlotan, batez ere, egin zuten lan: literaturan eta euskara eskoletan sartzan, hots, elebitasuna ezartzen, umeen liburuak ateratzen, eskolak eraikitzeko dirua biltzen, esate baterako Tolosan (Euzkadi, 1931-II-20). Eusko Ikaskuntzarekin batera jardun zuten antolatzaile lanetan (Euzkadi, 1930-2-19). 1930tik aurrera Euskaltzaleak-ek euskal poesiari lehentasuna emango dio, euskara idatzi edo literarioaren berme gisa (Euzkadi, 1935-VI-2). Bazkunak ez du erakundearen laguntzarik jasotzen, eta horretaz kezkatzen dira, erakunde edo agintariok herriaren ordezkari ez direla erakusten baitie. Urteak aurrera joan ahala arrakasta ezak samintasuna dakarkie (ibid.). Bestalde, Iparraldeko Pizkunde zantzuei gero eta erneago, harremanak estutzen dituzte Euskaltzaleen Biltzarra eta Iparraldeko idazleekin. Aitzolek adiskide min izan zituen Elissalde eta Oxobi (Euzkadi, 1936-VII-11).

Euskaltzaleak taldeak liburu sorta bat argitaratu zuen, “Zabalkundea” bilduma: hor atera ziren Lizardiren *Umezurtz Olerkiak* (1934) eta *Itz-lauz*, A. Kanpionen bi liburu, Altadill-en gazteluei buruzkoa (Euzkadi, 1934-XII-26) eta Thalamas Labandibar-en *Aspectos de la vida profesional vasca* (El Día, 1935-X-9). Proiektu berriak egin zituzten: pastoralak argitaratzekoa (Euzkadi, 1936-IV-19), baita I., II., III. Antzerti Eguneko antzerkiak ere (El Día, 1936-V-15).

Aitzol eta Euskaltzaleak-en ekintza hauetan guztietan helburua euskararen berpizkundea eta berreuskalduntzea zen batez ere: alde batetik literatura bultzatuz; bestetik, irakaskuntzan euskara sartuz. Azken arlo honetan, adibidez, euskararen aldeko maisuak biltzen dituzte elebitasuna bultzatzeko asmoz. Eta badirudi Aitzol bera bizkorregi ez joatearen aldekoa zela eta euskara gogoko gaiak irakasteko nahi zuela (erlijioa, Euskal Herriko Historia eta Geografia) eta gaztelera, aldiz, irakasgai zientifikoetarako.

Aitzol eta Euskaltzaleak-en bidea ez zen politikoa, kulturala baizik. Euskara da Aitzolen kezka nagusia, haren liburu, liburuska eta hainbat eta hainbat kazetalanetan agertzen denez. 1930 inguruan euskararen heriotzaren beldur da:

“A partir del año 1839 comenzó la guerra contra el idioma, cuando precisamente se depusieron las armas de fuego. El plan estratégico para ahogar el euskera se promulgó con la ley del año 1857. Hoy nuestros pasos son graduales, pero acelerados, hacia la tumba del euskera” (Euzkadi, 1930-IX-4).

Aitzol eta Euskaltzaleak-ek kultura maila gorakoan artean egin zuten lan eta bereziki gazte intelektualen artean. Euzko Pizkundea elkarteak sortu zuten: hor ari izan ziren Lojendio, Barriola anaiak, Mikel Urreta, Jesus M. Leizaola, Karlos Santamaria eta beste. Aitzol garaiko gazte intelektualen aitzindaria, liderra izan zen. T. Hernandorenak dioenez, Aitzolek bertsolari txapelketak sortzera bultzatu omen zuen bera; eta San Sebastian Irratian astero euskaraz ordu erdiko saioa lortzera ere —garaipen handia garai hartan—. Aitzolek berak ere bere kazetalanak elite batentzat idatzi zituela aitortzen du behin edo behin.

Aitzol eta Euskaltzaleak taldeak *Yakintza* kultur aldizkari elebiduna sortu eta argitaratu zuten (1933-1936, 21 ale). *Yakintza* garrantzitsua izan zen: literatura nagusi zen hor, olertia batez ere, baita saio eta artikuluak olertiaz nahiz beste gai batzuek. Teatroa ere bazen (itzulpenak, Labaienien saiakerak etab.). Eta euskal kultur gaiak: pedagogia, euskararekin lotuta (Landeta, Olano de Alzo, B. Echegaray, Aitzolen *Lucha de idiomas en Euzkadi y en el mundo* 1934); historia (M. Anguizar, F. Arozena, A. Zabala, J. K. Guerra); legedia (B. Etxegarai, Leizaola, Azurza, Aniceto Olano eta Miguel Olano); soziologia (J. Aspiazu, Thalamas); etnografia eta Folklore (Aranzadi, Eguren, Barandiaran, M. Lekuona, A. Irigarai); artea (J. Eizagirre, P. Garmendia, J. Artetxe); musika (A. Donostia, A. Olazarán de Estella); eta azkenik, “Euskaltzaleak’en Ekintza” delako saila.

Kultur pizkundea bai, baina euskararena zen garrantzitsuena, Aitzolen iritziz. Errealitatea, ordea, latza zen: euskal liburu gutxi argitaratu zen garai hartan

—1930an eta hortik aurrera—, eta ale gutxiko argitalpenak ziren; are gutxiago irakurtzen zen, eta, zer esanik ez, olertia. Euskaraz irakurtzera bultzatu nahi zen. Lizardik-eta atera nahi zuten euskal egunkariak izandako porrota errealtate latz horren beste erakusburu bat baino ez da.

Aitzol, kazetari

Aitzolek intuizioa eta gauzak antolatzeko buru argia eta dohainak zituen, denek aitortzen ziotenez. Ekintzailea zen, eratzailea, bultzagilea eta zabaltzailea edo propagandista, lehenik apaiz gisa misioen arloan (kongresuak, aldizkariak) eta gero euskal kultura munduan eta euskal gizartean. Bere eta Euskaltzaleak taldearen egitasmo eta ekintzen alde hizlari ibili zen eta kazetari gisa jardun zuen azken 6 urte t'erdiz. Politikan, ordea, ez zuen sartu nahi izan, 1931an Estatutoa Madrilan defendatzeko EBBko buruzagiak proposatua izan arren. Aitzolek kazetari gisa lan egitea hautatu zuen, euskal berpizkundearen gidari eta eragile, eta orobat euskal gizarte kristauaren eragile gisa jarduteko.

Kazetari legez misio aldizkarietan hasi zen: *Nuestro misionero-Gure mihiolaria* aldizkari elebidunean (1924-29), non editorialak idatzi baitzituen, eta bere zuzendaritzapeko *Illuminare* (1927) delakoan. Hor trebatu ondoren *Euzkadin* eta batez ere *El Día*n kazetari artikulista izan zen, iritzi artikulatu garrantzitsuak idazten zituzten horietakoa. *El Día* donostiar egunkariaren sorreratik idatzi zuen (1930) eta gainera erredakzio kontseilukoa izan zen, editoriala erabakitzen zen bilkurara etortzen zen egunero, buruetarik bat zen eta antolatzaile lanetan jardun zuen.

El Día, Pio Montoyak bultzatu eta diruz hornituak, gerra hasi arte iraun zuen. Montoya hori Aitzolen ikaskide eta adiskidea zen eta Gipuzkoarako egunkari bat nahi zuen ongi informatu eta euskal edo euzko nortasuna erakutsiko zuena, kristaua, noski, Jainko eta foruen defendatzailea, nahiz ez EAJ-PNVren agindupekoa (kontu honetan gorabeherak izan zituzten, Irazusta eta Ziaurrirek egunkaria alderdiaren diziplinapekoa izan zedila nahi baitzuten) eta euskal edo euzko kulturari bultz egingo ziona. Hauteskunde-kanpaina giroan oso garrantzitsua izan bide zen Donostian *El Día*ren agerpena, eta honen adierazgarri, erantzun gisa *El Diario Vasco* sortu zela aipatzen da. *El Día*k 10.000 ale ateratzen omen zituen. Aitzolek antolatu zuen *El Día* eta berak ekarri zuen zuzendaria, J. Landaburu, eta gero, hau diputatu izendatzean, Jose Lekaroz, *Euzkaditik*. Harreman estuak zituzten egunkari jeltzale honekin (P. Olano, Kizkitza), EAJ-PNV alderdiko Irazusta eta J. Eizagirre tolosarrekin eta besterekin....(Ik. M. de Ugalde, "Biografía de Aitzol", *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 1).

Aitzolek beraz sei urte t'erdiz idatzi zuen, *Euzkadi* eta *El Día*n batez ere. Guztira, bostehun artikulutik gora gutxienez, bere ohiko izen eta ezizenez si-

natuak eta *Obras Completas-Idazlan Guztiak*-en bilduak soilki kontutan hartuta. Beste zenbait ere idatzi omen zituen, batzuk beste goitizen batzuez izenpetuak, aipatutako liburukietan bildu gabeak. Garai hartako egunkari eta aldizkarietan horien azterrenak bilatzea komeniko litzateke.

El Dían astean behin guttinez idazten zuen Aitzolek. Haren artikulua, gehienetan, lehen orrialdean agertzen ziren, are orrialdeburuan: edo editorialak ziren, edo eguneko albisteei buruzko egunkariaren zeresana zekarren “El Día al día” sailekoak, edo “gizarte orrialdea” zeritzanekoak (beste egunkari batzuek ez zutena eta, aldiz, *Euzkadi* eta *El Díak* bai, kristau joerakoak izan arren). *El Díako* “gizarte orrialdean” idazten zuen, adibidez, J. M. Benegasek, Txiki Benegas-en aitak, “solidario” edo orduko ELAkoen pentsalarietarik bat zena.

Aitzolen kazetalan gehien-gehienak gaztelaniaz idatziak dira, baita haren liburuak. Euskaraz gaztelararen aldean gutxi idatzi zuen: *Eusko Olerti* liburuen hitzaurreak —hamaika— eta kazeta artikulua batzuk —dozena bat gutxienez—. Zergatik gaztelaraz? Alde batetik, irakurle gutxi omen zegoen, euskaraz irakurriko zukeenik. Baina bestalde, badirudi Aitzolek ez ziola euskal kazetaritzari Lizardik —euskal eguneroko sortu nahian baitzebilen— ematen zion garrantzia aitortzen, nahiz berak euskaraz ere ongi idazten zekien. Eragingarriagoa bide zeritzon egunkarian euskal gaiak —gai garrantzitsuak— erabiltzeari, toki onean jarriz, noski, eta are gaztelaraz erabiltzeari. Hortaz, Aitzolek euskal literatura eta euskara egunkariko toki onera eraman zituen franko aldiz, *El Díako* lehen orrialdera, editorial artikuluen tokira, *Euzkadin* Kirikiñok egin bezalatsu. K. Mitxelenak behin idatzi zuen *El Día* izan bide zela, Aitzolen eraginez, euskara ghetotik atera zuena, barrualdeko orrialde eta bigarren mailako gaien artetik, alegia (“Las lenguas españolas y el periodismo escrito”, *Len-guaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977). Egia ote?

Aitzolek kazetari kontzientzia zuen. Harentzat prentsa mitin baten modukoa zen, egunero milaka pertsonen aurrean emana. Eta premiazkoa eritzi zion informazio-agentzia zentral abertzale bat izateari, baita ere beharrezkoa artxibo, biblioteca eta Euskal Herriko kazetaritza eskola —erderaz eta euskaraz— sortzeari (“El día de la prensa patriótica”, *Euzkadi*, 1936-VI-7).

Euskal kultura pizkundearen eta kristau gizartegintzaren eragile: horiek dira Aitzolen kazetaritzaren bi alderdi nagusiak, haren kazetalanak biltzen dituzten bi liburukien izenburuek argi eta garbi jasotzen dutenez. Bere kazetari lanean Aitzol ez bide zen bakarrik sentitzen. Kultura-gauzetan Euskaltzaleak erakundea zuen atzetik. Eta gizarte arazoetan Policarpo Larrañaga, Alberto Onaindia —propagandistak eta ideologoak zirenak— eta besterekin jardun zuen hizlari. Bereziki Euskaltzaleak-en ekintzak harrotzean, erakunde horren eledun gisa ari izan zela ohargarria da.

Kazetari katoliko eta abertzale legez jardun zuen (*Euzkadi*, 1932-IX-11), apaiz gisa jardun zuela ez esatearren. Ez kazetari politiko gisa. Ez zen eguneko arazo politikoak aztertzen eta jokabide politikoak markatzen zuten horietakoa.

Eguneko politika konturik ez da ia batere agertzen haren artikuluetan. Izatekotan ere, ideologo gisa jardun zuen. Baina euskarari eta euskal literaturari zegozkion kontuetan, horietan bai agertu zuela argi eta garbi zer jokabide hartu behar zen, baita abertzaletasun eta gizarte arazoetan (greba, sindikazioa atab.), ideologikoki behintzat. Aitzol batez ere idea eta ekimen zabaltzailea, propagandista izan zen.

Aitzolen pentsaera

Aitzol kristautasun eta katolikotasunetik abiatzen da bere pentsaera eta ekintzetan. Hor oinarritzen du bai abertzaletasuna eta bai gizarte ekintza (El Día, 1932-XI-26). Eta lotu egiten ditu beti politika eta gizarte arazoak. Dena elkarrekin lotuta dago Aitzolen pentsaeran: abertzaletasuna katolikotasunarekin, euskaltzaletasuna abertzaletasun eta katolikotasunarekin, katolikotasuna gizarte arazoan konponketarako ekintzarekin, gauza materialak izpiritukoekin. Koherentzia handia erakusten du, gainera, lotura hauek defendatzerakoan.

Jeltzale agertzen zaigu ideologiaz, aranatar, eta erlijio aldetik bere konfessionaltasuna erakusten du. Are gehiago, “euzkotarrak Euzkadirentzako; Euzkadi Jaungoikuarentzako” S. Aranaren leloa beretzakotu zuen Aitzolek, bere Maisuaren balio-hierarkia hau onartuz, abertzaletasuna Jainkoaren maitasunean oinarritzen baitzuen (“Mi patriotismo se funda en el amor a Dios” izenburudun artikulua, El Día, 1933-IV-5).

Demokrazia, nazionalismo, internazionalismo, euskal abertzaletasun eta hauekin lotutako gaietan Aitzol ideologotzat hartua izan dela dirudi, kazetalan ez gain *La democracia en Euzkadi* liburua idatzi baitzuen (*Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 2. lib.). Nolanahi ere, kazetalanetan agertzen denez, behintzat, Aitzolen abertzaletasunean kultura alderdiak du pisu handiena, eta hau haren ezaugarrietarik bat da. Haren iritziz, kulturarik gabe ez dago pizkunderik; areago, kultura da pizkunde mugimenduen balio garrantzitsua (El Día, 1932-VIII-8). Uste handia zuen kulturari eta harentzat kultura herriak tradizioz jasotako guztia zen, —eta ez bakarrik euskara—, artea eta erlijioa barru. Beharbada ideologizatu nahi zuen kultura, hein batez —hortik Barojarekiko polemikak—: adibidez, teatroan erlijioa eta abertzaletasun edukinak sartu behar zirela pixkat, esaten zuen (Euzkadi, 1932-XII-25).

Ekonomia eta politika alderdi materialei dagozkien kontuak izaki, euskara da Euskal Herriaren izpiritua edo arima, Aitzolen arabera. Eta euskara pizteko literatura omen biderik eragingarriena, eta literatura barruan herri-poesia artistikoki lantzea. Horregatik, Aitzolek bere eginkizuntzat hartu zuen literatur kritika egitea eta bidea erakustea. Eta horregatik aberriaren pentsamendu artistikoa lantzen ari zirenei zuzentzen zaie, elite bati (ik. haren azken artikulua, “Revasquización del pensamiento literario”, Euzkadi, 1936-VII-18). Bestalde,

euskararen pizkunde mugimenduaren barruan une berezi batean eta euskal gizartea erlijio krisian bizi zelako kontzientzia zuen.

Zertako idazten zuen

Euskal pizkundearen urrats, aztarna eta zantzuen lekukotasuna jaso, figura, egile eta obra esanguratsuenen berri eman eta jendaurrean agertarazi, hedatu, zabaldu, zuzpertz, bereziki Euskaltzaleak-en ekimenak. Hori nahi eta egin zuen. Horregatik jardunaldi, omenaldi, ospakizun eta jaietara joaten zen, horietan ikusi edo ohartutakoa bere artikulua idazteko aitzakiatzat hartuz. Balio artistiko berrien lekukotasuna jasotzea zen, harentzat, atsegirik handiena (“Arte, religión y patriotismo”, Euzkadi, 1936-IV-9). Hor agertzen zaizkigu, beraz, Aitzolen kazetalanetan, euskal kulturarekin, abertzaletasun edo gizarte arazoezin lotutako garaiko gertakari, egintza, ekimen, figura ereduagarriak. Baina baita, mendeurrenak kari, aldi igaroetako gertaera hautatuak ere.

Eta ez bakarrik Hegoaldeko pizkundeari dagozkionak, Iparraldekoari ere bai. Ezta ere Euskal Herriko pizkundeari dagozkionak huts-hutsik, Espainia eta Frantziako Estatuetakoa beste herrietakoak ere bai, bereziki Kataluniakoak. Are gehiago, Europa eta munduko herri txiki eta zapalduen pizkundearen berriak etxean, gure artean, ezagutarazi zituen, Euskal Herriko pizkundera sendotzen lagunduko zutelakoan. Horregatik datuak bil eta aztertzen zituen herri horietako gauza batzuk Euskal pizkunderentzat jarraigarriak izan zitezkeelakoan, batez ere hizkuntza, literatura, elebitasun eta abertzaletasun gaudetan.

Gertaera haien esanahia epaitu eta horrela irakurleak bere iritzian sendotu eta armatu nahi zituen. Hala irakurleen buruan eta bihotzean etengabeko lana egin bide zuen. Alta, helburu praktikoak bilatzen zituen: hizkuntzari dagokionez, egoera gaintu, euskara ofizial bihurtu, elebitasuna ezarri eskoletan. Azken xedetzat Euskal Herriaren berreuskalduntzea zeukan (“Por la redención del idioma nacional”, Euzkadi, 1931-VII-29). Baina ongi zekien helmuga hori oso urruti zegoela. Errealitatetik abiatzen baitzekien, bat-batean egintza handien premia aldarrikatu beharrean urrats apalak eman behar zirela uste zuen (adibidez, euskal teatro nazionalerako bidean herri-teatro apaletik abiatu). Kristau gizartegintzari dagokionez, langileen elkartasuna bultzatzea eta horren kristau zentzua erakustea, Ebanjelioan oinarriturik, zen Aitzolen helburua: “Infiltrar en esas masas proletarias, el profundo sentido cristiano-social de la sindicación fraterna: consolidar los conocimientos de las nacionalidades en los principios del Evangelio, es la labor más sabia y prudente para el porvenir” (“Las rojas linternas del peligro...”, El Día, 1932-XI-26).

Aitzolen kazetalanetan kristautasunaren krisia nabarmen agertzen da, langile gazte, emakume eta hainbat jende Eliza Katolikotik aldentzen, eta hala ere, bertan behera utziak direla ikustean. Badirudi Elizak herri zapalduen eta lan-

gileen alde lan egin behar duela eta egiten duela erakutsi nahi zuela Aitzolek. Elizgizonei ere zuzentzen zaie argi eta garbi esanez, odol-, hizkuntz- eta nazionalitate-eskubideak defendatzea ere badela haien eginkizuna, Jainkoagandik datozelako (“La Iglesia frente al fascismo”, Euzkadi, 1932-XII-31).

Gaiak, ideiak eta iritziak

Aitzolen artikulu asko lehen orrialdeko editorial eta antzeko artikuluak direla kontutan hartuz, eta, gainera, erredakzio-kontseiluak hautatuak eta eza-riak, ondoren gai nagusiak aipatuko ditugu, orokorki:

Euskara eta eskola, eta elebitasuna, batez ere eskolan. Literatura —haren arlo kutunena eta jorienetarikoa—. Artea eta euskal kultura, euskal pizkundearen erakusgarri guztiekin: folklorea, txistua, dantzak....Euskal historia eta politika. Abertzaletasuna Euskal Herrian eta munduan, hots, garai hartan munduan borrokatzen ari ziren herri zapalduen abertzaletasuna, herrioren pizkundearekin lotuta, bereziki literaturan.

Gizarte gaiak: euskal gizarte kristau eta zuzenbidezkoa eta euskal sindikalgiaren premia. Ohartarazi behar da euskal abertzaletasun eta gizarte arazoak Aitzolek ideologikoki tratatzen dituela; ez direla eguneko politika zehatz markatzekoak, ez ongi izate materialarekin zerikusia dutenak —ekonomia etab.—, izpirituarekin baizik.

Ondoren, gai-sailotan agertzen diren ikuspuntu eta iritziak zehatzago eta labur enuntziatuta aipatuko ditugu, sei urte t’erdiko artikulutza gaingiroki eta ia osotasunez begiratuta. Iritzi horien bilakaerak, gertaeren arabera, beste azterketa bat eskatuko luke. Esaterako, badirudi literaturak gero eta garrantzi handiagoa hartzen duela, hasieran euskararekin parekatu badabil ere.

Pizkundera eta euskara

Pizkundera delako kontzeptua eta hitza (gazt. *renacimiento*), bai euskara eta euskal literaturari, bai politika abertzaleari dagokionez, bere garaiaz ari zela erabiltzen zuen Aitzolek. Baina, zentzu zabalean, baita aurreko garaiez ari zelarik: Abbadie, adibidez, *renacentista* deitzen du, eta Fr. J. Mateo Zabala alegilaria pizkundearen aitzindari (Euzkadi, 1934-VI-8). Pizkundera, Aitzolentzat, Euskal Herriarena nahiz edozein herri txiki edo zapalduena da, edozein alderdi eta arlotakoa. Hitz honen erabilera eta adiera zehatzago aztertu beharko litza-teke, hala ere.

Euskara eta eskolaz Aitzolek zituen iritziak labur ditzagun. Euskara egoera larrian dago, nahiz esperantza baden (“La agonía del euskera y la resurrección del finlandés”, Euzkadi, 1931-7-24); itotzen ari da (“Abertzaleak eta euskera”,

El Día, 1935-VI-16). Hizkuntz burruka dago eskolan euskara eta gazteleraren artean. Oso gutxi aurreratu da elebitasun arazoan: Eskola Normalik ez, testuliburuak egin gabe, testik ez... (“El Magisterio oficial, por el bilingüismo”, Euzkadi, 1936-VI-4). Udalek bultzatu behar dute euskara eskoletan; udalek diruz lagundutako kolegioak ezin dira ukatu euskal irakaskuntza ematera. Eta badira adibide eredugarriak ere: Lekaroz eta Tolosako bi kolegio (“La enseñanza euskeldun y los municipios vascos”, El Día, 1931-XI-12). Eskola “libreak” (hau da, pribatuak) dira euskararen irakaskuntza segurtatzen dutenak, diktadurapean egin zuten bezala, eta ez udal-eskolak edo auzune-eskolak —hots, “Escuelas de Barriada” direlakoak—.

Atzerrian jendeak eta herriek beren hizkuntzaren eskubideak sutuki defendatzen dituzte. Adibide eta ereduak: Suiza, Eskozia, Belgika —non flamenkoak eredugarri baitira—, Holanda, Frantzia Britainia eta Languedoc; Gales-en kasu argigarria (Euzkadi, 1935-III-6). Elebitasunaz hona hemen Aitzolen galdera interesgarri bat: “Badaukagu euskaldunok, euskaraz dakigunok, benetan geure hizkuntzat hartzen dugunik?” (“El niño, víctima del conflicto de los idiomas”, Euzkadi, 1930-XII-10).

Estatutuak itxaropen handiak sortarazten ditu: hari esker euskara bizkortuko eta justizian ere erabiliko da (“El estatuto es el mejor camino (Hacia la euskerización del País Vasco)”, El Día, 1932-VI-15). Euskara irakaskuntzan ez ezik Estatuaren ordezkartzan ere erabili behar da: Euskal Estatuarekin Euskal Estatuko kargu ofizialdunek euskara erabili beharko dute (“El Estatuto Vasco y el euskera por el desarrollo del Renacimiento euskerista”, El Día, 1932-VI-12). Euskarak justiziako eta epaitegietako hizkuntza izan behar du (“El euskera en los tribunales de justicia”, Euzkadi, 1934-IX-21). Eredua Katalunia da (“Euskal Gurasoen Alkartasuna”, Euzkadi, 1936-IV-29).

Bereziki abertzaletasunak euskara gehiago bultzatu eta erabakitzeko kemen handiagoz jokatu behar du (Euzkadi, 1935-III-6). Euskara itotzen ari da eta abertzaletasunak lagundu behar dio, eta EAJ-PNVk ere bai: “Eusko Alderdi Jeltzalea, goitik beraño, esnatu dadila erabaki sendoa artzeko. Abertzale banaka batzuk lanean aritzeak bakarrik gauza utsa da. Eusko Alderdi guzía lanari lotu bear zaió euskera gaizkatzeko” (“Abertzaleak eta euskera”, El Día, 1935-VI-16).

Ildo honetatik, Abandoko Uri Buru Batzarreko lehendakariak eginiko urratsari jarraigarria deritzo: “El presidente de Abando’ko Uri buru Batzarra, doctor Yankee, pronunció breves y sentidas palabras, en euskera, encareciendo la importancia que tiene el expresar nuestros pensamientos en lengua vernácula y haciendo patente su confianza de que, merced al entusiasmo que por nuestra causa sienten los afiliados, será posible en plazo no muy lejano celebrar todas nuestras asambleas en el idioma de nuestros mayores” (ibid., *Euzkaditik* jasoa). Aipatu artikuluan dioenez, EAJren batzar orokorraren aurrean, abertzale euskaltzaleek “nai gendukena auxe da: Batzar Nagusi orretan euskeraz egitea, gu-

txienaz erderaren neurri: euskerari buruz erabaki sendoak artzea. Adibidez, ara nolakoak: batzoki guzietan, negu aroan, euskera ez dakiten alderdiratutako guziak biartuak izan ditezela euskera ikastera, gazteak diranak, batez ere; izparringietan nagusi, noizik beinka, euskera agertu dedila...” (ibid.).

Eta euskara udalaren babespeko eskoletan ez ezik, herriko-etxeetan (udal-letan) ere nagusi ezartea da alkate eta zinegotzi abertzaleen zeregina, batzarretan mara-mara erabiliz, eta udalaren dirulaguntza jasotzen duten ikastoletan euskaraz irakatsi dezatela eta herriko-etxeetan funtzionarioei euskera jakin dezatela eskatuz (“Euskera erriko-etxetara”, El Día, 1936-IV-3). Euskara beste arazoan gainetik dago: “Euskerari eustea bedi errikoetxe abertzaleen lenengo elburu eta egin bearra” (ibid., hauteskunde garaian esana).

Gazteria euskaltzaletu: horra hor zeregina. Honetan Iparraldean Eskualzaleen Biltzarra egiten ari zen lana —idaz-lehiaketak haur, gaztetxo, apaizgaien artean— eredugarria omen da, ia 2000 pertsonak parte hartu baitute. Hau ikusita, Euskaltzaleak-ek ere holako idazketa-lehiaketak antolatzeari ekin omen zion unibertsitarioen, gaztetxoen eta haurren artean. Eta Eskualzaleen Biltzarrak, ordainez, bere urteroko bileran bertsolarien txapelketa antolatzea erabaki, gero, irabazleek Euzkadiko Txapelketan parte har zezaten. Ekimen hau hiru tolosarrek proposatu omen zuten: Eizagirre, Lopez Mendizabal eta Aitzolek berak (“La euskerización de los jóvenes (La juventud de Euskadi continental)”, Euzkadi, 1936-VII-11). Hona hemen beraz Euskaltzaleak eta Eskualzaleen Biltzarra harreman estuan eta elkarren eragile.

Euskerari buruz, kazetalan mordoxka batez gainera, bi saiakera idatzi zuten Aitzolek. Bata, *Lucha de idiomas en Euzkadi (Yakintza, 1934)*, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* izenburupean A. Olano, B. Etxegarai eta E. Landetaren idazlanekin batera Euskaltzaleak-ek argitaratua (Donostia, 1935. Ik. *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 2. lib.). Bestea, *La muerte del euskera. Los intelectuales vascos o los profetas de mal agüero* liburuskua, Donostian R. Leizaolaren inprimategian argitaratua eta kazetalan sorta batek osatua (El Día, 1931ko azaroan agertaraziak).

Pizkundera literaturan: olertiaren egitekoa

Aitzolek uste handia zuen ezarria literaturan, batez ere olerti edo poesian. Euskal Herriak literatura ederra izan zezakeen, haren iritziz, legegintza aldetik —irakaskuntza publikoarenetik, adibidez— ahul bazegoen ere. Pizkundera eta poesia, abertzaletasuna eta poesia elkarrekin lotuta daudela uste du Aitzolek. Pizkundera lehenik poesia agertzen omen da.

Poesiaren egitekoa pizkundearen eragile izatea da, herriaren iratzarle, herriari sentiarazi behar dio, emozioz bete; horretarako herri-euskara erabili behar da, nahiz garbitua, baina beti herriak darabilen mardultasun eta freskotasuna-

rekin (“Los poetas del destierro”, Euzkadi, 1935-V-22). Kultur espresioen artean literatura da garrantzitsuena, literaturaren adierazkera definituagoa eta konkretuagoa delako, adibidez, musikarena baino, eta herriari bere izpiritua eraikitzen bultzatzeko ahalmen handiago duelako (Euzkadi, 1934-VI-1). Herri poesian herriaren historia dago; euskaldunen izaera erakusten du (Euzkadi, 1934-IX-9). Eta poeta Euskal Herrian herri-gogoaren eleduna izan da (“El VII Día de la Poesía Euskaldun”, Euzkadi, 1936-V-13).

Beste alde batetik, olertia hizkuntzaren eta literaturaren indargarri edo sendogarri da (““El poema “Kalevala” y la resurrección nacional de Finlandia (La fuerza del idioma)”, Euzkadi, 1933-X-5). Baita edergarri ere, hizkuntzari edertasuna eman behar baitio (“Los poetas del destierro”, Euzkadi, 1935-V-22).

Herriaren esnatze eta pizkundean literatura aurrelari ibili ohi da, maiz poetak izanik herri-pizkundearen lehen somaketa. Poetak, herri-pizkundearekin batera edo aurretik doaz: “El renacimiento patriótico va siempre acompañado, y por regla general precedido, por el renacer de la poesía indígena” (“Del renacimiento catalán al Estatuto (Renacimiento y poesía vasca)”, Euzkadi, 1932-VI-9).

Honetan atzerriko eredu nagusiak Finlandia, Proventza eta Katalunia dira. Finlandia, autonomia politikoarekin konformatu gabe kulturaren eta hizkuntzaren alde lan egin zuelako. *Kalevala* poema da Finlandiako pizkundearen emaitzarik bikain eta eredugarriena (Euzkadi, 1933-X-5), haren sortzearen mendeurrena ospatu zelarik 1935an (Euzkadi, 1935-X-26). Erromantizismo garaian finlandiar gazteriak folklorea eta kultura bultzatu zituen. Suomiera edo finlandiera landugabea zen, baina 1902an koofizialtasuna jadesi eta Aitzolen garaian nagusitu zitzaion suedierari irakaskuntzan. Suomiera berpiztua zenean, euskal abertzaletasunak urte gutxi zeramatzan oraindik, eta euskararen aldeko kanpainak are gutxiago. Iraunkortasunean ere eredugarri omen dira finlandiarrak.

Herri-poesiaren bilketan ere jarraigarria da Finlandia, artxibo nazionala sortu baitzuten, bertan milioi erdi herri-poesia gordez. Orobat Letonia, herrialde honek ere bere herri-poesia, ipuin, alegiak bildu baitzituen (“La poesía popular letona en el renacimiento nacional (El abandono de la poesía popular en Euzkadi)”, Euzkadi, 1933-VI-25). Izan ere, Finlandia eta Letoniako herri-literaturaren bilketaren eredu jarraitu nahi dute Aitzol eta Euskaltzaleak-ek, eta horregatik institutu bat beharrezkoa dela diote, Kataluniako Patxot Institutua bezalakoa, eta hori ezean Euskaltzaleak-ek herri-poesiaren bilketa bultzatzeko duela, sariketa eratuz, Urretxun ospatzeko den IV Oleriti Egunerako (ibid.).

Proventzako pizkundera eta Mirèio eredugarri iruditzen zaizkio, Mistrali eginiko omenaldia kari (Euzkadi, 1930-IV-13, 16, 22; El Día, 1931-I-25). Halaber Katalunia: mende bateko pizkunde literario eta politikoaren ondoren Katalunia bere askapenetik oso hurbil dagoke (“1833-1933: Centenario del renacimiento catalán”, Euzkadi, 1933-VI-16; ik. ere Euzkadi, 1933-VI-4).

Beste adibide batzuk, non poesia pizkundearen aitzindari ari baita: Flandria (“El movimiento flamenquista y la poesía (Día de la poesía en honor de Iparragirre)”, Euzkadi, 1933-V-21). Letonia (Euzkadi, 1933-VI-25). Filipinak, Rizal eta Palma poetekin (Euzkadi, 1932-IV-24). Polonia (“Los poetas del desierto”, Euzkadi, 1935-V-22).

Izan ere, poetak baitira, ez politikoak, herri zapalduen sentiberatasuna jasotzen duten lehenak. Gainera, poesia eta kantua loturik doaz: jendeak kantatu egiten du herri-pizkunde garaian (“Del renacimiento catalán al Estatuto”, Euzkadi, 1932-VI-9). Ukrainan ere poeta bat bihurtu da aberriaren sinbolo (“Desde la desgraciada Ucrania a la aldea de Bedoña (Rutas de la poesía patriótica)”, Euzkadi, 1935-V-15).

Beraz munduko herri zapalduen abertzaletasunaren eta poesiaren arteko lotura erakusten digu Aitzolek. Zerbait berria, ausaz. Eusko Oleriti Egunaren bidez hark eta Euskaltzaleak-ek poesiaren eta abertzaletasunaren arteko lotura gero eta sendoagoa nahi zuten. Orogen buru, literatura landua eta ugaria nazio jausitua iratzartzeko bitarteko hoberenatarik bat da, haren iritziz (Euzkadi, 1931-IV-1).

Aitzolek herri-poesia edo kantu eta bertso zaharren bilketa-lana beharrezkotzat jo ez ezik biziki maite zuen. Badakigu Eusko Folklore taldean ibili zela Barandiarenekin. Eta, bere kazetalanetan irakurrita, herri-poesiak bildu zituela, barbarako iruleen ziklokoak (Euzkadi, 1934-VIII-21). Eta garaiko egile hil berrien poesiak jaso ere bai: Mendiage (Euzkadi, 1934-XII-11); J. K. Zapirain (Euzkadi, 1934-IX-29); Uranga (“Un renacentista de primera hora (Juan Ignacio de Uranga)”, Euzkadi, 1934-XII-29). Kantu zaharrak biltzeko deia egin zien gazteei (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, El Día, 1936-V-6). Haren *Colamus carmina nostra* delako kantu bildumaren berri jakiteko irrikitan gaude.

Literaturkritikari eta gidari poesian

Aintzat hartu beharreko kritikaria da Aitzol, garaikide zituen olerkari go-renekin batera (Orixe, Lauaxeta, Lizardi). 1934an euskal estetika literarioari edo, haren hitzez esateko, “eusko elerti-kera berezia”ri buruzko saio bat idazteko asmoaren berri ematen digu (“Estética peculiar de la poesía vasca” artikulua, Euzkadi, 1934-IV-21). Gai horren mamia euskarazko lan batean garatua zuela diosku bere azken artikuluan (Euzkadi, 1936-VII-18). “Eusko elerti-kera berezia” izenekoa dela dirudi (*IV Eusko Olerkiak* liburukoa, 1933; Yakintza, uztail-dagonila, 1934, 10. zenbak.). Bestalde, 1936rako inprentaratzeko prest omen zeukan idazlan teoriko bat, *La poesía popular en el renacimiento de los pueblos* delakoa, Elorza eta Labaien arabera, agertu gabea (ik. M. Ugalde, “Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I., 14. or.).

Eusko Olerti Egunak, eta ondoren Euskaltzaleak-ek argitaratzen zituen *Eusko-Olerkiak* liburuak iturri garrantzitsuak dira Aitzolen irizpideak ezagutzeko. Hots, 1930koa Errenderian —Lauaxetak irabazia—, 1931koa Tolosan —Lizardik—, 1932koa Hernanin —Loramendik—, 1933koa Urretxun —F. Etxeberriak—, 1934koa Zarautzen —J. Zaitetik—, 1935koa Bedoñan —Jautarkol eta Orixek— eta 1936koa Lekeitioan, azken hau Otamendi eta Sukiak irabazia (ik. Euzkadi, 1936-V-13). Baina Aitzolen kazeta-artikuluek ere informazio handia eskaintzen dute, eta, izan ere, literaturkritikazkoek haren alderidirik kutunena, agian, erakusten dute. Hainbat idazle plazaratu eta obraren berri eman eta kritika egin baitzuen, bera baino lehenagokoen eta batez ere garai-kideen epaile moduan jardunetz.

Adibidez, Aitzolen arabera, S. Aranaren poesia kantatzeko da, aberriaren emozioa agertzen baitu (“La emoción de la patria en el canto y la poesía (La intuición de S. Arana)”, 1932-III-3). Lauaxeta maitasunaren poeta da (“El poeta del amor”, Euzkadi, 1932-II-3; “Por la senda de la poesía erótica”, Euzkadi, 1932-II-6). Hain zuzen, maitasunaren gaia zela-eta Aitzolek Orixerekin eztabaida izan zuen (ik. M. Ugalde, “Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I. lib.). Aitzolek *Arrats Beran* goraipatzen du, herri-poesiari hurbildu zaiolako, nahiz oraindik hizkera argiagoa bilatu behar duen (“El heraldo de la poesía vizcaína (Poesía impresionista)”, *El Día*, 1936-VI-26).

Orixe, “El cantor de la vida vasca” legez kalifikatu zuen artikulu baten izenburuan (Euzkadi, 1930-X-12), eta euskal olerti jatorraren sortzaile, “Itzai zekena” olerkian erakutsi omen zuenez (“La genuina poesía vasca”, Euzkadi, 1930-X-16). *Barne Muinetan*-en balioak goraipatzen eta kritika batzuk egiten dizkio: adimen-poesia sendimenduari gehiegi nagusitzen zaiola, eta, batzuetan, ulertu ahal izateko erderara jo beharra dagoela (“Balance literario euskeldun de 1934”, Euzkadi, 1935-I-6); ik. ere Euzkadi, 1935-VI-2).

Lizardi, “hizkuntzaren iraultzailea”, zaila eta euskal mitologia berria sortzerakoan orijinala omen da (“Urte-giroak. Paisaje de las estaciones”, Euzkadi, 1932-VI-15). Euskaltzale ekintzailea (Yakintza, 1933, maiatza-ekaina) eta euskal olerkari gorena omen da, gero eta ezagutuagoa izango dena (“Homenaje a “Javier de Lizardi”, Euzkadi, 1934-VI-10). *Umezurtz Olerkiak* -en hitzaurreaz gain (Euskaltzaleak, 1934), kritika egin zion (Euzkadi, 1934-V-8).

Beste olerkari eta bertsolari batzuei buruzkoak: Jautarkol —Aitzolen lan-kide hainbat ekimenetan, *Biozkadak* (1929) argitaratu ondoren I Olerti Egunean Erreterian omendua— olertia folkloregaiekin aberastea erabaki omen duena (Euzkadi, 1930-VII-10). Loramendi, behin eta berriz goraipatua (ik., adib. *El Día*, 1933-III-25; Yakintza, 1933, uztaila-abuztua; “El IV Día de la poesía vasca (El homenaje al poeta “Loramendi)””, Euzkadi, 1935-VI-1). Zubimendi, olerkari eta kazetaria, *Aberri Oyuak* (1932) —zeinen 5000 aleak agortu omen ziren— eta “Zumalakarregi-Poematxoa”ren egilea— eta R. Renteria (“Poesías vascas (Nuevas floraciones)”, Euzkadi, 1935-IX-29). Eta Olerti Egunetan ager-

tutako beste poeta gazte mordoxka bat (F. Etxeberria, J. Zaitegi, Jakakortarena, Loidi, Tapia-Perurena, Gaztelu, Erkiaga, Onaindia, Otamendi, Sukia...).

Zaharragoen artean P. M. Otaño bertsolaria eta poeta ("Pampero y poeta vasco", El Día, 1931-I-17). Xenpelar (Euzkadi, 1930-XII-9). Arrese-Beitia ("Imaginerio y poeta", El Día, 1930-IX-21; "El poeta de las ferrerías", Euzkadi, 1930-IX-24). Zamarripa ("Un infatigable euskaltzale", El Día, 1930-IX-4; "¿Un poeta malogrado?", 1930-XI-29). J. M. Zabala alegilaria ("El iniciador del renacimiento (El fabulista bizkaino)", Euzkadi, 1934-VI-8). Euskal emigratioaren poetak: Egiategi, Zelhabe, Zaldubi, Elizanburu —hauek biak bigabeki guttietsiak omen direnak—, Mendiage ("La emigración vasca y la poesía euskaldun (Venero de inspiración)", Euzkadi, 1934-XII-11). J. I. Uranga (Euzkadi, 1934-XII-29), etab.

Aitzolek iritzi finkoa zuen euskal literatur-estetikari buruz, liburu hitzau-reetan eta kazetalan frankotan erakusten duenez. Hauen artean aipagarriene-takoa da haren azkena, gerra hasi zen eguneko, "Revasquización del pensa-miento literario" izenburuduna (Euzkadi, 1936-VI-18). Artikulu honetan garbi adierazten du estetikari buruz zuen irizpidea: euskal herri-poesia berezia eta ederraren adierazkera, euskal arimaren edo euskal estiloaren arabera, kopla za-harren teknikak erakusten du, honek alde bi baititu: irudia edo metafora —eus-kal izaditik jaso— eta ideia edo kontzeptua —maitasun, ardo-kanta, kondai-ra...arlokoa—. Olerkari berriak —adibidez Otamendi edo Sukia, Eusko Oler-tiaren VII. Egunean agertuak—, teknika honi atxiki zaizkiola-eta, pozik agertzen da. Eta herriak, azkenean, pentsamendu artistiko nazionala bilatzen dutenen bideari jarraituko diola itxaroten du.

Aitzol hasiera-hasieratik eta beti irizpide berekoa izan zela dirudi, nahiz irizpide hori garatzen joango den. Haren iritzi, badago euskal estetika berezi bat eta euskal poesiak euskal izaerakoa izan behar du, herri-poesian edan behar du, euskal folklolean edo tradizioan ("Nuevo género poético", Euzkadi, 1930-7-10). Eta "Eusko elerti-kerak berezia" idazlanean ere irizpide bera buruan sartu nahi die olerkariei (*Eusko Olerkiak*, 1934). Orobatsu "Estética peculiar de la poesía vasca" artikuluan, non F. Etxeberria olerkaria gorai patzen baitu estetika horren erabileragatik (Euzkadi, 1934-IV-21).

Eusko Folkloren eginiko ikerketek zerikusi handia izan bide zuten Aitzo-len pentsabidean. Hasiera-hasieratik, edo bestela geroxeago, euskal herri-poe-siari nagusitasuna aitortu zion, lirika "unibertsalista"ren —hola deitzen du— aurrean, nahiz dela lirika klasikoa (Orixerena, esaterako), nahiz dela lirika erro-mantikoa edo modernista (Lizardi eta Lauaxetarena, adibidez). Batez ere azken honetatik urrunduz joan zen. Aitzolen joera hau ulertzeko —edota bilakaera, halakorik egon baldin bazen— komeniko litzateke, alde batetik, Comillasko haren literatura-ikasketak —autore klasikoak eta beste—, eta, bestetik, ahozko-literatura, herri-folklore, abertzaletasun eta *Mirèio*, *Kalevala* eta abarren era-gina zehatzago aztertzea.

Aitzolek epaile moduan jardun zuen, norabidea markatzen. Eta olerkarien bide berriek zekartzaten ondorioak onak ez zirelako, haren ustez, kritika egiten die gorengo mailako batzuei: Lizardi, Lauaxeta, eta, batzuetan, Orixeri ere bai.

Kazetalanetan euskal literaturaren krisiaz behin eta berriz mintzaten da, urte bukaerako balantzeak egiterakoan. Irakurle gutxi dagoela, liburu gutxi saltzen dela: adibidez, olerti sariketakoak 300 ale bakarrik. Honen errua, hein batez, idazleek berek omen dute, frankok behintzat, euskara subjektibista eta literatura artifiziala egiteagatik, aukerak inoiz baino hobeak, idazle onak eta euskararen jakintza handiagoa izan arren. 1934ko urtea aurrekoarekin alderatzean, kalitatean ez dela aurreratu, dio. Bestalde, dirulaguntzarik eta Mecenasik eza, sari apalak etab. aipatzen ditu. Literatura ez dela gar politiko eta elektorala bezainbat piztu eta balantzea beldurgarria dela. Kritika egiten die olerkarietara eta zer egin behar duten aditzera eman (“Por la literatura euskaldun (Concursos literarios)”, Euzkadi, 1934-XII-18; “Balance literario euskeldun de 1934”, Euzkadi, 35-I-6).

Bereziki Lizardi eta Lauaxetaren olerkiei ulerkaiztasuna egozten die —garbizalekeriagatik, honek ondorioz herritik urruntzea ekarritz— eta orobat kontzeptualismoa edo kontzeptuosismoa, hots, kontzeptu ilunak erabiltzea, esate baterako *Umezurtz Olerkiak*-eko “Arrats gorri”n. Idealista hutsak bezala jotzen dutela, alegia. Bertso eta idazlan eta artikulo zailak nazkatu dituztela irakurleak (“Antziñako oituren piztutzea”, *El Día*, 1933-II-5). Orixe ere kritikatzeko du, nahiz askoz gutxiago. Adibidez, Eusko Olerti Egunetako liburuko olerkiez ari dela, hauxe dio:

“Fáltales lo esencial: la frescura, la naturalidad de un euskera fluido, fácil, inteligible. Están escritos con fórmulas lingüísticas la mayor parte de las poesías y artículos y nótase en ellos la ausencia del sentimiento de lo sencillo y natural, propio de un idioma vivo y palpitante. Hay en estas poesías y escritos gran caudal de estudio, de trabajo, de decisión y hasta de ingenio; pero en ellos domina el artificio sobre el arte, lo rebuscado sobre lo natural, lo retorcido sobre lo espontáneo. Y es ya hora de que lo advirtamos” (Euzkadi, 1935-I-6, ja aip.).

Eta, aldiz, beste olerkari apalago batzuk goraiatzeko ditu: F. Etxeberría, Jauregi, Zubimendi, Loidi, Loramendi, Jakakortarena, Otamendi, Sukia... uler-garriagoak eta herri-ahogozotik hurbilago daudelako.

Jada 1932an lirikaren joerarekin guztiz pozik ez eta “eusko kutsuko poematxo errikoiak” saritzeko deia egin zuen, deiar Jakakortarena eta Tapia-Peurenak erantzunez. Irakurleak idazleengandik urrutiratzea olerkarietara beraiei egozten die, hein batez:

“Ellos (idazleak) lo han alejado (publikoa) con un euskera subjetivista, personalmente arbitrario, con un valor en las palabras, imágenes y frases totalmente personal, que el lector no puede ni interpretar ni adivinar sino tras

grandes esfuerzos. Por eso gran parte de nuestra literatura es artificiosa, carece de naturalidad, de espontaneidad en la expresión, de viveza y lozanía.

Es imprescindible que, dando un viraje pronunciado, enfilemos la producción literaria hacia los senderos de lo natural, de lo espontáneo, de lo sencillo, huyendo de lo artificioso, amanerado, y de la expresión dura de un lenguaje fabricado en laboratorio. Es ésta una condición sin la cual no llegaremos jamás a tener una literatura vasca” (“Por la literatura euskaldun (Concursos literarios)”, Euzkadi, 1934-XII-18, ja aip.).

Geroxeago, 1936an, olerkari batzuen azken joera begi hobez ikusi zuen, Lauaxetaren *Arrats Beranekoa*, esaterako, herri-poesiatik hurbilago omen zegoena. Nolanahi ere, olerkari landuek ezin zezaketen, haren iritziz, bertsolarien eragina izan; olerkari landuoi jendeak ihes egin omen die, bai jendearen indiferentzia, ezjakintasun, irakurtze ezagatik, baita olerkariaren erruz, hein batez, estilo artifizial bati atxikitzen zaizkiolako, irizpide subjektibistegiaz, horrek zailtzen duela haien irakurketa (“El VII Día de la Poesía Euskaldun”, Euzkadi, 1936-V-13). Euskal idazleek literatura unibertsalaren iturritik edatea ona den arren, etxean dagoen altxorra ezagutu egin behar dela dio Aitzolek. Adibidez, herri-alegiak edo abereen arteko ipuinak arte-bitxi preziagarriak direla dio, berak ere Eusko Folklorean bildu zituela, horien arteko bat hitz neurtuzkoa, eta, tamalez, euskal idazleek ez zituztela ezagutzen, haien izenak bederen (Axarko, Otsoko, Beleko...).

Euskal izaerako lirika edo tradizioan oinarritua bultzatu zuen arren, Aitzol poema epikoen alde zegoen: 1932tik aurrera gero eta garbiago agertzen da epikaren alde, sariketa berriak eta diruz ordainduak antolatuz:

“Mientras con el premio de “Honor” se pretendía elevar la categoría de la poesía vasca en sí, con el destinado a los poemas se intentaba encauzar la inspiración de nuestros poetas hacia el pueblo, para hacerle sentir, mediante la belleza poética, la emoción de los hechos legendarios o históricos de la patria vasca. Y así ha resultado “Len Euzkotarra” (Jakakortarenarena), en el que el joven poeta, recurriendo a los resortes de folklore vasco, se ha imaginado la vida del euskaldun primitivo (...). Si tras las dos finalidades indicadas no se hubiera propuesto Euskaltzaleak desenterrar la poesía popular, su empeño hubiera sido manco, imperfecto. He aquí por qué estableció otros cuatro premios para las mejores colecciones de poesías populares. El éxito ha sido, también, rotundo. Han llegado casi al millar las estrofas populares presentadas (...). De los cuatro coleccionistas premiados, tres son también sacerdotes” (“Una página renacentista (El clero euskaldun y la poesía vasca)”, Euzkadi, 1932-VIII-13).

Azken Eusko Olerti Egunean (Lekeitio, 1936) Aitzolek eta Euskaltzaleak-eko antolatzaileek hiru sail eta hiru sari mota bereizi zituzten: bata ohorezkoa, olerkientzat, zilarrezko haritz-abarraz sarizatua; bigarrena, epikarentzat; hirugarrena herri-olerki sortarentzat (herriak erabiliak nahiz bertso-berriak). Poema

epikoa da, noski, garrantzitsuena, 500ptaz ordaindua, gainera. Hauxe dio Euskaltzaleak-ek sinaturiko deialdi-orriak:

“Epika deritzan ariko poema bat. Gaia, naiz edestizkoa, naiz alegiazkoa; edo-ta eusko seme ospetsu baten egintzak eta yoan etorriak. Gai ori zenbat eta erriarentzako ezagunago ta deigarriago, obe. Erri xecaren berezko edermena ta elerti-sena geiagotu-asmoz yarria baita sail au. Beraz, poema orrek erritar-antzean taiutua bear du, naiz bertsolariena baiño yantzixeago izan; ta, berok oi duten craz, abesgarria, kantagarria. Ez bedi izan luzeegia; baiña bai, abestuz, ogei bat miñutu bete alakoa”. (Eta sari-sail guztien bukaeran, azpimarratuta, eta honek olerki edo lirikarako balio du, “Aditzeko errez ez dan olerkaririk ez da saritua izango”).

Aitzolek herriaren bizitza poemetan jaso zedila nahi zuten: “Prestar a nuestro idioma el encanto del arte y de la poesía, crear veneros de belleza indígena tallandola con los rasgos vigorosos del euskera en versos y poemas; immortalizar en composiciones poéticas la vida actual de nuestro pueblo, sus ansias, sus aspiraciones, sus inquietudes y tristezas, es cooperar de la manera más eficaz al renacimiento del patrimonio de Euzkadi” (“El movimiento flamenquista y la poesía (“Día de la poesía en honor de Iparagirre”)), Euzkadi, 1933-V-21). Horrela herriak bere hizkuntza maiteko omen du. Herri-poetengandik datoz gainera poeta landuak (ibid.). Horregatik guztiagatik eman zioten Orixeri *Euskaldunak* poema egiteko mandatua, antolatua eta are ordaindua izan bide zena.

Eusko Olerti Egunen bidez poesiaren maila jaso zuten, euskal literatura eta artea duinduz (El Día, 1932-VIII-4), ia musika eta pinturarekin parekatzeraino (“¿Existe una cultura vasca?”, El Día, 1932-VII-8). Emaitza bikainak lortu ziren: olerkari multzo bat sortarazi zuten Olerti Egun horiek, benetako artistak eta poeta izena merezi dutenak (Euzkadi, 1935-V-22). Hain zuzen, poetak eta olerti egunetan parte hartu zutenak nagusi dira “Aitzolenen Belaunaldia” deritzonean: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Loramendi, P. Etxeberría, Zaitegi, Otamendi, Lekuona anaiak, Tapia-Perurena, Iakakortarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Ametzaga, Barrenso, Iraizoz, Monzon, Aurre-Apráiz. Badira beste idazle batzuk ere: Irazusta, Eizagirre, Ibiñagabeitia, Markiegi anaiak, Larrakoetxea, Manterola, Otxolua, Arruza, Ibartutxi, Oñatibia, Uzturre, N. Etxaniz, G. Jauregi...Aipatu poeten arteko batzuk ospatuak izan ziren garai hartan, baita orduan oraindik bizi ziren zaharragoak eta aspaldiko idazle zaharrak ere (Iturriaga...).

Aitzolek euskarak literaturarik ez zuelako edo landugabea zelako topikoa —Unamunok-eta indartua— deuseztu nahi zuten eta horregatik Eusko Olerti Eguneko olerki saritua gaztelerazko itzulpenaz agertu ohi zen, eta hori euskal olertia kanpoan ere balioets zezaten nahita egin zuten (“Propaganda literaria”, Euzkadi, 1931-IV-I).

Bertsolaritza bultzatzen

Aitzolek bere kazetalanen bidez bertsolaritzak dituen balioak ezagutarazi nahi izan zituen: haren iritziz, bertsolariak eta haien bertsoak euskal historiaren lekuko eta eraikitzaile dira, karlistatekoak adibidez. Bertsolaria kronista da (Euzkadi, 1935-IX-29). Horregatik haien bertsoak bildu beharra dago (“El bertsolari (Su significación histórica y social)”, Euzkadi, 1930-IV-5). Eta hau esan eta egin zuen Aitzolek bertsoak bil eta argitaratzean, geroztik Auspoak-eta jarraitu zuten bidea irekiz.

Aitzolek bertsolari ezagun eta ezezagun, zaharrago edo gazteago batzuen berri eman edo ezagutarazi zituen. Berbarako, 1802ko bertso-gudua (“Una famosa contienda del 1802 (El Día del Bertsolari)”, Euzkadi, 1935-I-12); Zapirain, zeinen bertsoek kristautasuna adierazten baitute (Euzkadi, 1934-XI-29); “Zakarra” (El Día, 1936-I-17); Matxin lapurtarra eta bere izpiritu abertzalea I. Mundu Gerran (Euzkadi, 1936-I-24).

Euskal Bestetako bertsolaritzaren eta Lore Jokoetako bertsolaritzaren arteko diferentziak aztertu zituen (“Concursos de bertsolaris”, Euzkadi, 1931-I-7). Eta bertsolariak eta herri poetak elkarrengandik bereizi (Euzkadi, 1935-IX-29)

Eta, batez ere, garaiko bertsolarien ospea eta maila jaso nahi zuen, bertsolari txapelketen bidez, Bertsolari Guduak edo Egunak antolatuz aretoetan (honetan J. Zubimendik-eta lagundu zioten). Bertsolari Egunen propaganda egiterakoan, zertako antolatu ziren azaltzen du: bertso-guduen tradizioari jarraituz, bertsolariak bultzatzeko eta duintzeko, euskara galdu ahala bertsolaritza ere galduz baitoa (“Una nueva institución (Cantores del pueblo)”, Euzkadi, 1935-I-10). Aski ezagunak dira txapelketen emaitzak: 1935ean, Donostiako Kursaal-en, Basarri txapeldun; 1936an, Victoria Eugenia, Txirrita txapeldun, eta Uztapide bigarren. *Bertsolari-Guduak 1935-1936* liburuan biltzen dira, Aitzolen hitzaurrearekin (Euskaltzaleak, Donostia, 1936; ik. Aitzolen hitzaurrea in *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 3. lib., *Literaturaren inguruan*, 105-114).

Ja 1930ean bertsolari gazteak bultzatzeko elkarte bat sortu nahi duela aditzera ematen du (“¿Desaparecerá el bertsolari? (Una inquietud...)”, Euzkadi, 1930-V-6). Aitzolen arabera, bertsolaritza eraberritzen ari da, bertsolariak jakintsuagoak eta landuagoak dira (Euzkadi, 1931-I-10). P. M. Otaño goraiatzten du behin eta berriz (El Día, 1931-I-17), eredugarritzat hartuz, bertsolari ez ezik herri-poeta izan zelako. Gainera, haren liburuaren hitzaurrea egin zuen (*Alkar*, Donostia, 1930; in *Obras Completas--Idazlan Guztiak*, 3, *Literaturaren Inguruan*; ik. ere “Una dinastía de bertsolaris (A T. de Hernandezorena, el enamorado del bertsolari euskaldun)”, Euzkadi, 1935-I-19). Mendiage ere gogoko du Aitzolek, honen bertsoak bildu baitzituen argitaratzeko asmoz (“¿Qué es el bertsolari?”, Euzkadi, 1935-I-20). Ez, ordea, Iparragirre, tradizioa hautsi eta kantatu

arrotzak ekarri zituelako (Euzkadi, 1934-XII-11). Bertsolaritzaren gora jasotze honetan badirudi Aitzolek M. Lekuonaren eragina izan zezakeela.

Kritikari eta eragile antzertian

Aitzolek bere irizpideak zituen euskal teatroari buruz ere eta, gainera, literatur-kritikari izan zen, alde batetik, eta eragile bestetik. Haren iritziz, antzertiak bere tokia du euskal pizkundean (Euzkadi, 1933-III-19). Jenero zailena da jendea irabazteko ("El arte dramático en el renacimiento vasco", El Día, 1931-XII-20). Antzertiaren bidez, poesiarenez bezala, euskaldunek bere historiako parte baten emozioa sentitzen dute ("Teatro patriótico", El Día, 1933-III-19). Antzertia, herrien bizitzaren agerpen eta, batez ere, kultura, abertzaletasun, bertute eta are fedearen eskola da ("Hacia el resurgir del teatro nacional (I Día del Teatro Euskaldun)", Euzkadi, 1934-III-10).

Kanpoko ereduak ditu gogoan: txekiar teatroa ("El despertar nacional y el teatro checo", Euzkadi, 1934-III-27); Nizako herri-teatroaren berpizkundea, langue d'oc hizkuntzarenarekin batera ("En Niza renace la lengua del Oc (El teatro popular)", Euzkadi, 1935-XI-26). Estonia, Euskal Herria baino herri txikiagoa eta pobregoa baina antzerkilan anitz bildu duena, itzulpenak barne ("Por el teatro nacional euskaldun (Hoy, el II Eusko Antzerti Eguna)", El Día, 1935-IV-28).

Zuberoako pastoralak euskal teatro berezitatat jo eta ezagutarazten lagundu zuen. Pastorala herri-teatro jatorra eta balio artistikoduna da, zinemaren garaian ("Antziñako euskal-teatro Zuberoan (Datorren igandean pastoralak ditugu)", Euzkadi, 1936-IV-18; ik ere Euzkadi, 1936-IV-19; El Día, IV-21). Badirudi gero eta gehiago balioetsi zuela pastorala, hasieran gai arrotz eta izpiritu exotikoagatik kritikatu bazuen ere (Euzkadi, 1934-III-10). Bestalde, pastoralen antzespenez datu ugari ezagutarazten ditu ("Carlomagno y su victoria en Euzkadi (?) (Palpitaciones del teatro medieval)", Euzkadi, 1936-V-1).

Literatur kritikari gisa Aitzolen jokaera prestua izan zen; argi ta garbi mintzatu zen, behintzat. Harentzat obra onena *Eun Dukat* da, Lekuona anaiena; psikologikoki euskalduna, gainera ("Teatro euskeldun", Euzkadi, 1935-III-14). Hona hemen beste antzerki batzuen kritikak: *Gogo-oiñazeak*, Tene Muxikarena ("Por el teatro nacional euskaldun (Gogo-oiñazeak)", Euzkadi, 1935-V-9); *Seme ondatzallea*, Felix Markiegirena (Euzkadi, 1936-IV-9); *Garó usaia*, K. Olarrarena (El Día, 1936-V-15). Euskal teatroari buruzko iritzia, labur adieraziaz, han-hor-hemen sakabanatuta aurki daitezke haren klazetalanetan: adibidez, Euskal-Iztundearen lanaz eta Elizegi anderearen *Garbiñe* antzerkiaz (Euzkadi, 1935-XII-26). Estilo kontuetan zuzentzaile ere izan zen (*Etxe-Aldaketa*, Euzkadi, 1934-V-15).

Aitzol eragilea izan zen teatroan ere. Antzerkilaria ugariren premia ikusi zuen (“El teatro euskeldun y patriótico”, Euzkadi, 1932-XII-25). Horregatik lehenik antzerkilarian lehiaketak (500 pta) eta gero antzestaldean lehiaketak antolatatu zituzten Aitzol eta Euskaltzaleak-ek, hainbat taldek batzoki eta Euskaltzale Bazkunako tokietan parte hartuz, eta gero finala Eusko Antzerti Egunean ospatuz (1934tik aurrera maiatzaren lehen igandean). Antzerkilaria xumeagoen lehiaketak ere eratu zituzten: bakarriketa, haur-jolas eta lantxoak (75 ptako saria).

Gainera, antzerki sorta bat argitaratu zuen Euskaltzaleak-ek formato es-tandarrean. Garaiko teatro-aldizkari garrantzitsuena *Antzerti* zen, Labaienek zuzendua, antzerkiak argitaratzen zituen, “Izarra” liburu bildumatik sortua, hots, G. Mujikak argitaratutako obren bildumatik (Euzkadi, 1932-XII-25). *Antzerti* hasi eta bi urtera Euskaltzaleak-en sartu zen (Euzkadi, 1934-III-10). Halaber, *Saski-Naski* aldizkaria atera zuten.

Teatro lirikoak ere bultzatu zuten, opera batzuen berremaldiak nahiz opera berrien sortzea, maila apalagokoak izan arren (*Maitena, Anboto*). Musika, dantza eta kulturarekin loturiko antzekizunak goraiatu zituen Aitzolek, esaterako Oldargi eta M. Sotarenak (“Latido de un pueblo a través del arte”, Euzkadi, 1930-IX-3). Orobat Alzaga, Labaien, Lizardiren lana (“El arte dramático en el renacimiento vasco”, El Día, 1931-XII-20). Baita teatro abertzalearen bidean eginiko urratsak: *Txanton Piperrri* (“Teatro patriótico”, El Día, 1933-III-19), *Libe* (“Resurgimiento del teatro nacional (Estreno de “Libe”)”, El Día, 1934-III-6). Aitzol eta Euskaltzaleak-en beste ekintza batzuk teatrogile zaharrei eginiko omenaldiak izan ziren: Alzagari, esaterako, Euskaltzaleak-ek antolatua (El Día, 1931-XII-20).

Teatroaz landa, eleberri eta kontalariez ere jardun zuen Aitzolen lumak. Anabitarte eta haren *Donostiaz*, esaterako (“Donostia”. El novelista euskeldun”, El Día, 1934-III). Edo Kanpion (Euzkadi, 1935-VI-19), Tx. Agirre, Urruzuno (Euzkadi, 1931-III-13) eta beste. Euskal arima ikertu nahi izan duten frantses eleberrigileak ahanzi gabe (Loti, F. Jammes, Lichtenberger), horiek Lhanderen eleberrietan baitute eredu bikaina (Euzkadi, 1935-VII-9 eta 11).

Literatura eta kazetaritzaz

Badu zeresanik Aitzolek kazetaritza eta literaturaren arteko loturez. Harentzat kazetaritza, euskeraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskola izan da. Adibidez, *Argia* asterokoak kazetaritza eta literatura elkartu eta giroa sortu zuen literatur aldizkariak (*Euskal-Esnalea*) elikarazteko eta are Euskaltzaleak taldea bera sortzeko (“Argia-Luz (Escuela de euskerismo)”, El Día, 1932-IV-26).

Euskal literaturgile franko kazetari izan baitira, Aitzolentzat poesia ez da alferreko denbora galtzea; aitzitik, gizon landuentzat idazten da, eta kazetaritzaren eta lanaren osagarria da, bere aberriagatik lanean ari denaren ordainsaria, honetan Lauaxeta eredugarri izanik, *Arrats Beraneko* aberri eta gizarte kutsuko olerkiek erakusten dutenez (“Poeta, entre luchas y crisis (¿Perder el tiempo?)”, *El Día*, 1936-VI-16).

Kazetaritzaren bidez (*Euzkadi, El Día*) euskal literatura bultzatu nahi zuten, herri-poesiaren joera lagunduz (“La poesía popular y el alma de la raza”, *Euzkadi*, 1932-VIII-24). Aipatu egunkari, astekari eta aldizkarietan garaiko euskal idazleen berri ematen da eta Aitzolek berak hainbat eta hainbat ezaugarazi zituen: Lauaxeta, Orixe, Lizardi eta Labaien horien artean.

Euskal literaturak kazetaritzarekin lotura estua izan du beti, literaturako kontuak eta literaturlanak (ipuinak, poesiak) egunkari eta aldizkarietan agertarazi baitira (*Eskualduna, Euzkadi, El Día, Eguna ...*), eta bide honi eutsi beharko litzaioke, gure iritziz.

Aitzolen arabera, euskara prestatu beharra dago kazetaritzarako, “kazetaritza delako literaturarik eragingarriena, frutukorra euskara sendotzeko. Euskal egunerokoa litzateke euskararen eustaga, katedra eragingarriena eta hedabide dinamikoena” (“La expansión vasca en el Norte (“Elgar”-“Aintzina”)”, *Euzkadi*, 1935-I-16). Euskarazko kazetaritzaren eredugarritzat Iparraldeko *Aintzina* jartzen du, *Eskualerrizale* deiturikoen kazeta, bertan euskara ohorezko tokietan agertzen baitzen, editorial nahiz kultura-, ekonomia-, gizarte-, politikagai nagusietan (ibid.).

Literatur-euskara

Aitzolek ongi zekien arazo nagusietarik bat euskara egokia erabiltzean zetzala. Haren iritziz, poesian ere herri-euskara erabili behar zen, nahiz garbitua: “Si la poesía tiene alguna misión, esa es la de provocar el sentimiento del pueblo y la de hacer crujir las fibras del sentimiento racial. Sólo lo lograrán, sin embargo, utilizando el euzkera del pueblo, aun cuando purificado; pero con la lozanía y la frescura con que el pueblo lo usa” (*Euzkadi*, 1935-V-22).

Euskara egokiaren kontu hau kazetariak jarria zuten jada, herri-euskaratik hurbilekoa eta denek ulertzeko modukoa eta behar baitzuten, eta aldi berean landua. Kirikiñoren irtenbidea, adibidez, *Euzkadi* egunerokoan, bi euskara modu ezberdin erabiltzea izan zen: bata, aranatarra, idazle abertzaleen human zebilena baina jendearen ahotik urrun; eta bestea, jende arruntaren ahotik hurrekoa, *Abarrak* liburuan erabilia. Bigarren bide honek arrakasta izan zuen; besteak, ez. Helburua euskaraz irakurtzera bultzatzea bazen, garai hartako euskara aranatar eta garbizaleak, orohar, hori lortu zuenik ez dugu uste. Altuberren kritikek ere hori adierazten dute, eta ildo beretik Aitzolonek, ikusi dugunez.

Aitzol euskararen batasunaren aldekoa izan zen, Lizardi eta Jautarkol bezala. J. Garatek hitzaldi batean agertutako joerari, hots, euskalkien aniztasuna zela eta euskal kulturaren adierazpide gisa gaztelera erabiltzekoari, honela erantzuten dio: “Batzuek, itsu-itsuan, bultzatu egiten dute aniztasun hau. Hauen jo-kaera Unamunorena baino kaltegarriagoa da. Euskara ezin izango da bizi literatur- eta irakaskuntz-batasunik gabe. Besterik sinestea, denbora alferrik galtzea da” (“¿Existe una cultura vasca?”, El Día, 1932-VII-8). VI Uda-Ikastaroetan Lizardik proposamenak egin zituen idazleek batasun literarioaren alde egiteko; batasun grafikoa ia jadesia zela-eta, batasun fonetikoari premia larrikoa zeritzon Aitzolek, Jautarkolek bezala.

Aitzol eta Euskaltzaleak-ek literatur batasunaren alde egin zuten, teorian bederen, Euskaltzaindiarekin bat etorritz, eta honen bidetik, hau da, garai hartan Azkuek bultzaturiko *Gipuzkera Oso*tuaren bidetik (Yakintza, III, 473); El Día, 1936-VI-28; ik. ere Euzkadi, 1935-XII-26). Aitzolek Azkue, pizkundearen figura erraldoiak, euskara trebatzeko hiztegitintza, literatura, kazetaritza eta beste arlo askotan eginiko lana goraiatzeko du, Azkue aita-semeen omenez Euskaltzaleak-ek antolatutako omenaldia kari (“El coloso del renacimiento euskaldun (Resurrección María de Azkue)”, El Día, 1936-VI-28).

Pizkundera arte eta beste kultur arlo batzuetan

Aitzolek euskal arteak nondik nora jo behar duen jakitera ematen du, gaingiroki. Haren arabera, euskal artea euskal arimatik sortzen da (“¿Por dónde debe ir la pintura?”, El Día, 1935-IX-4). Artea eta folklorea lotuta daudela-eta, errito eta eske-kanta, Olentzaro, Erregen eta beste festa-egunen inguruan, lotura horiek erakutsi nahi ditu (“Una tradición vasca de Año Viejo”, Euzkadi, 1935-I-9; “Los Reyes Magos a través de la poesía popular euskaldun”, El Día, 1936-I-5). Guztiz goresgarritzat jotzen du Azkueren *Euskal*erriaren *Yakintza*, erraldoi bakarti baten lana (El Día, 1935-IV-21) eta Euzko-Folklore bazkunarena (Barandiaranen zuzendaritzapean). Eta bazkun honek Mendizale Batzako gazteei kanta zahar, esaera, edesti, dantza eta gaineko jakingaien bilketan lagun diezaiekeela iradokitzen du, galderak nola egin, zer jaso etab. erakutsiz (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, El Día, 1936-V-6).

Aitzolen arabera, euskal artistek folkloregaiak artistikoki lantzen dituzte. Euskal musikarieren artean Aita Donostia eredu-garri da: ez du, xoil, biltzen, herriaren arima ikertzen eta herriaren arima artistikoa ere eraikitzen du (“Artista e investigador (La poesía y la música popular vasca y el niño)”, El Día, 1933-X-3). Pinturan Flores Kaperotxipik euskal arima jasotzen duen bezala. Arte moten arteko loturak, musika eta poesiaren artean, esaterako, aipatuak dira Aitzolen artikuluetan (“Escuela de arte patrio (El canto popular)”, Euzkadi, 1934-VI-1). Garai hartan musika eta pintura goi zebiltzan, jakina denez.

Euzkadiren kultur eraikuntza, hori zen, Aitzolen iritziz, abertzaletasunarentzat arazo larrienetarik bat (Euzkadi, 1936-III-20). Kultura gabe abertzaletasunak ezin du bururik jaso: “Para mí una nacionalidad sin cultura patria no es sino un cadáver” (El Día, 1933-IV-26). Poesia kultoan goi omen gabiltza, eta etnologian eta ikerkuntza historikoetan hobetu da (ibid.). Antropologian eta arkeologian hasi gara, Barandiaranen *Lehen euskal gizona* liburuak erakusten duenez (Euzkadi, 1934-VII-26). Pentsalariak eta filosofoak ere badira (“Nuevos rumbos de nuestro renacimiento (Influencia del pensamiento vasco en la cultura)”, El Día, 1934-III-28). Eta euskal soziologian hor dago Thalamas Labandibarren liburu, Zabaikundeak argitaratua (El Día, 1935-X-9). Nolanahi ere, euskal kulturaren euskal elizgizonek esku handia izan dute (“La cultura del clero vasco (Homenaje)”, Euzkadi, 1935-VIII-25).

Abertzaletasuna eta pizkundea

Aitzolek artikulu ugari idatzi zuen abertzaletasunaren inguruko gaiez, horietako asko guztiz ideologikoak; beste asko, hein batez ideologikoak izan arren, Euskal Herriko gertaeren aurrean abertzale eta kristau bidea erakutsi nahi dutenak dira. Beste artikulu batzuek, ordea, organizatzeraz bultz egin nahi dute.

1. Artikulu ideologikoak, solasgaien arabera, honela multzoka ditzakegu:

1.1. Karlismoa, nazionalismoa, nazionalismo ematua, errejionalismoa. Abertzaletasunaren aitzindariak: Xaho (El Día, 1933-VI-8); Kanpion, nazioaren idearena (“Los predecesores de la idea nacional (Precursor y Maestro)”, Euzkadi, 1935-VI-19); S. Arana, Maisua: haren biografia, Jemeinen arabera (“Monumento al Maestro”, Euzkadi, 1935-XII-20); Kanpion eta Arana batera dabiltza “vascoiberismoa” ez bultzatzean (“Sabino de Arana y Campión coinciden (Los nuevos cruzados del vascoiberismo)”, Euzkadi, 1935-XII-22); foruzaleatasunaren zuzia Aranak jaso zuen (“Filosofía del movimiento foral”, Euzkadi, 1936-V-16).

Euskal historiako gertaerak erakusle (“También antaño hubo alcaldes valientes (Los municipios vascos de ayer)”, Euzkadi, 1934-IX-13); Historiaren Akademiaren beharra (“Progresos de la historia vasca”, Euzkadi, 1934-XII-26); gure historia ezagutu beharra, eta horren zailtasuna (“La muerte de la independencia en la Euzkadi continental”, Euzkadi, 1935-VIII-4).

1.2. Abertzaletasun mota desberdinak. Aitzolek bikoteka sailkatzen ditu mota horiek, bitara errendatzen ditu, elkarren kontra jarriz: alde batetik herri zapalduen abertzaletasuna (“nacionalismo renacentista de los países oprimidos”), abertzaletasun zilegizkoa Eliza Katolikoaren dotrinaren arabera, edo abertzaletasun “kristaua”, eta, bestetik, abertzaletasun “esajeratua” (esaterako, Italiako faszismoa, Tirol eta esloveniarrak zapaltzen dituen edo Alemaniako abertzaletasun “paganoa”, atea (ik. Euzkadi, 1932-IX-11, 13, 18, 28 egune-

takoak). Edo bestela, alde batetik abertzaletasun “arrazoizkoa” eta, bestetik, internazionalismo “materialista” eta “ateoa”. Edo abertzaletasun “benetakoa” eta “sasi-abertzaletasuna” (Euzkadi, 1935-II-26). Komunistek nazionalitate zapalduekin erabili taktika ere salatzen du (“Euzkadi, 1933-IV-6); horiek ez dute euskara beren kazetetan zaintzen (El Día, 1936-VI-4).

1.3. Mundura begira, beste herrialdeetako nazio arazoak aztertzen dituzten artikulu asko idatzi zituen Aitzolek. Esaterako, euskaldunentzat eredugarri diren abertzaletasun, egintza eta figurei buruz: Irlanda eta bertako heroiak, hots, De Valera, Pearse... (Euzkadi, 1933-II-21; El Día, 1933-IV-33; El Día, 1935-IV-27). Bereziki Katalunia, bere nortasun politikoa ezagutua eta bere hizkuntza ofizial bihurtua izatea Euskal Herriak baino aurretik lortu duena (El Día, 1932-IX-15); herri honekiko elkar laguntasuna komenigarria da (Euzkadi, 1934-VI-22). Galiza (1936-VII-8). Filipinak, India, Serbia-Kroazia (Euzkadi, 1935-V-17, 21) eta hango heroiak. Gutxiengo nazionalak, euren eratze kongresu etab.: Eslovenia, Tirol, Baltikoko Estatuak; Home Rule Irlandakoa eta euskal estatutua... Abertzaletasunak Txinako nazionalisten alde jokatzeko du eta japoniar imperialismoaren eta komunismoaren aurka (El Día, 1935-XII-29).

Komunismoaren peko herrien abertzaletasuna: Ukraina, garaiko tragedia handiena omen denaz maiz idazten du 1933-1934-1935 urteetan. Aitzolek Ukrainako Tokari enbaxadorea, Donibanen zegoena, bere aberri esklabotuaren propagandari lotua eta euskaldunen laguna ezagutu baitzuen (Euzkadi, 1935-IX-20).

Euskal Herriko kontuez aritzean, munduko eta Estatuko beste herri zapalduak begira eta eredu bilaketan ziharduen, kanpotik zer gauza on ikas zitekeen aztertzen. Bereziki Kataluniari begira, herri honen eta besten pizkundeak Euskal Herrikoari lagunduko ziolakoan, eta elkartasun eske. Katalunia eta Galizako kontuez landa, Peninsulako beste eskualdeetarako ez da agertzen.

Euzkadi Nazioen Elkarte delako erakundean nola ikusten zuten eta gutxiengo eskubideez zenbait artikulu idatzi zituen. Horietako batzuek euskarak epaitegietan jasaiten duen tratua salatzen dute. “A un pueblo se le debe administrar justicia en su propia lengua” artikuluko azken hitzak hauek dira: “Ante la Sociedad de las Naciones, Euzkadi es una minoría racial y lingüística” (El Día, 1933-III-2). Europakoei onartzen zaiena zergatik ez Euzkadiri?, galdetzen du beste artikulu batean (“Lo que en la Europa culta se hace. A cada pueblo se le juzga en su lengua propia (Mirando a Ginebra)”, El Día, 1933-III-5 eta El Día, 1933-III-9). Euzkadi Nazionalitateen kongresuetan, 1930tik aitzina; Euzkadiren lagun bat: Ammende estoniarra (El Día, 1933-IV-23)...

Nazionalismoa eta internazionalismoa gai garrantzitsua da Aitzolentzat: Aita Vitoriaren arabera, nazionalitateen anaitasun armonikoa defendatzen du, zuzenbide naturalaren argitan. Honetan Aitzolek ideologo gisa eztabaidatzen du (Euzkadi, 1935-II-23). Munduan ezagutarazi behar da euskal abertzaletasuna, Pariseko erakusketa aprobetxatuz (Euzkadi, 1935-VI-7). Nazioarteko

gaiak Aita Vitoriaren arabera: gerra norberaren burua defendatzeko da bakarrik zilegi (El Día, 1935-IX-22; Euzkadi, 1935-X-11).

1.4. Euskal demokrazia politiko eta sozialaren inguruko artikulu-saila (Euzkadi, 1935-III-20, 23, 26, 28, 30, 31; 1935-IV-3, 5, 7, 10, 12, 16, 17, 20, 29); Larramendi eta demokrazia (El Día, 1935-VII-6, 9, 11). Artikulu hauek interesa sortarazi omen (El Día, 1935-VIII-18). Esan beharrik ez dago, Aitzolek —eta garaiko jeltzaleek— euskal kristau demokrazia dute xedetzat.

2. Euskal Herriko gertaerei atxikiagoak, jokabidea erakusten dutenak:

2.1. Euskal Herriaren batasuna eta euskal anaitasuna, bereziki Nafarroaren arazoa: Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko harremanak; iraganeko anai-arteko gerren ordean anaitasuna eta zorraren pagamendua (El Día, 1935-VI-9; Euzkadi, id.).

Iparraldearen Pizkundera: Zazpiak bat (El Día, 1932, IX-14). P. Lotiren idazlanetako Euskal Herriaren irudi geldoa; Iparraldeko pizkundera kultur mugimenduan nabari da (Blazi, Elissalde...). Eskualerrizaleak: lotura orokorra, abertzaletasuna, katolikotasuna, gizarte ekintza (Euzkadi, 1933-I-13). Aitzolek Eskualerrizaleak taldea goraiatzen du, haien idearioa eta jokabide zuhurra. Ibarregarainen jarrera agerian uzten du: haren “Eskualdun ona, bethi prantses on” Aitzolek “Eskualdun ona bethi eskualdun huts” bihurtzen du. Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoako historiak ere artikulu franko idatzi zuen (Euzkadi, 1934-VIII-7, 12; Euzkadi, 1935-VIII-24, 28; IX-6, 10, 13, 15, 20, 24, 27; X-20, 24). Herriaren arima piztuz joan ahala, euskara hiltzen ari omen da (Euzkadi, 1934-VIII-21). Artikulu hauetan Aitzol, Eizagirre eta bestek Iparraldean kultur ekintzetan parte hartzen dutela garbi ikusten da (ik. 1935eko irailkoak).

2.2. Komunismoaren aurka, abertzaletasuna. Katolikoak eta abertzaleak jende behartsu eta ezeukiari lagundu behar dio, ezinbestez, katoliko eta abertzale baldin bada (El Día, 1936-VI-21). Erljio-krisia: katolikotasunaren ahultzea eta komunismoaren indartzea gurean; honen kausak eta nola irabaz ihesi doazen langile gazteak, emakumeak, haurrak; komunisten pedagogia haurren arimaz jabetzeko (El Día, 1936-IV-4; artikulu honetan Aitzol nahikoa etsita agertzen da). Komunismoa edo faszismoa dilema gisa jartzea sinplekeria omen da, hirugarren indar bat ere badagoelako: abertzaletasuna, alegia.

Ezkerra eta abertzaletasuna. Sozialisten jokabidearen kritika: “sozial-fasizistak” (!) deitzen ditu, Estatuari eusten diotelako. Komunistak utopikoak eta sukursalistak dira, ez dira benetako abertzaleak. Euskal Herriko alderdi ezkertar batzuetan (EAE-ANV), ordea, abertzaletasuna ermetzen pozik ikusten du. Abertzaletasunaz —gai trszendentala berau— eztabaidatzera gonbidatzen du EAE-ANV (El Día, 1933-IV-22).

2.3. Estatutuaz —Lizarrakoaz nahiz 1936an onartzekoa zenaz— baditu artikulu batzuk. Euskara ez doa garapen politikoaren parean (ik. El Día, 1931-VII-14; El Día, 1936-V-29)

3. Azkenik, organizatzaera bultz egiten dutenak:

Gazteriarri antola eta era dadin —arlotu guztietan eta erakunde abertzaleen pean— dei egiten dio, hortik sortuko bailitzateke euskal herriaren elitea: “No debiera haber en el País Vasco un solo aspecto, ni matiz de actividad o afición juvenil, ni cultural ni deportiva, ni profesional, que no estuviera encauzado y controlado por una organización patriótica. Esta labor, además de su gran rendimiento proselitista, tiene la ventaja notable de ir interesando y formando en la misión directiva a una multitud de jóvenes que serán en el mañana la élite del pueblo euskeldun, los jefes de la patria” (“Juventud y organización”, Euzkadi, 1932-II-25). Honen eredia Kataluniako Palestra omen da, kataluniar gazteriarren katalaneratze osoaren aldeko lanean ari dena. Unibertsitate-ikasleak antolatu behar dira pizkunde giroa sustatzeko eta euskal unibertsitatearen alde egiteko. Palestrako gazte horiek kultura bidetik ari dira, obra klasikoak katalanera itzultzen etab. (El Día, 1932-VIII-8).

Emakumeek politikarekin duten ikustekoaz ere idatzi zituen artikulu batzuk, euskal emakumeak historian erakutsi duen jokoera abertzaleaz, esaterako (Euzkadi, 1935-VII-13, 16, 19). Hala ere, Aitzoleren arabera, emakumearen zeregina ez da politikagintza, abertzaletasunean, proselitismoan, gizarte-laguntzan lan egitea baizik. “Augusta Larralde” *Aintzinako* idazlea eta Atarratzeko Begiraleak aitzindari omen Iparraldeko euskal emakume abertzaleen ekintza eta antolaketan (Euzkadi, 1935-IX-24).

Euskal gizarte kristau eta justiziazkoa

El Día gizarte gaiak erabiltzen eta kanpaina egiten hasi zen 1931ren bukaeraruntz, kazetako sail horiek gero eta interes handiagoa sortarazten zutela (El Día, 1931-7-19). Aitzolek gizarte-kontzientzia zorrotza erakusten du eta langile gazteen edo gazteria langilearen egoeraren kezka bizia, bazter utziak baitaude (El Día, 1932-I-24). Langileen arazoengatik inguruko artikuluak nagusi dira, baina euskal gizarteko gainerako sektoreenak ez ditu ahazten.

JOCVA eta euskal sindikalismoaren (hau da, SOV edo STV-ELAren) premia aldarrikatzen du, gazteak batez ere izanik gogoan. Sozialismoaren aurka agertzen da, kontzientzia nazionala desegiten duelako. Euskal sindikalismoaren bideen artean greba aintzat hartzen du, baina ekonomiari minik egin gabe (El Día, 1932-XII-4). Euskal sindikalismoak tradizioan oinarritu behar luke (El Día, 1932-XII-18). Aitzolek solidarioen gidari moduan dihardu sindikatoan intelektualen egitekoa zein den iradokiz, edo profesio liberaletako propagandisten beharra ohartaraziz (El Día, 1933-I-25, 26). STV-ren II Kongresua (El Día, 1933-V-5). Acción Católica STVri laguntzen ari da itsas gizonak kristautzen (El Día, 1935-V-7). “Papelera”ko langileak STVn sartzen dira (El Día, 1935-V-23). STV-ELA elkartasunean eredugarri da, baina lagundu egin behar zaio,

dirua emanez gutxienez (“Eusko Langille” y “Euzkadi Roja” (¿Qué hace usted para detener el comunismo?”), *El Día*, 1936-VI-21). Azken artikulua honetako zatitxo bat ezarriko dugu, Aitzolen abertzaletasuna langilezaletasunari lotua zela erakusteko:

“La triple fuerza que ha de salvarnos es la del obrerismo, el patriotismo y el catolicismo (...). El que no seas obrerista, ni el que te tengan por tal, nada te importa. ¡Ah! pero eres excelente patriota vasco. Un cristiano sincero.

Mira, amigo: te equivocas. Si no eres decidido propulsor de la masa obrera, de la multitud de los desheredados, de los que bregan en trabajos más duros que el tuyo, no presumas ni de católico, ni de patriota”.

Euskal Herrian langileentzako Gizarte-Unibertsitatea (Universidad Social Obrera Vasca) martxan jarri beharko litzateke, Ingalterra, Alemania eta Belgikan bezala (*El Día*, 1933-II-19). Kapitalismoaren kritika, S. Aranagan oinarrituz (Euzkadi, 1934-XII-21). Erlijioaren krisia aitortzen du, izkutatu gabe (*El Día*, 1935-V-10); horregatik langileak, arrantzaleak, laguntzarik ezaz...komunistengana ihesi doaz.

Nekazarien sindikazioaren premia, haien egoera duintzeko; Euzko Nekazarien Batzak 3000tik gora lagun, 5000tik gora ordaintzaile (Euzkadi, 1935-II-28). Arrantzakeen sindikazio premiaz (“El arrantzale y la miseria. ¿Hacia el comunismo?”, *El Día*, 1931-XII-6; *El Día*, 1935-V-10).

Inmigrazioaz eta behinolako emigrazioaz —Euskal Herriko arazo garrantzitsuak— artikulua saila idatzi zuen (ik., adib., Euzkadi, 1934-XI-16, 18). Ikasle euskaldun eta katolikoek elkarteak bultzatzeaz ere zenbait.

Eliza Euskal Herrian. Erlijio-ordena batzuen lan eredugarria euskal kulturari: Lekarozko kaputxinoak (A. Donostia, Olazarán de Estella, A. Alzo). Elizgizonen kezken lekuko: erlijio-ordeen jazarpena (*El Día*, 1931-VIII-14). Familiaren krisia eta erremedioa: errosarioa (Euzkadi, 1934-X-13).

Aitzolen pentsabidean euskaldun eta katolikoa izatea batera doaz (gogora bedi garai hartan abertzaletasun akonfesionalaren aldekoak ere bazeudela, EAE-ANV adibidez). Eliza katolikoa eta misioen ingurukoak: katolikoa ekimen-gizakia da; misioak eta abertzaletasuna ez doaz elkarren kontra (Euzkadi, 1935-I-4). Misiolari ospetsuen mendeurrenak; Lavigerie (*El Día*, 1935-X-20). Eliza katolikoak herri zapalduen alde lan egin duela, eta gizarte arazoetan ere bai, erakutsi nahi du, etxekoak eta kanpoko adibideak ekarriz (Eslovenia). Eliza katolikoak herri-hizkuntzak babesten ditu (Kroazian, Eslovenian).

Katolikotasunaren eta euskaltzaletasunaren aldeko burrukan irakaskuntza pribatuaren aldeko “gurutzada” aipagarria da, batez ere 1932tik aurrera; *El Día* kanpainari ekingo omen dio (*El Día*, 1932-X-4). Euskal Gurasoen Alkartasuna, gurasoak bere seme-alaben eskubideen alde (Euzkadi, 1936-IV-29).

Andremariaren ingurukoak: Aita Lizarralderen idazlanak (El Día, 1935-VIII-8). Sortzez Garbia eta Etxepare; Gipuzkoan eta Euskal Herrian Andre-maria zer den (Euzkadi, 1935-XII-8; El Día, id.). Kristau izpiritua Euskal Herrian (El Día, 1936-V-10).

Aitzolen kazetagitza eta idazkera

Aitzolek egunkari abertzale eta katolikoetan idatzi zuen batez ere. Gainera, prentsa katolikoa egin nahi zuen (*El Día*), kazetari katoliko eta euzkotar gisa jardunez, eta ikuspegi bikoitz hau aplikatzen du beti. Kazeta horien irakurleak, gehienak abertzaleak eta katolikoak izango ziren; eta orduan, orain baino gehiago, bakoitzak bere egunkaria irakurri ohi zuen.

Aitzolek, gehienetan, edo gertaerak printzipio eta ideia nagusi batzuen araberaren epaitzen ditu, mezua garbi adieraziz, nola jokatu behar den erakutsi nahiz; edo bestela ideioek zabaldu nahi ditu eguneko gertaera nahiz ospakizun, egintza edo ekintzak aipatuz, propagandista legez jardunez, eta, batzuetan eztabaidatuz ere bai, polemista gisa (kasu honetan gaiak orokorragoak dira: nazionalismoa edo abertzaletasuna, euskal historia, kristau izpiritua Euskal Herrian...). Tonua serioa da beti, eta batzuetan garratz samarra.

Artikulu ideolojikoetan batez ere, franko aldiz, pasaizu batetik abiatzen da eta gai bat baino gehiagoz mintzaten, egilearen aipatu ikuspegi ideologiko eta bikoitza ardatz dela, haren inguruan lotzen baititu gaiok: folklorea, kirola, euskara, bertsolaritza, gai aberkoiak...ikuspegi orokor baina aldi berean abertzalea emanez. Adibidez, Emakume Abertzale Batza eta eske-bertsoak (El Día, 1935-XII-24); edo pelota, euskara eta abar. Eta beti Euzkadiren batasunera joz, espresuki dioenez (El Día, 1936-VI-13).

Polemikoa da batzuetan, Barojarekin, esaterako, honen antiklerikalismoa-gatik (“Los clericales y Don Pío”, El Día, 1932-IX-8). Gai sozialetan ere bai, adibidez solidarioen alde eta sozialisten edo komunisten aurka (El Día, 1932-XII-4).

Aitzolen artikuluek egitura oso garbia dute: izenburu labur eta indartsua, mezua adierazten duena —eta horretan maisua zen— + azpiizenburua, zertaz den zehatzago azaltzen duena —hau ere garrantzitsua—. Artikuluaren hasieran printzipioak edo gertaerak nahiz egitateak azaltzen ditu. Artikuluaren gorpuztean printzipioen aplikazioa egiten du, edo bestela gertaeren analisisa. Bukacarran epaia, oso argi emana (“behar da”), edo mezua garbi adierazita, askotan proposamen berri eta zehatzak eginez.

Hil-ondokoak eta kronika antzekoak ere idatzi zituen. Hil-ondokoak askotan poeta eta idazle zenduei buruzkoak dira, adib. Lizardi (El Día, 1933-III-14), Loramendi (El Día, 1933-III-25), Uranga (Euzkadi, 1934-XII-29), Matxin (Euzkadi, 1935-IV-26).

Kazetari-idaztanceraz den bezainbatean, esaldi laburrak eta irakurleari el-karrizketa estiloan zuzentzen daki. Pertsonaia eta paisaien deskripzioak maite ditu; irudiak, metaforak —pentsamenduaren muina era ederrean adierazten du-tenak—. Adibidez, Siberiako hartz zuria bere besoak zabaltzen bitimak besar-katzeko, hots, komunistek katolikoei buruz duten zabaltasuna irudikatzen (El Día, 1936-VI-7). Eta konparazioak, euskal tradiziokoak, noski. Batzuetan, are ixurpen lirikoak.

Aitzolen estiloa atsegina da, arina. Esaterako, askotan bertsolarien eta poe-ten pasaizu eta estrofa tartekatuz lortzen du atsegintasun eta bizkortasun hori. Aitzol eta Orixe ez bide zetozen bat kazeta artikuluak idazteko moldeaz, La-baienen arabera, eta eztabaida sutsuak izan omen zituzten. Orixerenak astunak, pisuak ziren (gainera Aitzolek zakarrontzira bota zituen Orixeren batzuk eta honek ez bide zion barkatu). Dena dela, eta Aitzolenak artikulu oso ontzat di-tudan arren, kontutan har bedi, idazteko moduak ere aldatu egiten direla eta Aitzolen estiloa ere, konposizio estilo klasikoa dela, gero eta garrantzi handia-goko kontuak egituratzeko modua, eta egun kazetari estiloa idazketa estilo “eraikitzaile” honezaz bestelakoa dela, kontagaien garrantziaren arabera gara-zen dena eta bizkorragoa.

Ideiak azaldu edo defendatzerakoan iturriak eta autoritateak (enziklikak, garaiko liburuak, batzuetan kanpoko egunkariak; zuzenbide eta demokrazia kontuetan Aita Vitoria) franko erabiltzen ditu, nahiz gehienetan katolikoak eta joera berekoak. Esparru honetan jakintza nahiko handia erakusten du. Autori-tateak katolikoak dira, *El Díakoek* prentsa katolikoak egin nahi baitzuten. Egi-tate eta egien kausak bilatzen ditu, eta egiak aitortzeko beldurrik ez du. Azal-penak ematen ditu. Mamitsua da, edukina duena, informazioa eta batez ere iritzia. Iritzia ematerakoan kalifikatibo finko eta eztabaidaezinak, eta sailkapen tipikoak egiten ditu, esan dugunez, pentsamentua gehiegi eskematizatuz, nahiz gauzak azaltzen dakien. Beste askotan ospakizun eta gertaeren propaganda da.

Hala ere, Aitzolen artikuluak informazio iturri interesgarriak dira askotan, nahiz dela euskal literatura eta idazleez, adierazi dugunez (ik., adib., El Día, 1933-VI-16 edo Euzkadi, 1934-XI-29), nahiz dela gizarte gaiez (ik., adib., STVren afiliazio-kopuruaz El Día, 1932-XI-13). Egilearen beraren bizitza eza-gutzeko ere iturri oparoa dira: esate baterako, hark irakurritako liburu, bidaia, harremanen eta abarren berri ugari bil daiteke.

Euskara pixka bat sartzen du gaztelerazko artikuluetan, izenburua euskaraz jarriz edo estrofa batzuk edo zerbait. Horrek esan nahi du irakurle askok uler-zen zutela euskara.

Eta euskaraz?

Eusko Olerkiak liburuetako hitzaurreak alde bat utzita, eta orobat misioei buruzkoak (ik. *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 4. lib.), Aitzolen euskarazko artikuluak gutxi dira: dozena bat, gutxi gora behera. Ia guztiak azken urtee-takoak, batez ere 1936koak. Hau Aitzolek, gero eta gehiago, hizkuntzarekiko

zuen kezka adierazgarri da. Zein orrialde eta tokitan jarriak dauden —hau garrantzitsua baita kazetaritzan— zehatzago miatu beharko litzateke. Tamalez, *Obras Completas-Idazlan Guztiak* delako edizioan euskarazko artikulua hutesz beterik datoz.

Gaiei dagokionez, gehienak euskararekin lotuak dira: euskara alderdi berruan (“Abertzaleak eta euskera”, El Día, 1935-VI-16); euskara hauteskunde garaian (“Euskera Erriko-Etxetara”, El Día, 1936-IV-3). Erdal izenburudun baina euskaraz idatzitako artikulua batean *El Día*n euskarak duen erabileraz dihardu: euskaraz irakurle gutxi dagoela, irakurleek ez dutela euskarazko artikulurik eskatzen, horregatik ezin dela gehiago idatz, irakurle gehienak ez direla benetako euskaltzaleak, horregatik ito zela Lizardiren proiektua —irakurleen laguntza faltaz— eta errealitatea garratza dela (“¿El Día” euskaldun?”, El Día, 1936-VI-23). Beste artikulua batean pelota txapelketako berriak euskaraz idazteak kirolzale batzuk euskaltzaletu dituela dio; gazteria jolascan euskotartu eta euskaltzaletu daitekeela, pelota jokoa onuragarria dela Euzkadirentzat, Elisalde adiskide min eta pelotazaleari entzun zionez (“Euzkadiko Pelota Txapelketa”, El Día, 1936-VI-13).

Euskal literaturazko gehienak herri-literaturaz ari dira (kantu, bertso eta pastoral): “Zakarra” bertsolaria (El Día, 1936-I-17); Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei baserri-izenak, herri-jakintza gaiak eta kantuak biltzeko deia (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, gutun bati erantzunez egina, El Día, 1936-V-6); pastorala (“Antziñako euskel teatroa Zuberoan (Datorren igandean pastoralak ditugu)”, Euzkadi, 1936-IV-18). Garaiko olerkari eta idazle gehienak euskara ulerkaitza garrakzi gaitzesten duen artikulua ospetsua ere hor dago (“Antziñako oitura zarren piztutzea”, El Día, 1933-II-5). Euskaltzaletasun, eusko gogo eta arrozkeriaz ari da beste batean, VII. Euskal Astea kari (“Euskel Astea, bidezkoa ote da?”, El Día, 1933-X-1)

Politika eta erlijio-gaiez ere badu pare bat. Estatutoari buruzkoan, aurki onartuko den ustea adierazten du, Estatutoak denok uztartuko gaituela eta: “Gu nagusi, gurea errua. Zenbat eta eskubide geiago gureganatu, areago lanera, zintzotasunera eta garbitasunera lotuagoak” (“Lanera lotu gaiten”, El Día, 1936-V-29). Eliz ospakizunak direla eta idatziak: Erramu Igandea (El Día, 1935-IV-14); S. Inazio (“Loyola”tar Iñaki Deuna ta euskera”, El Día, 1935-VII-31); Luistarren erromes eta ohiturak (“Kristau-euskeldun gaztedi kementsua”, El Día, 1930-X-14).

Idaztankerari dagokionez, erderazko artikuluetan bezala esaldi laburrak, el-karrizketa estiloa eta ahozkotik hurreko euskara darabil, zerbait apainduta. Konparazioak euskal izadi eta tradizioetik hartuak dira. Eta bere esanak esaera zaharrez zirtatzen ditu. Jendearen ahoko euskararen hurrekoan mintzatu zitzaion irakurleari, zentzu handiz jokatzuz (honetan behintzat ez zen arantarra). Artikulu gutxitxo idatzi zituen arren, apur horiek ongi eginak dira: tori, erasburuztat, “Euskera erriko-etxetara” aipatua (El Día, 1936-IV-3).

AITZOL ETA EUSKALTZALEAK

Tolosan 1996-X-17an

Lurdes Otaegi Imaz

Gaurko egunez Aitzol zenaren jaioteguna gogoratzeko bildu garelarik, haren lan eta emaitzen bitarteko izan zen *euskaltzaleak* elkartearen inguruko azalpen batzuk eman nahi nizkizueke, sarritan aipatu arren, irudi lainotsu xamarrak estaltzen baititu elkarte honen zeregin, ezaugarriak eta bilakaera. Aitzolen aktibitate zabalean kultur arloari soilik lotuko natzaio ni, beraz, kultur eragile gisa, edo oraindik zehazkiago, literatur eragile gisa eginiko lan handiari.

Ondoren azaltzen saiatuko naizenez, 1927-1930 bitartean Jose Maria Agirre "Lizardi" k diseinatu zituen *euskaltzaleaken* egitura, antolaketa eta aktibitateak. 1930etik aurrera, aldiz, Errepublikaren etorrerarekin batean, Aitzolek hartu zuen taldearen gidaritzza eta apurka-apurka eratuz eta finkatuz joan zen, Pizkundearen azpiegitura kultural eta literarioaren oinarria bilakatu arte.

Olerkariak plazaratzea, ezagutzera ematea eta liburuak argitaratzen eta saltzen laguntzea izan zen *euskaltzaleaken* asmo nagusienetako bat, zalantzarik gabe. Halere, *euskaltzaleaken* aktibitateen ingurura bildu ziren idazleak lehendik ere ezagunak ziren, garaiko aldizkari eta egunkarien bidez ematen zituzten euren lanak ezagutzera, ezizenez sinatuak. Halere zalantza gabekoa da *euskaltzaleak* taldeak eskaini zien azpiegiturak elkartu zituela, eta beren artean aski ezberdinak baziren ere, denak xede euskaltzale, kulturzale eta literario anbi-zietsuetara bideratzea lortu zela.

Euskaltzaleak taldearen proiektio horretan bi norabide eta bi epe ere defini daitezke garbi: 1927an Arrasaten sortu zenetik 1930 artekoa, Lizardik egituratu eta gidatu zuen epea dugu lehenengo hau. Bigarren epea, ezagunena, 1930tik 1936 artekoa da, eta Aitzol izan zuen eragile eta gidari. Lizardiren garaia sortze eta eratze epea izan zen, Aitzolena finkatzeko garaia.

Lehen epeari buruz Lizardiren eta Aitzolen artikuluen bidez ezagutzen ditugu zenbait zehaztasun. Aitzolek, garai horretan Bartzelonan ziharduen elizagintariak misiolaritza arloan emaniko zereginetan, baina ongi ezagutzen zituen hemengo aktibitate guztiak, Lizardi adiskidearen bidez. Honela kontatzen ditu Aitzolek Lizardi hil ondoko artikulua batean taldearen sorrera eta lanei buruzko gorabeherak:

“El mes de octubre de 1928 inició (Lizardi) una campaña de prensa en euskera y en erdera sobre acción euskerísta, que explanó en diez artículos. Surgió la polémica. Y Lizardi concibió la actividad al servicio de esta iniciativa. Hizo estudios detallados sobre el nuevo diario, editó un número espécimen; escribió artículos y conferencias para crear ambiente; proyectó presupuestos; ideó una encuesta; recabó colaboraciones y, por fin, en el Cursillo de Verano de la Sociedad de Estudios Vascos pronunció dos conferencias sobre el tema.() Convertido ya en cerebro y alma del movimiento renacentista organizó las recordadas fiestas literarias euskaldunes de Andoain en honor a Laramendi y fue uno de los más eficaces colaboradores del Día de la Poesía Vasca de Rentería, así como del Niño Euskeldun de Segura, del del Euskera en Ber-gara...” (“El poeta J.M. Agirre “Xabier Lizardi” 1933, Yakintza)

Lizardik *Euskaltzaleak* emaniko egitura eta xedeak azaltzen dituzten zen-bait idatzi eta artikulu baditugu lekukotzat, baina horietan adierazgarrienak Zumaia eta Arrasateko bilereterako prestatu zituen hitzaldietan aurki ditzakegu. 1930ko bi hitzaldi horietan Lizardik aurreko urteetan eginiko lanak jaso eta ebaluatu ondoren, Zumaiakoan xede eta egitura berriak zedarritu zizkion. Gutxi gora-behera honela labur daiteke Lizardik esaten zuena: Euskaltzaleak 1927an sortu zela Arrasaten “lagunarte euskaltzale bat”en gisan, eta handik aurrera talde hori hazitzea eta ugaltzea izan zela asmo nagusia.

Lizardiren hitzetan esateko, Euskaltzaleak taldeko partaideei ez zaie “eguneroko xentimoa eskaintzea” besterik eskatzen, urteko kuota 3,6 pezetakoa izaten zen eta, horrenbestez, ez zitzaion euskaltzaleari ideario jakin bati atxikitzea eskatzen. Euskaltzalea izatea zen baldintza bakarra, Lizardik “abertzaletasun pittinena” esanez formulatzen zuen aportazio xumea besterik ez zen behar. Gainerakoan, bakoitzak bere ideia izan zezakeen:

“Zer egin nai degu “Euskaltzaleak” bazkun hontaz?... Lagun-arte ugaria egin nai denduke. Euskera ta euskotasunaren aldeko eguneko xentimoa dalarik sari laburrena, bazkide asko ta asko bildu nai genituzke. Euskal-Erria osoan gure egoen itzala zabaldu. Biotz oneko euskaldun oro, bildu gure lantegian, zein politikakoak diren begiratu gabe(...) Guk ez, guk eztiogu inori osoko gizakia izatea eskatzen. Guretzako naikoa da abertzaletasun pittiniena, eguneko xentimoz neurtu ditekenez abertzaletasun pixka aski degu. “(Zumaiako itzaldia. 1930-III-9, *Kazetari-Lanak*”, Erein 1988, 252 orr.)

Ordurarte antolatutako ekintzak euskararen aldeko aktibitateak ziren bati-pat: haurrak eta helduak euskaltzaletzera bideraturiko jaialdiak eta ospakizunak, baina kultur arloko bestelako ekintzetara ere heldu nahi izan zuen elkar-teak Lizardiren proiektuari jarraituz: Egunkaria sortu nahi zuen, argitalpenak egitea eta ezagutzera ematea liburu ferien bidez, egunkarietako kritika eta iruzkinen bidez. Orokorrean euskal kulturaren adierazpen modu guztiei erraztasunak ematea zuen helburu: liburu feriak, jaialdi euskaltzaleak eta literarioak, antzerki saioak, irratisaioak...

Antolaketari zegokionez, berriz, Lizardik euskal idazleak elkarrekin harremanetan jartzea izan zuen asmo nagusietako bat. Elkar ezagutzeko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko bideak urratzea. *Euskaltzaleak*en bidez euren izen eta ezizenen zerrenda lortu eta Euskal Idazle Batza eratzea lortu zuen: la “Federación de Escritores Euskéricos” eta aldika-aldika bilduarazten zituen, Egunkariaren proiekturako kolaborazioak lortzeko. Sortze lanak bipiltzeko asmoz sortu ziren sariketa edo jaialdiak lehenengo Andoainen Larramendiren omenez, eta aurreraxeago, Jautarkolen omenezko 1930eko Lehen Olerti Egun ospetsua.

Santo Tomás egun batez, Donostiako Parte Zaharreko “cenáculo” batean, hots, elkarte gastronomiko-kultural horietako batean sortu zen asmo hori, ziu-rrenik, Donostiako giro kulturalako pintore, arkitektu, eskultore eta idazle batzuek osatzen zuten GU taldekoak bildu ohi ziren elkarte gastronomiko-kultural batetik ez urruti. Gudaurreko Donostiako Parte Zaharreko elkarteak kultur el-kargune garrantzitsuak izan ziren, bistan denez.

Eta, nire ustez, arira dator honetaz ere hitz egitea, izan ere sarritan ger-tatzen da gudaurreko garai honi buruzko idea xelege xamarrek topatzea: bat-zuek idealizazio eta nostalgia handiz begiratzen diote, gerraurreko garaiei epi-ka gisako batek kutsaturiko ikusmira dute; beste batzuek aldiz, beren abarkei begira bizi izandako jeltzide mordo bat izan balira bezala gaitzetsiko dituzte aisa. Baina bi ikuspegiak dira gezurrezko eta kaltegarri. Garai hartako espe-rientziatik guri ongi etorriko litzaizkigukeen irakatsiak alferrik galtzeko arris-kutan jartzen gaituzte eta.

Lizardi, Labaien, Aitzol, Lauaxeta, Aita Estefania, Orixe Zaitegi eta beste asko hezur-mamizko pertsonak izan ziren, beren garaiko arazoei eta munduari begiak irekita begiratzen zietenak, eta garaiko korronte ideologiko eta artisti-koen berri bazutenak. Joera handia nabaritzen dut gerraurrekoak patroï baten neurrira ebakiak zirela pentsatzekoa: “euskaldun fededun eta kitto” lemaren az-piko paradigmán sartzen dira sarri, erreparu handirik gabe.

Baina, izatez, oso ezberdinak ziren elkarren artean eta joera ezberdinak zituzten hainbat puntutan: formazioz alde handiak zeuden, norberaren talantea ezberdina zen, zaletasun literarioak ere bai, hautatzen zituzten eredu lingusi-tikoak ezberdinak ziren... Garaiko giro politikoarekin zuten harreman hestuak ere irudi topiko zenbait sortu izan ditu, baina, denak abertzale ez baziren ere, gehienak nazio baten kultura propioa berreskuratzen ari zirelako kontzientziáz ziharduten.

Halere, debate irekian ziharduten bestelako idearioak eta joerak zeuzkan jendearekin. Froga gisa, ikus Aitzoloren 1934ko artikuluan olerkarietako batzuk Olasagasti pintorearekin eta Cabanas-Erauskinekin izandako eztabaiden berri ematen digunean:

“Va ya para los cuatro años. Era el mismo Donosti “zarra”. El día ferial de Santo Tomás. Día memorable por tanta iniciativa renacentista. Departían los

poetas euskaldunes “Lizardi”, “Jauregi” y “Orixe” y el comediógrafo Labayen, con los pintores Kabanas-Erauskin y Olasagasti. Dialogaban sobre arte. Estos últimos, más apegados al “universalismo”, al ecumenismo del arte. Aquellos con una concepción más racial, más particularista de la emoción artística. Sostenían los liberales que el verdadero arte es el que nace de los véneros inagotables del alma popular, de tan enorme poder creativo, que sin su colaboración apenas se haya creado una obra grandiosa por ningún poeta ni escritor. Y surgían las citas de Homero, Virgilio., Petrarca, Dante, Milton, Shakespeare...en cuyas obras iban citando los elementos folklóricos indiscutibles con los cuales edificaron sus ingentes producciones. La mejor manera por tanto, de cooperar a la cultura artística universal es hacerlo a través del alma popular, en cuyas entrañas nos movemos y nos hemos amamantado. No lo rechazaban del todo nuestros pintores, () pero estaban sometidos a una fuerte corriente universalista, que en más que en ningún género en las artes plástica y pictórica había influido la postguerra. No más fronteras, y menos en la del arte...” (AITZOL:Idazlan guztiak. VI. alea, Los pintores en el Renacimiento Vasco. 1934, 10-11 orr.)

Euskaltzaleaken bilakaerarekin jarraituz, Aitzolek 1930ean zuzendaritza hartu zueneko garairaino joango gara. Lizardiren eskutik talde antolatu bat heredatu zuela esan daiteke bi mila inguruko bazkide multzo zabala zuena eta herri guztietara hedatzen zen egitura eraikia zuena Lizardiren gestio garaietatik. Idazleek ere *Euskaltzaleaken* bidez elkarrekiko harremanak eginak zituzten, esana dugunez...

Bestalde, bazkide sistemaren bidez, gutxienezko eskuartekoak ere bazituzten beren aktibitatearako eta irakurlego potentzialaren zerrenda ere egina zuten.

Aitzolek *Euskaltzaleaken* sareari etekin berria atera ahal izan zion 1930etik aurrera, Primo de Riveraren diktadura amaitua zelarik, erakundeen diru-laguntzak jasotzen hasi zirelako eta Errepublika garaian argitaratzen hasi ziren egunkari eta aldizkari berrien bidez promozionatu ahal izan zituelako taldearen aktibitateak. Zehazkiago hitz eginez gero, esango genuke Aitzolek *El Día* egunkaria bilakatu zuela *Euskaltzaleaken* aktibitateen bozgoragailu ozena eta 1933an ateratzen hasi zen *Yakintza* aldizkaria izan zela taldearen emaitza kulturalen hedabide nagusia.

Aitzolek 1930ko lehen artikuluetan isladatzen duen giroak zerbait berria du Lizardiren artikuluen aldean, zentsura politikoak Lizardi jartzen zion bozala kenduta hitz egiten du Aitzolek, honen aipamenak askoz esplizitoagoak dira, aktibitateak askeagoak eta ugariagoak.

Argitaratu zuen lehen artikuluetako bat “Optimismo y actividad” izenekoak izenburuan bertan ematen du ezagutzera zein zen giroa, aski adierazgarria gertatzen da: lanerako amorru biziz dabil bera eta bere inguruan dabilzanei eragiten die bizkor. Horieta batak oso ezagunak dira, aipatuak ditugu da-goeneko, beste batak, aldiz, ez dute urteen ahanzturaren muga gainditu: Al-

tzeta, Aberri, Mendi-Lauta, Atarrene, Otarra eta Udalamendi, Luzear eta Ayanbe, eta hauekin batera aipatzen du Aitzolek Lizardiren izena “juntamente con Lizardi que modela su alma y dirige su acción”.

Urte horietan idazleak ugaritu, gogo-berotu eta laguntzeko ahaleginean jarraitzen zuten euskaltzaleek, eta horretarako antolatzen ziren jaialdi, sariketa, liburu-feria eta abarretan ahalegintzen ziren, literaturak berpizkunde kulturaleetan indar berezia zuela sinesten baitzuten. Berez, Aitzolek lehen urte hauetan garatu zuen aktibitateak lehendik Lizardik zedarrituriko proiektuaren espuru berean ihardun zuten.

Izan ere, Lizardik eta Aitzolek egoeraren ikuspegi objektibo bera edo oso antzekoa baitzuten: beren ustez, modernitateak eta progresoak hil ala biziko auzia jarria zion euskal kulturari eta nortasunari, eta kinka larri horretatik ateratzeko aurrera egin beharra zegoen. Nola? Euskal kulturari hazteko baliabideak eta tresnak emanez, eta bereziki literaturgileei erraztasunak emanez, zeren, beren ustez, literaturak indar berezia baitzuen jendearengan eragina izateko eta hizkuntzaren berpizkundera motorraren funtzioa izateko.

Helburu horretarako Lizardi eta Aitzolek osatu zituzten proiektuek plano kulturalan ziharduten biek baina ezberdintasunak nabari daitezke bien artean: Lizardik ongi ezagutzen zuen literaturaren bilakaerari buruzko ikuspuntu autonomoagoa eduki zuen beti. Sinesten zuen literaturak kultur banguardía izateko funtzioa bete zezakeela, giro kulturala bizkortu eta berpizteko funtzioa izan zezakeela, baina nolabaiteko indar hori ez zela berehalakoan sumatzeko modukoa izango pentsatzen zuen, beharrezkoa izango zela legamia jartzea noizbait ogia altxatzeko, hazia erein behar zela aurrenik noizbait landarea erne eta zuhaitz bihurtzeko.

Baina Lizardiren ustez berpizkunde kulturalak belaunaldiak behar zituen, eta estrategiarik arrakastatsuenak ere ez zezakeen berezko bilakaera hori aldatu. Lizardirentzat literaturak bere bideak ditu eta ezin dira bihurriak diren bide-zihorrak zuzen bihurtu...

Aitzolek aldiz, literaturak eta hizkuntz berpizkundeek elkarrekin omen duten harreman hestuan sinesten du; bere ustez, beharrezkoa da euskal literatura bizkortzea eta herriarengan eragina izango duen literatura egitea, herriaren bizitza kulturala indartu dedin. Aitzolek Probenzako Mistralen efektua bilatzen du, edo oraindik hobea litzatekeena, Finlandian Lonrot poetak bere herriaren arima eta nortasun kulturala bilbatuz idatziriko “Kalebala” obraren eragin handia. Hango fenomeno nazional hura euskal herrian errepikatzea nahi zuen. Euskal Herrian ere posible zela sinesten zuen literatur obra hark Finlandian pizturiko kontzientzia nazionala indartzeko fenomenoak gertatzea.

Lizardik belaunaldiak beharko zirela ikusten zuen, Aitzolek aldiz, berehalako fruituak lor zitezkeela epe laburrean.

1930ko artikuluetan jadanik guztiz mamiturik zegoen literaturaren zereginari buruz Aitzolek zuen ideia, eta zein-nolako tokia ematen zion literaturari kultur proiektu orokorrean. Urte horietan Europako hizkuntza minoritarioen bilakaerari buruz ezagutzen zenak (Beljika, Txekia, Finlandia, Irlanda...) eta berak euskal kasuaren inguruan eginiko hausnarketek eraman zuten *Euskaltzaleaken* bidez gauzatzzen saiatu zen proiektua moldatzera, euskal herriko bizkude kulturala bizkortzeko.

Proiektu heldua eta zoritua zen 1930ean artikulua argitaratzen hasi zenerako *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan.

Halere, 1930-36 bitarteko denboran zehar Aitzolen ikuspuntua aldatuz joan zen pixkanaka, batez ere garaiko irakurle eta ikusleek, hots, garaiko euskaldunek berak eragin nahi zuen mugimenduari emaniko erantzun epelaz ohartu ahala. Liburu salmentak motelak omen ziren, euskal egunkaria atera ahal izateko harpidetza zabaltzeko saioek porrot egiten zuten, erakundeak ere gero eta mukerrako agertzen omen ziren dirulaguntzak ematerakoan, euskal eskoletako matrikulazioa oso geldoa...

Aitzolek 1933rarteko epean argi eta garbi promozionatu zituen literatura arloan Europako literaturaren bidetik jotzen zuten olerkari berrizaleen lanak. Abangoardiako lana egiten zutenen alde, bideak urratzen ziharduten Lizardi, Loramendi eta Lauaxetaren lanen promozio sutsua egin zuen, *Euskaltzaleaken* sustatze gaitasun guztiaz baliatuz: kritikak eta iruzkinak eginarazi eta argitaratu, liburuen propaganda egin, hitzaldiak eta abar antolatu, sari literarioak eman... Apostu garbia egin zuen literaturaren berrikuntzaren alde, euskal literatura aberastu egiten zutela sinesten zuen, nahiz eta aldi berean gure "Kalebala" egingo zuen euskal idazlea bilatzen ziharduen eta Orixe zeukan horretarako aukeratua. Euskal herriaren kantua sortzeko gaitasuna zeukan idazle doioia zela sinesten zuen...

Laister nabaritu zuen Aitzolek idazle berrizaleen lanek ez zutela irakurlegoan eta euskaldunen artean berak nahi eta espero bezalako erantzunik sortzen; bere ustez, arazoa idazlan horien maila jasoegian zegoen, berrizaleen hizkera zail eta bihurria zen zabalkunde motel horren errudun nagusia.

"Neroni naiz erruduna" esanez adierazi zuen Aitzolek 1933an joera berrizaleekiko etsia. Berak apoiatu izan zuen bide abangoardiazaleari okerra irizten hasi zen, bere ustez, idazle berriak "liluratu eta desbideratu" egiten zituen, eta irakurlegoari errazago gertatuko zitzaizkiokeen litertatur fruiturik gabe geratzen omen zen euskal literatura.

Aitzolek dioenez, idazleek "euskal estetika" sortu behar dute tradizioan oinarriturik, bere ustez, euskal herriak bai baitu "edergaietan bere kera berezia" eta horixe da euskal estetika berriaren oinarritzat hartu behar dutena artistek.

Herri olerkigintzaren ekarriari oharturik eginiko Aitzolen proposamen honek arrazoi hirukoitza izan zuela pentsa genezake. Alde batetik, euskal kultu-

raren erroen berreskurapenean saiatzen ari ziren mende hasierako euskal kulturaren sortzaileen kezka berak ikutua zegoen Aitzol, Barandiaran, Lekuona, Kizkitza etabar bezala. Kasu honetan Aitzolek euskal estetika berezkoa eza-gutzera emateaz gain, sortzaile berriei hartan inspiratzeko proposamena egiten zien.

Izan ere, eta hau izan daiteke bigarren arrazoa, olerkigintza herrikoia- ren iturrietatik edateko joera indarrean zebilen garai hartan Europa aldean. Espainian nahiz Frantzian sinbolismoaren eta surrealismoaren garaikide izan zen beste joera hau ere, herri olerkigintzaren iruditeria eta zenbait teknika berreskuratu eta berrerabiltzeko ezaugarri berezia zuen joera literarioa, alegia.

Aitzolen kasuan European garaiko literatur joera izatearen arrazoiari euskal nortasun bereziaren taxua berreskuratzeko gogoia ere erantsiko zitzaion beraz. Baina bada oraindik beste arrazoirik Aitzolek joera hau hobesteko, arrazoi pragmatikoa, alegia: olerkigintza herrikoia- ren ekarriaz baliatzen den mogimendu honek sorturiko literatura ulterterrezagoa zaio irakurle arruntari.

“Antziñako oituren piztutzea” izeneko artikuluan olerkigintza mota herri- koi honek zuen adieraztasuna eta erakargarritasuna azpimarratu zituen, zalantzarik gabe, bere ustez, entzulegoa adiago egongo zen tankera honetako lite- ratura jaso eta estimatzeko.

Beraz, Aitzolek herri literaturaren estimazio bolada honetaz baliatu nahi zuen helburu pragmatikoak lortzeko, arrazoi praktikoak zituen olerkari “yakin- tsu”en taxua eta joerak alde batera uzteko.

Nolanahi ere, herri literaturara joaz gainditu nahi izan zuen Aitzolek bere ustez garaiko idazle-irakurleek bizi zuen kontraesana edo krisia. Baina, urteak aurrera egin ahala krisi horrek konponbide txarra zuela nabaritzu joan zen.

Irakurleak erakartzeko ahaleginaren porrota nabarmena zen bere ustez, antolatzen ziren aktibitateetan izaten zen partaidetza gero eta motelagoa zen, euskal irakaskuntza hautatzen zuten gurasoak gutxiegi ikastolak irekita mantendu ahal izateko, egunkarietako euskal artikulua- k hautatzen zituzten irakurleak bakanak...

1935-36 aldera giro politiko abertzalea guztiz sukartsu eta iskanbilatsua bazen ere, Aitzoli iruditzen zitzaion eferbeszentzia horrek ez zuela isladapenik euskal bizitza kulturalcan, eta euskaraz eginiko produkzioak ez zuela nazioaren be- zpizkundean zegokion tokirik eskuratzen, erdaraz garatzen ari zela erabat...

Errealitateak zapuztu egiten zituen Aitzolen proiektuak. Gaurko begie- z ikusirik proportziorik ez da ikusten egoera guzti honetan: euskal gizarte euskaldunaren maila eta kontzientzia eskasa dugu alde batetik, edonoren gogorik beroena izozteko moduko paisaia zen, Lizardik berak aitortu zuenez; baina bes- tetik, *Euskaltzaleak* garaturiko aktibitateak bere horretan eman zitza- keen

fruituei buruz eta eragin zezakeen mogimenduari buruz Aitzolek prospektiba anbiziotsuegiak zituela ere nabaritzen da.

Errealitate hori ezagutuz, Aitzolek azken urteetan lagun artean nahiz publikoki adierazi zuen ikuspegi etsituaren errudun nagusiak bere proiektuaren gehiegizko anbizioa eta mekanizismoa dira. Berak espero zituen epe laburre-rako fruitu haiek ez ziren inondik ageri, berehalako efikazioa horrek huts egin zion, nahiz eta berez euskal pizkunde mogimendu kulturala bera edo bere emaitza konkretuetako batzuk balioarriak izan, geroak frogatu duenez. Zeren euskal literaturaren eta kulturaren perspektiban ikusirik, Aitzolen Pizkunde garaia euskal literaturaren urrezko aroa izan zen, Euskaltzatzek taldearen inguruan bildu zen belaunaldi literarioa gure lirikaren gailurra.

Dudarik ez izan bihotz osoz aritzen zen Aitzol harritu egingo lukeela Lizardi, Lauaxeta eta Orixereren liburuak euskal literaturaren pespektiban merezi izan duten balorazioak eta estimazio handiak. Gudaondorengo agorraldiaren paisaian balio berezia hartu zutelako alde batetik, baina baita idazle eta kritikoei haiei lanen berezko kalitatearen aitoparen ondorio. Ikusiko luke neurri handi batean Aitzolek berak eragin eta bultzatu zuen Pizkunde mugimenduaren errealizazioei buruz azken urteetan hartu zuen etsimendu handia ez dela oraingo balorazioetan isladatzen.

Beharbada giltza zerean dago, Aitzolek gehiegi espero zuela kultur mogimendu horretatik, bete ezin zuen funtzioa erantsi nahi ziola literaturari euskal gizartearen eta kulturaren bilakaeran, eta honi inposatu nahi izan zion erritmoa ez zezakeela literatura bezalako aktibitate artistiko independientek onartu.

Aitzolen proiektua efikaziaren irizpideari lotuegi zegoen, berehalako eragina hartzen zuen helburutzat, baina literatura eta kultur mogimenduak ez izaki hain erraz gidatzekoak nonbait... Lizardik esan zion moduan, ezinezkoa zen literaturgile guztiak orkestra bateko interpreteak bezala "txotx" baten agindutara makurraraztea. Literatura artea zen eta idazleei beren "eskuera" behartzeko eskatzea ezinezkoa. Idazle asko, saio asko eta belaunaldiak behar ziren, antza, fruituak ikusi ahal izateko.

Literaturaren bilakabideari eta funtzioari buruzko usteetan urrunegi joana bazen ere, Aitzol eragile aparta izan zen, gainerakoan sakabanatuegia, indargabetuegia eta noragabetuegia hazten ari zen euskal literaturaren bide erratuiei zentzu bat eman zien; betebeharrak anbiziotsua eman zien eta batez ere, ahal izan zuen neurrian, azpiegitura literarioa eskaini zien, gero berak espero ez zuen aldetik jo bazuten ere.

Izan ere, Aitzolek bilatzen eta lortzen baitzituen inork baino trebeago *Euskaltzaleak*en aktibitateetarako laguntzak patrika publiko nahiz pribatuetan, berak antolatzen baitzituen liburu eta aldizkariak argitaratzeko harpidetzak eta banaketa sistemak, liburu feriak eta argitalpenetarako diruak... Berak bihurtu zuen *El Día Euskaltzaleak*en aktibitateen bozeramaile eta hedatzaile...

(10) ANGULO LAGUNA, D.: *Derecho Privado de Vizcaya*. Hijos de Reus, Madrid, 1903, 39. orr.

(11) LAFOURCADE, M.: aip. lib., 165. orr.: “En tanto los países de Occidente se vieron profundamente influenciados por la civilización del Bajo Imperio romano, por su concepción de la soberanía del Estado, de un poder supremo, absoluto, indivisible e independiente, de estructuras jerarquizadas, centralizadas y uniformes, de individuos protegidos, es cierto, pero aislados, amparados y sometidos al influjo del Poder, de la familia sometida a la autoridad del *pater familias*, de la superioridad del hombre sobre la mujer —calificada como *imbecilitas sexus*— de la propiedad individualista y absoluta... los vascos conservaron su sistema jurídico secular, hondamente comunitario, igualitario y democrático”.

(12) “...beti ere gure arbasoek, zuzenbide erromatarren eragina euskal pentsamenduan ekitzea izan zuten helburu. Herri-Batzarrak elizpeetan egiten baziren ere, elcizgizonek herri-batzarretan zein Batzar Nagusietan sartzea debekatuta zuten, Gipuzkoan eta Bizkaian behintzat. Berdin gertatzen zen legegizonekin ere.

Debeku hauen arrazoia, apaiz eta legegizonek Zuzenbide erromatarraz kutsatuak zeudelako da, hau da, erromatar legediaz baliatzen ziralako. Eta euskaldunen ‘Batzarretan’ berriz, ohiturazko legeen arabera zuzentzen ziren”. LEKUONA, M.: “Eusko Institutikizunak”, *Euskaldunak. La Etnia Vasca I*. Etor, Donosti, 1978, 44. orr.

2. Propietate pribatua eta herri lurrak euskaldunen ondasunekiko harremanetan

Bigarrenik, euskaldunek ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak izan dituztela dioten arren, harreman hauek propietate pribatuarekin batera bizi izan direla azpimarratzen dutenen eredia berezi dezakegu. Honela, beraz, etxea eta lurgintzarako erabiltzen ziren soro eta baratza, propietate pribatuzkoak eta baso eta belardiak herri-lur bezala aurkeztuak dira. Florencio Idoatek Erronkariri buruz dioen bezala: "...en Roncal como en otras comunidades o valles, hay varios grados en cuanto a la propiedad del suelo, desde la común o colectiva, que cuaja en aquella fórmula general de 'todo para todos', hasta la particular o privada, siempre con algunas restricciones, si se aquilatan bien las cosas" (13).

Propietate pribatuaren sorrerari buruz ikuspuntu eta interpretazio ezberdinak badaude ere (14), batez ere informazio gutxi dagoelako (15), ikerlari hauek argi dute propietate pribatua antzinakoa (16) eta zalantza gabekoa dela. Beraien ustez, Erdi Aro Garaitik ezagutzen diren monastegiei egindako donazioak eta

(13) IDOATE, F.: *La Comunidad del Valle del Roncal*. Diputación foral de Navarra, Pamplona, 1977, 113. orr.

(14) Alfredo Floristan Samanes-ek Tuterako Erriberari buruz hitz egiterakoan zera dio: "Desde los primeros testimonios históricos se nos presentan, pues los campos o huertas en la etapa de la propiedad privada....¿Por qué etapas se llegó, si admitimos que siempre no fué así, a este dominio y aprovechamiento individuales?...a) Libre apropiación del suelo; b) redistribución periódica o usufructo en vida; y c) propiedad y aprovechamiento individual. En muchos municipios del Ebro y Aragón se conoce con el nombre de sotos a la parte del campo o huerta más cercana a los que en el s. XIX o XX se repartieron entre los vecinos mediante sorteo o se vendieron. ¿Quiere decir esto que en tiempos más o menos lejanos también fueron esas tierras propiedad comunal? No hemos topado con documentación que nos lo acredite. En algunos pueblos —Cortes, Arguedas— se conserva la tradición de que así fué en efecto. Por otra parte, el examen de los planos parcelarios del Catastro nos pone de manifiesto la igualdad en la forma y extensión de las parcelas de dichos sotos. ¿Cabe, pues, concluir que se pasó del mero usufructo de las suertes a su propiedad íntegra? Así nos lo parece". FLORISTAN SAMANES, A.: *La Rivera Tudelana de Navarra*. Diputación Foral de Navarra Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Institución "Príncipe de Viana" Instituto "Juan Sebastián Elcano", Zaragoza, 1951, 86. orr.

(15) "Las tierras amojonadas eran de libre disposición para su propietario, por esta razón son escasas las referencias a estas tierras de las ordenanzas. Por el contrario, está regulado con precisión el sistema de aprovechamiento de la tierra común". ARIZCUN CELA, A.: *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztan 1600-1841*. Gobierno de Navarra-Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana, 1988, 52. orr.

(16) "El hecho material de la roturación y siembra, acompañado del elemento constitutivo de inscripción en el Libro de Abolengo, suponía entrar en posesión de los bienes. Sin embargo, el transcurso del tiempo y las sucesivas inscripciones registrales en la mayor parte de los casos, han determinado un proceso de transformación de la posesión en dominio a través de la prescripción adquisitiva, lo que nunca ha sido obstaculizado por el Valle, quien desde los momentos históricos más remotos ha reconocido la existencia de propiedad privada, concepto que se ha ido ampliando, no sólo a las casas y huertos, sino también a las fincas roturadas y cultivadas dentro de los comunes". ALLI ARANGUREN, J.C.: *La Comunidad Del Valle De Roncal*. Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior, Pamplona, 1989, 221. orr.

testamentuen bitartez egindako ondasun iraunkorren eskuz aldatzeak, horren froga zalantza ezinak dira (17). Dena dela, eta donazioak inolako oztoporik gabe egin zitezkeela esaten bada ere, Florencio Idoate-ren pasarte hau kontutan hartzekoa da: “Sin embargo, hay que mantener ciertas reservas, dado que la norma y costumbre que vemos posteriormente en cuanto a la tierra, es que dentro de los términos de las villas, cualquiera podía rozar o roturar libremente, y transmitir los campos o predios a sus descendientes, después de inscribirlos en los llamados libros de Abolengo, que existen todavía” (18).

Gainera, donazio edo testamentuen bitartez egindako eskuz aldatzeak herriarren artean egitera behartuta zeudela adierazten da (19). Zentzu honetan, propietate pribatua aintzinakoa dela baieztatzen duten frogak azpimarratzen bada ere, frogak ezeztatzen duten informazio ukaezina onartzen da (20).

3. Propietate pribatuaren nagusigoa ondasunekiko harremanak arautzerakoan

Azkenik, inguruan izan dituen beste herrietan bezala, Euskal Herrian ere, nagusiki, morrontzan eta propietate pribatuan oinarritutako ondasunekiko gizarte harremanak ezagutu direla defendatzen dutenen erueda dugu. Fernando Garcia de Cortazarrek dioen legez: “Aunque pueda resultar simplificador ha-

(17) Florencio Idoatek adibidez, monastegiei egindako donazioak jartzen ditu propietate pribatuaren frogak bezala. Bere ustez, jauntxo, militar eta “melioren homes” delakoek donazioak inolako oztopo edo mugarik gabe egiteak, propietate pribatuaren frogak argi eta garbiak dira. Honela dio, Bidangotzeko palazio baten donazioaren inguruan: “El mismo Becerro contiene otra donación, consistente en un palacio con su raíz en Vidángoz, también sin fecha, pero del XI, desde luego, por todos los síntomas. Parece tratarse en ambos casos, de donaciones de bienes raíces, sin limitación alguna visible para transmitir la propiedad... Queda pues claro, al parecer, que los bienes «erribles» podían ser objeto de transmisión por donación, testamento u otro medio. Las donaciones a monasterios en estos valles pirenaicos corroboran lo que decimos”. IDOATE, F.: aip. lib. 114. orr.

(18) IDOATE, F.: aip. lib., 114. orr.

(19) ALLI, J.C.: aip. lib., 248. orr.: “Se limita la transmisión por donación o testamento: «... que si algún vecino del dicho valle... hiciere por via de donación o testamento dejar vecindad, como casas y heredadas, haz alguno que sea vecino fuera del dicho valle...»”.

(20) F. Idoate-k, propietate pribatua ezeztatzen duen pasarte hau eskaintzen duela ezin da ahantzi: “En el caso presente se utilizaron las mismas contra las pretensiones de un vecino de Uscarrés, que alegaba poseer una propiedad particular en el término de Pampillone, de Burgui. Esto parecía atentatorio contra la comunidad, obligada siempre a defender la integridad de su territorio. Sentado que cualquier roncalés podía rozar o labrar libremente en los términos de valle, asegura el procurador que «siempre y quando que se cese el dicho cultivo por tiempo de uno o dos años, puede cualquier otro vecino de dicho valle introducirse libremente en los tales terrenos a labrarlos y sembrarlos, sin estorbo ni embarazo de aquel o aquellos que los dejaron. y de esta suerte se ha vivido y gobernado en dicho valle». Por supuesto, nunca se había permitido la venta de terreno del común a forasteros, fuese o no para cultivo, porque entre otras razones, aumentarían excesivamente las roturas y sembrados, con perjuicio de las hierbas y aguas”. IDOATE, F.: aip. lib., 118. orr.

blar de la condición o situación general del campesino medieval vasco, no cabe duda de que ésta se aproximaba o identificaba a lo que en el feudalismo europeo se llamaba siervos de la gleba. Con esta denominación se quería indicar la condición de la servidumbre por la que se desenvolvían las relaciones entre el dueño de la tierra y el trabajador de la época. Su característica fundamental residía en el usufructo de un terreno, de cuya propiedad eminente era titular un señor, a cambio de la cual se satisfacía una renta” (21).

Hirugarren ikuspuntu honetan kokatzen ditudan ikerlariak honenbestez, ondasun iraukorrekiko harreman bereziak bizi izan direnarekiko guztiz aurkako jarrera agertaraziz, Euskal Herrian ohituraz, harreman feudalak eta giza mailak egon direla eta hau, ondasunekiko eskubide eta erabilera ezberdinean isladatu dela azpimarratzen dute (22). Zentzu honetan, argi adierazten dute Euskal Herrian ondasunekiko harreman bereziak egon direnari buruzko ideiak mito hutsak direla: “Que en el campo vasco predominaba tradicionalmente la pequeña propiedad es uno de tantos mitos con que durante mucho tiempo se ha escrito la historia del País Vasco. Conforme a esta concepción, la pequeña propiedad sería la base económica de una estructura social que convertiría al País en una comunidad sin graves diferencias, en la que la concordia y la colaboración eran los elementos en los que se fundamentaban las relaciones sociales” (23).

Ikerketa eta autore ezberdinak hiru eredu hauetan banatzea sinplifikazio bat izan daitekela onartuta ere, sailkapen honek gauza bat argi eta garbi adierazten digu: euskaldunek ondasunekiko izan ohi dituzten harremanak azaltze-

(21) GARCIA DE CORTAZAR, F. eta LORENZO ESPINOSA, J.M.: *Historia del País Vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1988, 57 orr.

(22) Ikuspuntu honen baitan ikerlari eta liburu hauek kontutan edukitzea nahitaezkoa da:

— ARANZADI, J.: *Milenarismo Vasco. Edad de oro, etnia y nativismo*. Taurus, Madrid, 1982.

— FERNANDEZ DE PINEDO, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850*. Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1974.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en la alta edad media*. Caja de Ahorros Vizcaína, Colección “temas vizcaínos”/ IX. urtea/105. zenbakia.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en el Siglo-XV, Aspectos Económicos y Sociales*. Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1966.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: ARIZAGA B., MARTINEZ OCHOA R. M. eta RIOS M. L.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1979.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: “Medievo y mundo urbano”, *Los Vascos a través de la Historia, Comportamientos, mentalidades y vida cotidiana*. Gipuzkoako Kutzaren Argitarapenak, Jose Luis Orella (Zuzendari eta Koordinatzailea), Donosti 1989.

— GARCIA DE CORTAZAR, J.A. eta ARIZAGA, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan I eta II*. Gaiak, Donostia, 1991.

— OTAZU Y LLANA DE, A.: *El igualitarismo Vasco: Mito o Realidad*. Editorial Txertoa, Donosti, 1986, (Bigarren Argitaldaria).

(23) GARCIA DE CORTAZAR, F. eta MONTERO, M.: *Diccionario de Historia del País Vasco A-H*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1983, 55. orr.

rakoan, dezadostasun nabarmenak agertzen direla; ikuspuntu kontrajarri eta batera ezinekin aurkitzen garela, alegia. Eta egoera honetan, ez dago zalantzarik, zaila dela Euskal Herrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanen berezitasunak behar bezala ezagutu eta aurrera pausorik ematea.

ESAERAK IKERKETARAKO MATERIAL BEZALA

Honela beraz, bizi izandako ondasunekiko gizarte harremanen ezagutza zehatzagoa izan asmoz, beste bide batzuk jorratzen hastea beharrezkoa dela iruditu zait, oinarri sendoagoa eskainiko didaten bideak, alegia.

Bide berri hoiek bilatzerakoan, aurkeztu ditudan hiru eredu ezberdin hautatu behar hainbat aintzakotzat hartu izan ez den iturri batetara jo dut; ahozko literaturara, hain zuzen ere. Ez dugu ahaztu behar, ahozko literatura guztia, hau da, esaerak, ipuinak, kantuak, bertsoak... gizarte baten iraganaren lekuko direla. Eta hauek, eskuragarriak eta aztergai dira. J.M. Barandiaran-ek dioen bezala: "El pueblo vasco, especialmente aquella parte cuyo espíritu ha influido apenas la literatura escrita, conserva todavía preciosos recuerdos de su antigua cultura, cuyo vehículo, a través del tiempo, es la tradición oral. A ésta, por lo tanto, conviene acudir en demanda de material de estudio" (24).

Ahozko euskal literatura hain aberatsa izanik (25), genero eta azpigenero ezberdinak hartu nezazkeen azterketa egiteko. Ikerketak dituen helburuetarako guztien azterketa egitea gehiegizkoa litzatekeela onartuz, esaeretan oinarritzea erabaki dut, izan ere, esaerak era erraz batean eskuratu eta neurtu baitaitezke.

Dena dela, ez naiz aho hizkeran Euskal Herrian bizi eta erabiltzen diren esaeren biltze lanetan hasi. Egin nezakeen lana bada ere, nahiago izan dut aurretiaz bilduta dauden eta, zentzu honetan, aztergai diren esaeretan oinarritu.

Honela bada, esaera bilduma ezberdinak aztertu ondoren (Ez dira asko euskal esaera bildumak. Hoiere artean, 2.011 esaera eskaintzen dituen Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza III* bilduma (26), L. Villasante-ren *Axular-en hiztegia* (27), 1.330 esaera baino gehiago dituen Joseba Gereñoren (28) bilduma,

(24) BARANDIARAN, J.M.: "Folklore Vasco. Necesidad de su estudio", *Obras Completas de Barandiaran*, V. Tomoa, Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 309. orr.

(25) Ikus LEKUONA, J.M.: "Literatura Oral Vasca", *Cultura Vasca II*. Erein, Donosti, 1978, 65. orr edo Euskaltzaindia: "Ahozko Euskal Literatura", *Euskararen Liburu Zuria*. Euskaltzaindia, Elkar, Bilbao, 1978, 167. orr.

(26) AZKUE, R.M.: *Euskal Herriaren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III. Proverbios, Modismos, Lenguaje Infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, 1989 (hirugarren argitarapena).

(27) VILLASANTE, L.: *Axular-en Hiztegia*, Oinati, 1973.

(28) GEREÑO, J., *Diccionario de Modismos, Esaeren Hiztegia*, Joseba Gereño argitaratzaile, Bilbo 1980.

Aek-k argitaratutako bilduma (29) eta oraindik aberatsagoa den Koldo Izagiren (30) esaera hiztegia aipatu ditzakegu (31), ikusgune soziologikotik oraindik ikertu gabe dagoen Justo Mokoroaren *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* lokuzioen bilduma aukeratu dut ondasunekiko harremanci buruzko gizarte burubideen azterketarako data-*corpus* bezala. Bilduma honetan oinarriztearen arrazoiak hiru izan dira, batez ere:

1. Alde batetik, Justo Mokoroak bere bilduman aurkezten dituen esaerak herriaren ahotik zein euskal idazle jatorren idatzietatik hartuak daudelako aukeratu dut. Euskal kutsuko esaeren aurrean, hau da, euskal gizarte burubideen lekuko diren lokuzioen aurrean gaudela pentsa genezake beraz; eta, honenbestez, nire ikerketarako *corpus* ezin hobe baten aurrean. Mokoroak berak dioen bezala: "De estas expresiones, muchas las he recogido yo mismo directamente del habla viva: son las que, entre las «Fuentes» marco con el indicativo 10. Algunas las debo a amigos colaboradores cuyos nombres cito entre los «Testigos». La mayor parte provienen de escritos de indudable vena popular, impresos o inéditos" (32).

2. Bigarrenik, bilduma honek eskaintzen dizkigun esaera kopuruagatik aukeratu dudala azpimarratu nahi nuke. Hain zuzen ere, 92.167 esaerez osaturik, *corpus* paregabea bihurtzen da honelako azterketa bat egiteko (33).

3. Azkenik esan, esaera bakoitzari buruz informazio zehatza ematen duelako aukeratu dudala. Izan ere, informazio honek esaerak aztertu, sailkatu eta alderatzeko laguntza ezinhobea eskaintzen baitu (34). Hau da, esaera bakoitzean aurkezten zaigun informazioa, esaeren azterketan ager daitezkeen zailtasunak gainditu eta gonbaraketak egiteko balio izugarria eskaintzen duelako.

(29) AEK: *Euskalduntzerako Helburuak. Esakuneak*. Artes Gráficas Rontegui, Bilbo, 1990.

(30) IZAGIRRE, K.: aip. lib.

(31) Kontutan izan behar dira ere, Azkue-k bere *Euskalerrriaren Yakintza III* liburuan aipatzen dituenak: "Iru dira dazauzkigun esakeralariak: Altube, Intza eta Ormaetxea. Iruroi beron laritasun au Euskaltzaindian erne zaie; eta bere aldiroko Euskeraren orrietan argitaratu dituzte erriari ikasitako esakera guziak. Azalgarrienak, bear dan baimenez, liburu onetan biryaioko dira". AZKUE, R.M.: aip. lib., 234. orr.

(32) MOKOROA, J.: aip. lib. 22. orr.

(33) Kontutan izan behar da, nahiz eta esaerataz hitz egin, zenbait atsotitz ere tartekatuta daudela bilduman zehar. Azterketa egiteko ez ditut alde batera utzi. Ikerketa, bilduma bere osotasunean hartuta egin dela ez da ahantzi behar.

(34) Esaera bakoitza honela aurkeztua baitator bilduman:

1. Lehenengo, esaera bakoitzaren zenbakia agertzen da. Ondoren, esaera agertzen den parte esaera beltzean duelarik, eta azkenik, lokuzioaren azalpena gaztelaniaz.

2. Honekin batera, esaeraren euskalkia, lekukoa eta esaera hartu den iturriaren (liburua, aldizkaria edo egunkaria) orrialdeari buruzko informazioa ematen da.

ESAEREN AZTERKETAN ERABILITAKO METODOA ETA EMANDAKO PAUSOAK

Azterketa hau, gizarte zientzietan aski finkatua eta ezaguna den **eduki azterketaren** bidez burutu dut (35). Hain zuzen ere, *corpus*aren berezitasunak kontutan hartuz, ordenagailuaren eta, zehazki, BRS programa informatikoaren laguntzaz baliatu naiz azterketa egiteko. Programa informatiko honek, testuen azterketa egiteko estrategia ezberdinak eskaintzeaz gain, honelako *corpus* zabalaren arintasunez aztertzeko gaitasuna du. Izan ere, liburutegietan aurkitetako egiteko erabiltzen den programa informatikoan oinarrituta egonik, BRS-aren berezitasunik nabarmenena, *corpus* handietan azterketak azkar egiteko gaitasuna da. 92.167 esaera dituen Justo Mokoroaren esaera bilduma mardula aztertzeko aproposa beraz.

Eduki azterketa ordenagailuaren laguntzaz egiteak, bilduma sistema informatikoan erabiltzeko eta BRS programaz joratzeko eran prestatzea eskatu du, lan itzela eman didana baina baita etekin ezin hobea eskaini ere. Behin lan hori egin ondoren, hiru pausotan burutu dut azterketa:

I-go TAULA

GIZARTEGINTZAN NOR AIPATUENAK

1. GU	5.793
2. ETXE (Baserri, Basarri, Etse, Etxalde)	3.727
3. GIZON (Senar, Senhar)	3.204
4. NI	3.024
5. ZU	2.874
6. HERRI (Erri, Uri, Huri)	1.997
7. ANDRE (Andere, Etxekoandre, Dama, Ugazabandre, Emakume, Emazte)	1.852
8. UME	1.778
9. MUTIL (Mutiko, Muthil, Motel)	1.660
10. SEME	1.178
11. AITA	1.125
12. AMA (Amorde, Amaizun)	1.009
13. NESKA	919
14. ALABA	507

— Lehenengo eta behin, *corpus* honetan adierazten zaigun gizartegintzan nor izatea aitortzen zaienak, hau da, sujetoak zeintzuk diren argitu dut. Hau

(35) "Content analysis is a research method that uses a set of procedures to make valid inferences from text". WEBER, R.P.: *Basic Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2nd Edition, 1990, 9. orr.

da, esaera guzti hauetan barrena beren gain nolabaiteko erantzunkizuna har dezaketenak bereizi eta, ondoren, maiztasun haundiena dutenak aukeratu ditut ikerketarako.

Ondoren aukezten den taulan ikus daitekeen bezala, **Gu, etxe, gizon, ni, zu, herri, andre, aita, ama, ume, seme, mutil, neska** eta **alaba** dira, hain zuzen ere, *corpus* honetan agerpen garrantzitsuena duten gizartekideak.

— Bigarrenik, gizartegintzan ondasun bezala agertzen zaizkigunak zeintzuk diren zehaztu dut ikerketarako maiztasunik handiena dutenak aukeratzuz (36). **Etxe, lur, mendi, soro, baso, ardi, behi, katu, txakur, asto, gari, arto, ardo** eta **ogi** dira, hain zuzen ere, ondasun aipatuena.

II. TAULA

ONDASUN AIPATUENAK *CORPUS*-EAN

1. ETXE (Baserri, basarri, baxerri, Etxe, Etxalde)	3.727
2. LUR (Baztar)	1.635
3. MENDI	833
4. SORO (Baratz, Ortu, Hortu)	223
5. BASO (Oihan)	316
6. ARDI	346
7. BEHI (Esne-behi, Abelgorri, Buztarri-behi)	463
8. KATU	268
9. TXAKUR (Zakur, Xakhur, Xakur)	539
10. ASTO	443
11. GARI	306
12. ARTO (Artho, Arthu)	292
13. ARDO (Arno, Ardu, Arda)	483
14. OGI	499

— Azkenik, sujetu eta ondasun hauek elkarrekiko zer-nolako harremanetan azaltzen zaizkigun aztertu dut.

Harreman hauen azterketa hiru pausotan burutu dut:

I. Ikerketa burutzeko aukeratu diren hamalau gizartekide eta ondasunen arteko harremanak aztertuz hasi naiz. Horretarako, aukeraturako gizartekide eta ondasunak harremanetan agertzen diren esaerak bereiztu eta harreman hauen berezitasun orokorrak aztertu ditut.

(36) Lehen esan bezala, ondasun izatea aitortzen diet gizartegintzan baliotsuak eta urriak diren objektuei. Baliotsu izate hau, beharizan bat asetzeko gai izateagatik lortzen den berezitasuna delarik.

II. Ondoren, ondasunekiko harremana adierazteko erabiltzen diren JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak ondasunekiko harremanetan nola agertzen zaizkigun ikertu dut.

III. Azkenik, eta ondasunekiko harremanen azterketa egiteko ikuspegi ezberdinak erabili nahirik, *ondasun ezberdinek salerosketa harremanetan zer-nolako agerpena duten* ezagutu dut.

ONDASUNEKIKO HARREMANAK JUSTO MOKOROAREN *REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA* ESAERA BILDUMAN

Hiru pauso hauek eman ondoren, esaera bilduma honetan hiru zutabetan oinarritzen den ondasunekiko gizarte harremanak adierazten zaigula ondorioztatatu beharrean aurkitzen naiz:

- I. ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA: ETXEKO EDO-ETA HERRIKO ONDASUNAK DIRA.
- II. PROPIETATE PRIBATUA AHULA DA.
- III. ARDURA NAGUSITZEN DA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN.

Ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan hiru baieztapen hauetan laburbiltzen den gizarte errealitatea era honetan agertzen zaigu:

- I. ONDASUNAK, ELKARTEKOAK DIRA: ETXEKO EDO-ETA HERRIKO ONDASUNAK DIRA

Corpus honetako gizarte bizitzan, ondasunak *ETXEKO* eta *ETXERAKO* bezala agertzen zaizkigu nagusiki. Hau da, etxearen parte direla eta bere zerbitzura daudela adierazten zaigu esaera hauetan irakur daitekeen bezala:

31577 eta 64301. “Ai geure etxaldeko baso ta mendi zabartsuak! Emendik urtenda or Burgos-aldera noz-edo-bein joan nazanetan ango biloiztasunak ez-takit zelako naieza emon oi deustan...”. *Diccionario V.E.F.* Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

61689. “Negu-buruan bildur giñan, ta aletik eman genien, etxeko ardiei...”. *Euskaldunak*. (N. Ormaetxea).

37712. “Etxeko txakurrari jaramon geiago egite eutsen, aitari baiño”. Ibaizabal Aldizkaria.

5327 eta 13101. “Etxeko garia onura obekoa dala diño, erraria (ogia) egiteko: laban erret-orduan obeto jagiten da”. *Euzkadi* egunkaria.

54711. "Hauzoko ogia baino etxeko arthoa hobea da". Ibaizabal aldizkaria.

73858. "Itxurazko beirik emen? Antxe baztarrean dagon bei urdin uraxe, izatekotan, zeoze itxura-antzekoa, zuen etxerako...". E. Zurutuza-ri hartua.

Ondasun iraunkor, etxe-abere zein elikagaiak zentzu honetan, ETXEA osatzen duten ondasun bezala agertzen dira. Ikuspuntu honetatik, aipagarria da *corpus* honetan ondasunak ez direla inoiz ETXEARENAK bezala agertzen (propietate harremana), izatekotan ere ETXEKOAK edo-eta ETXERAKOAK. Beste edonolako harremanak alboratuz, ondasunen etxearekiko lotura eta berearekiko zerbitzua azpimarratzen dela pentsa genezake.

Era berean, zenbait ondasun iraunkor HERRIKOAK dira, hau da, herritar guztiek osatzen duten elkartekoak dira esatera hauetan nabarmentzen den bezala:

4645. "Jan-edan bat eman zioten gero mediku berriari erriko-etxean...". Aitonaren Uzta. (G. Anduaga). 1961.

67272. "Erri-lurretatik alde-xamar zegoan baserria". Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

79586. "Alegi asi zan lenengo erri-lurretan lan egiten; eta lurrez-lurr etekin geien berak atera du". Gure mendi ta oianak. (I. Munita). 1952.

80021. "(Indietara partitzen danak), oraiño bere herriko agerrian denean maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat...". Guero. (Axular). 2. argitarapena.

Esaera hauetan barrena, ETXE, MENDI eta LURRAK elkartekoak direla adierazten da. Hau da, gizabanako ezberdinenak izan ordez, herria da (ez oraingo herritarrek osatzen duten taldea) ondasun hoiien jabea. Ondasunen etxearekiko harremana aurkezterakoan ikusi dugun bezala, hemen ere ondasunak ez dira inoiz HERRIARENAK (propietate harremana) bezala agertzen, HERRIKOAK baizik. Hau da, ondasunen herriarekiko lotura eta zerbitzua azpimarratzen da.

Elkarteak eta, zehazki, herriak eta etxeak hartzen duten garrantzi honen arabera, ez da harriztekoa ondasunekiko harremanetan GURE eta ZUEN kontzeptuen agerpena NIRE eta ZURE kontzeptuei nagusitzea. Gutasunezko eta nitasunezko harremanen kasuan esaterako, GURE 364 aldiz (kasuen % 80,7-an) eta NIRE 87 aldiz (kasuen % 19,3-an) agertzen dira ondasunekiko harremanetan ondoren aukezten dugun taula honetan ikus daitekeen bezala (37).

(37) Zure-Zuen kontzeptuei dagokionez ere, ZUEN harremana berrogeita hamaika esateratan, hau da, kasuen % 53-tan eta ZURE harremana berrogeita lau esateratan agertzen dira (kasuen % 47).

III. TAULA

GURE-NIRE KONTZEPTUAK ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

	Gure	Nire
ETXE	214	61
LUR	34	—
MENDI	21	1
BASO	10	8
SORO	9	2
ARDI	10	5
BEHI	9	8
KATU	17	2
ZAKUR	19	—
ASTO	13	—
GARI	2	—
ARTO	2	—
ARDO	1	—
OGI	3	—
GUZTIRA	364	87

Gure kontzeptuak duen agerpena kontutan izanik, *corpusean* barrena era honetako esaerak nagusitzen direla ikus genezake:

1620. “Beti gexopean egon gara gure etxean...”. *Vocabulario manuscrito*. (J.I. Iztueta).

6840. “Gure baserrira beranduko ordutan etorri izandu zan askotan gizon ori, lo-lekua eskatzera”. *Alkain aita-emeak*. Auspoa Argitaletxea.

4325 eta 54135. “Gure lur murriz onek bialdu zitun mariñelak itsasoan sabelera neke gogorrez jateko billa; maiz, eriotza arkitzera”. *Euskaldunak*. (N. Ormaetxea).

26396. “Gure mendi ta aitzak etzuten ikusi egundaño arrotzik berentzat nagusi”. *Euskal-Erria* aldizkaria 1883-II.

5555. “Zorioneko bota ta jarri-ez orrek bakandu ditu gure basoetako zugaitzak”. Dorronsoro-gandik hartua.

5616 eta 35314. “Ez; oraindik eztu zeruak lur jo... Jaunari eskerrak...; baiña gure paotx-soroa jorratu digu akerrak...”. *Zeruko Argia* astekarria.

6040. “Gure ardiak ale onik eztauke ta ezin arean loditu...”. *Diccionario V.E.F.* Lehen tomoa. (R.M. Azkue). 1905-1906.

1358. “Gure beiak gaur ongatxa dauko...”. *Diccionario V.E.F.* Bigarren alea. (R.M. Azkue). 1905-1906.

2203. “Ero-aldiak eman dio gure katuari”. (Jolaserako gogoak). Mokoroak hor-hemen entzuna.

4259. “Barruan sartu eziñ-ala sartu ta gure zakurra zart-eginda geldituko zan bildur giñan”. (Afarí artan). Euzkadi egunkaria.

4036. “Alderdi bat du ona gure asto onek: aitzaki-gabe jaten, ematen zaióna...”. Iru ziri. (P. Urruzuno).

77678. “(Ebia egingo du, iñundik-ere...) -Egin dezala! Berdin «gure garia eztago loretan da!»”. Mokoroak hor-hemen entzuna.

77751. “Gure artoak zelaitik ezetan aitzen dira: ganbaran egon-gabe... xa-guen kezketan”. Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

81714. “Ukitua dago gure ardoa...”. Diccionario V.E.F. Bigarren tomoa (R.M. Azkue) 1905-1906.

87069. “Merkeagoko zerbaitez ordaindu beharko dute han, gure ogia”. Eskualduna astekaria.

Dena dela, ondasunekiko harremana zehazterakoan, GURE kontzeptuarekin ez dela beti gauza bera adierazten azpimarratu beharra dago.

GURE kontzeptua ondasun iraunkorrekiko harremanetan erabiltzen deanean, kontzeptu honen atzetik, batzutan ETXEKO GIZARTEKIDEAK eta beste batzutan HERRITARRAK daudela ikusten da. Ondasun iraunkorrek honenbestez, ETXE edo HERRI bezala gizarteratzen direnentzat dira, hau da, ETXEKO eta HERRIKO direnentzat, izan direnentzat eta izango direnentzat.

Ondasun ez iraunkorrekiko harremanetan aldiz, GURE kontzeptuaren atzetik ETXEKOAK daudela ikusten da. Ondasun hauek, etxearen zerbitzuan eta ez herriaren zerbitzuan baitaude. Etxe-abereak zein elikagaiak zentzu honetan, momentu horretan ETXEKO direnen zerbitzurako dira.

II. PROPIETATE PRIBATUA AHULA DA

Elkarteek eta, zehazki, herriak eta etxeak duten garrantzi honekin batera, propietate pribatuaren ahultasuna da *corpus* honetan adierazten den ondasunekiko harremanen beste berezitasun garrantzitsu bat. Hau da, ondasunak ETXEKO, ETXERAKO eta HERRIKO badira ere, gutxitan agertzen dira gizartekideen propietate bezala. Izan ere, gizartekideen ondasunekiko harremanetan oso gutxitan agertzen da (12 esaeratan bakarrik), beste erabilera batzuen artean ondasunekiko propietate harremana adierazten duen, -REN atzizkia (gizonaREN lurra, andreaREN etxea, mutilaREN basoa...).

Hain zuzen ere, -REN atzizkiaren bitartez, corpus osoan zehar, AITA eta 7ETXEA agertzen dira bakarrik harremanetan. Harreman hau adierazten diguten hamabi esaerak era honetan agertzen zaizkigu:

— 3471. zenbakia duen esaera, EZIN-BERTZEAN Xalbadarren liburutik hartua da: **“Egizu, Jesus, oek beren Aitaren etxera laister biurtu daitezela, gosez galdu ez ditezen”**.

— 69955, 73350, 82890, 88587, 83110 eta 84887 zenbakiakin agertzen diren esaerak Lartaun-ek Euskarazaleak aldizkarian eginiko idatzietatik hartuak dira:

69955. “Guziak utzi ta makila arturik aitaren etxerontz ipiñi nituen oin biak...”.

73350, 82890 eta 88587. “Aitaren etxean jakia nai-ezik oitua orain txerrien ortzak utzitako ezkurra ere eziñez naikoa...!”.

83110 eta 84887. “Zenbat mirabe diraden ase ta betean, nere aitaren etxean! Ta ni, ango semea otzak eta goseak ozta-ozta illean...”

— 24456 eta 82991 zenbakiak dituzten esaerak F. Lardizabal-en TESTAMENTU ZARRECO ETA BERRICO CONDAIRA-tik hartuak dira:

24456. “Irugarren semeari au bera gertatu zekiokéan-bildurrez aitaren etxera bialdu zuen.”

82991. “Zenbatek jango dute ogia naroro nere aitaren etxean ni emen goseak iltzen naukan bitartean!”.

— 72898. zenbakia duen esaera GENESIS-etik (J.A. Uriarte) hartua da: **“Kondar piskaren bat bai al degu gure aitaren etxeko ondasunetan?”**.

— 81079. esaera, URTE-GUZIKO MEZA-BEZPERAK Orixeren liburutik hartua da: **“Aitaren etxeko zillar-jainkoak tokitik kendu ta puska-puska egin zitun”**.

Aurkeztutako esaera hauez gain, ezin ahantzi 88.588 zenbakia duen esaeran AITARENEAN kontzeptua agertzen dela AITAREN ETXEAN esan ordez:

88588. “Zenbat langille nere aitarenean ogia nai-ezik! eta ni emen goseak erdi-illik!...”. Lau Ebanjelioak. (Orixe). 1967.

Hamabi alditan agertzen diren bederatzi esaera hauen esanahia eta iturriak kontutan hartzen badira, bibliatik hartutako pasarteen itzulpen literalen edo hauen eraginpean egindako esaeren aurrean gaudela somatzen da. Bederatzi hauetatik lau gainera, seme prodigoaren parabolatik hartutako pasarteak dira. Hau da, AITAREN ETXEA itzulpen kutsua duten esaeretan adierazten da (38).

-REN atzizkiak, beste erabilpen batzuen artean, propietate harremana adierazten duela kontutan hartuz, eta, esanahia honekin, gizartekide eta ondasunen

(38) Gabriel Aresti-ren “Nire aitaren etxea” olerkiak zabalkunde eta ospe izugarria hartu badu ere, AITAREN ETXEA *corpus* honetan, itzulpen kutsua duten esaeretan agertzen dela bakarrik konturatzen gara.

arteko harremanetan atzizki honen agerpena ia hutsa dela ohartuz, zera ondorioztatu genezake: **aztertzen ari garen gizartekideak inoiz ere ez direla ondasunen propietario bezala agertzen**. Zentzu honetan, gizabanakoek elkarte batetako kide diren heinean (eta ez gizaki diren heinean) lortzen dutela ondasunak erabili eta gozatzeko eskubidea pentsa genezake, hau da, ETXE edo HERRI batetako kide diren heinean.

III. ARDURA NAGUSITZEN DA ONDASUNEKIKO HARREMANETAN

Corpus honetan adierazten diren ondasunekiko harremanen hirugarren be-rezitasuna zera da: **ondasunekiko harremanen oinarrian ARDURA edo ERANTZUKIZUNA nabarmentzen dela**. Era honetan, ondasunekiko harremanez hitz egitea ondasunekiko **ardurari** buruz hitz egitea beste dela esan dezakegu. Izan ere, ondasunekiko harremana adierazten dutenean JABE, NAGUSI, JAUN, BURU eta UGAZABA kontzeptuak propietatea adierazi ordez, ondasunekiko ardura adierazten dute nagusiki, esaera hauetan ikus daitekeen bezala:

54640 eta 55724. “Etxe-alde ederraren jabe antxe egingo da, (gure alaba). Au gabe-ere bá dago nere irabaziak zeñek jana, ta nora partitua... (nere etxean). Baserriko goraberak”. (J.R. Erauskin).

42066. “Alkar ondo eramaten bazuten gurasoak ill-arte etzan egingo gauzaren (etxaldearen) jabe...”. Baserriko goraberak. (J.R. Erauskin).

6350. “Etxeko nagusia, mauk-utsetan pipa belarrez betetzen ari da”. Aña-Mari. (B. Alegria). 1920.

3979. “Tiro-otsa sentiturik alderatu ta Muatz-ko etxeko jaun zarra eriotz-larrian arkitu zuten”. Juan-Maria Zubizarreta bertsolaria. (A. Zavala).

25282. “Zabala bera etxeko buru zala egiñak ei-dira eleiza aretako altara nagusi ta albo bietakoak”. Lenengo Euskal-egunetako Itzaldiak. 1922.

7180. “Afaldu-ostean etxeko ugazaba egiten zanak (lagunak lotara bialdu ebezan)”. Eusko Folklore boletina. 1973.

Etxe jabe, nagusi, jaun, buru edo ugazaba izatea esaera hauetan, etxearen arduradun izatea beste dela pentsa genezake. Ezin ahantzi, JABEA, NAGUSIA, JAUNA, BURUA edo-eta UGAZABA, *ETXEKO* direla adierazten duten esaera ugarirekin aurkitzen garela eta honek, HAUEN etxearekiko propietatea azpimarratu ordez, etxearekiko lotura, etxeko izatea adierazten duela. Zentzu honetan, JABEAREN, NAGUSIAREN, JAUNAREN, BURUAREN eta UGAZABAREN ETXEA (propietate harremana) ez dela inoiz adierazten eta, aldiz, ETXEKO JABEA esaera ugaritan agertzen dela oso kontutan eduki behar da.

Eta ez bakarrik ondasun iraunkorreko harremanetan, ondasun ez iraunkorreko harremanetan ere bost kontzeptu hauek batez ere ardura adierazten dutela ikusten dugu:

12104. “Gogoak ematean, aurak oraiñ ura naizute... Baña ezkondu ta gero etxandre ta ardoaren jabe zeratenean edatera oituko zerate...”. Egercicioac II-III. (A. Cardaveraz).

13405. “Artoa ta garia ongi mereziak izan-arren opa ez bere nagusiak (bei txintxoari)...”. Mendaro Txirristaka. (E. Mugerza).

14717 eta 87517. “Txakurra... Narrua beroturik ezpadok gura jan orrek ondakiñok guztiak, ... eure ugazabandrearen lotsagarri kalerik-kale ibilli-barik”. Euzkadi egunkaria.

12655. “Ugazaba galduta dabillan txakurra lez naiagok nora jo eztakiala... Etxaukuat lauzirikorik...”. Abarrak I. (E. Bustintza).

36486. “Ogi-puska bategaiti, zelango oniritzi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari, txakurrak!”. Peru Abarca. (J.A. Moguel).

28454. “Aurrerantzean, astoa ugazabak anoa geituta nai baino hobeto, oparo ta gozoro bizi izan zan”. Euskalerriaren Yakintza II. (R.M. Azkue).

Dena dela, ondasun iraunkor eta ez iraunkorrekiko ardura harremanak ezberdinak direla nabarmentzen da:

— Ondasun iraunkorrekiko ardurak, hauek behar bezala zaintzeko konpromesua esan nahi du; hau da, garai bakoitzean herriko edo etxeko ondasun iraunkorren arduradun nagusi denak, ondasun hoiekin ezin izango du nahi duena egin. Izan ere, ondasunak behar bezala zaintzeko konpromesua hartu baitu. Kontuan hartu beharrekoa baita, ondasun hauekiko arduragabekeriak, datozten belaunaldiek ondasun hauek erabili eta gozatzeko dituzten eskubideak ukatuko bailituzkeela. Etxearen kasuan esaterako, berarekiko erantzukizuna behar bezala beteko dela ziurtatzeko, gizartekide bakar bat aukeratuko da belaunaldi bakoitzean. Hau da, ETXEKO seme-alabengandik, etxeko ardura behar bezala betetzeko berezitasunak dituena izango da ETXERAKO:

3333, 55021 eta 55777. “Betiko ez gaude ta semea etxerako nai nuke. Artarako, alaba lenbizi etxalde on batean sartu al banu”. Aña-Mari. (B. Alegria). 1920.

63616. “Aitak etxerako nai zuen eta beti atzerapenak ematen ziozkan semeari...”.

21921. “Beajondeikala; motell! I etxerako! Bravo!”. Mokoroak berak horrehemen entzuna.

21813. “Gure etxerako txit ona da (neskatx ori)”. Alza-ko bertsolari zarrak.

— Ezberdina da ondasun ez iraunkorrekiko ardura harremana. Kasu honetan, etxeko JAUN, BURU, JABE, NAGUSI edo UGAZABA bezala dagoenaren esku dago ondasun hauek zer-nola erabili (kontutan izan ondasun ez iraunkorren salmentak ez duela inolako arazorik sortzen). Izan ere, garai batean arduradun dagoenaren eta bere sendiaren beharrianak asetzeko dauden ondasunak baitira.

Ondorio hauek, LANA dagoela ondasun iraunkor eta ez iraunkorrekiko harreman ezberdinen oinarrian pentsatzera eramaten naute. Izan ere, ondasun iraunkorrek aurreko belaunaldiek utzitako ondasunak dira, norbere zuzeneko lanik gabe lortu diren ondasunak. Ondasun ez iraunkorrek aldiz, norbere zuzeneko lanaren ondorio dira.

Zentzu honetan, ETXEKO ARDURADUNAK bere eta bere sendiaren lanaren etekinekiko aginte osoa du. Aurreko belaunaldietatik lortu dituen ondasunak aldiz, hurrengo belaunaldiei hartu dituen bezala emateko konpromesua dakarte eta honek, beraien edonolako erabilera mugatzen du.

Berezitasun honen aurrean, ondasunen erabilera ezberdina norbere lanaren arabera dagoela eta lanak ematen duela ondasunen erabileraren neurria pentsa genezake.

Hauek dira, orohar, esacretan adierazten diren ondasunekiko harremanen berezitasun azpimarragarrienak. Dena dela, Mokoroak era bateko esaerak jaso izana eta, ondorioz, nire azterketak baliorik ez izatea gerta zikeena zen. Honela, eta kontrastan bezala, beraien arteko harremanak euskeraz burutu dituztenen egunerokotasunaren lekuko bi aukeratu eta, ondoren, aurretik aztertu ditudan gizartekide eta ondasun berdinen arteko harremanak aztertu ditut Mokoroaren esaera bildumatik lortutako ondorioen balioa jakin asmoz.

Alde batetik, Euskal Herriko Hegoaldean garatu izan den egunerokotasunaren adierazle den Jose Azpiroz-en *Arbol Zarraren Kimuak* liburua aztertu dut (39).

Bestetik, Euskal Herriko Iparraldeko egunerokotasuna aurkezten duen liburu bat: Erramun Etchebarne-ren *Erramun Harginaren Oroitzapenak* (40).

Biografia bi hauen azterketa egin ondoren, esacretan nabarmentzen den gizarte burubide bera adierazten zaigula ondasunekiko harremanak arautu eta bizitzerakoan ikusten da; hau da, elkartearen eta arduraren garrantzia eta propietate pribatuaren ahultasuna azpimarratzen duen gizarte burubidea. Idazki honetan, liburu bi hauetan adierazten zaigun gizarte burubidea zehatz-mehatz aurkeztea gehiegizkoa bada ere, interesgarria iruditzen zait, adibide bezala, gurenire kontzeptuak ondasunekiko harremanetan nola agertzen diren aurkeztea. Hala nola, *Arbol Zarraren Kimuak* liburuan GURE kontzeptua 25 aldiz eta NIRE kontzeptua inoiz ere ez dela agertzen ondasunekiko harremanetan eta *Erramun Arginarene Oroitzapenak* liburuan, GURE kontzeptua 24 aldiz eta NIRE kontzeptua 11 aldiz ikus genezake. Zalantzarik ez dago elkarte nagusitzen dela liburu bi hauetako ondasunekiko harremanetan ere.

Hiru *corpus* hauen azterketak eman dizkigun ondorioak hasieran aurkeztu ditugun hiru eredu teorikoen aurrean jartzen baditugu, lehenengo aurkezten ge-

(39) AZPIROZ, J.M.: *Arbol Zarraren Kimuak*. Etor, Donosti, 1988.

(40) ETCHEBARNE, E.: *Erramun Harginaren Oroitzapenak*. Etor, Donosti, 1989.

nuen ereduarekin, hau da, elkartearen eta arduraren garrantzia eta propietate pribatuaren ahultasuna aldarrikatzen duen ereduarekin adosago daudela ikusten da. Dena dela, eta bukatu baino lehen, argi eta garbi utzi nahi nuke lan honen helburua ez dela izan Euskal Herrian ohituraz bizi izan diren ondasunekiko harremanei buruzko eztabaida konpondu eta behin betirako bukatzea. Izan ere, gai honen inguruko xehetasun gehiago ziurtasunez jakiteko oraindik ere ikerketa asko egin beharra dagoela ez dut inolako zalantzarik. Ikerketa hau, gai honen inguruko ekarpen bat gehiago bezala aurkeztea nahi nuke, beraz; gai honen baitan argi gehiago ematen duen ikerketa bat bezala, alegia.

Bestalde, nire aurkezpen honekin ahozko literatura eta, berezki, esaerak azterketa soziologikorako guztiz erabilgarriak direla azpimarratu nahi nuke; hau da, esaerak egokiak direla gizarte burubideen azterketa zehatza burutzeko. Zentzu honetan, soziologiaren ohiko metodoekin (sakoneko elkarrizketa, inkesta, behaketa, esperimentoak...) lortzen diren datuez gain, ahozko literatura eta, bereziki, esaerak informazioa lortu eta azterketak egiteko iturri garrantzitsuak dira ere. Euskal Herrian ahozko literaturak duen aberastasuna ikusirik, ez dago zalantzarik euskal soziologoek Euskal gizartearen iragana, oraina eta geroa aztertu eta ulertzeko altxor paregabea dutela eskuartean.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- ADAMSON, H.E. eta WEABER, T.: *Antropología y experiencia humana*. Ediciones Omega, Barcelona, 1985, (5. argitarapena).
- AEK: *Euskalduntzerako Helburuak. Esakuneak*. Artes Gráficas Rontegui, Bilbo, 1990.
- ANGULO LAGUNA, D.: *Derecho Privado de Vizcaya*. Hijos de Reus, Madrid, 1903.
- AZKUE, R.M.: *Cancionero Popular Vasco I eta II*. Euskaltzaindia, Bilbao, 1990.
- AZPIROZ, J.M.: *Arbol Zarraren Kimuak*. Etor, Donosti, 1988.
- BARANDIARAN, J.M.: "Rasgos de la mentalidad vasca", *I Semana de Antropología Vasca*.
- BARANDIARAN, J.M. "Folklore Vasco. Necesidad de su estudio", *Obras Completas de Barandiarán, V. Tomoa*. Editorial de La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, 309. orr.
- CELAYA, A.: "El sentido jurídico de nuestro pueblo", *I Semana de Antropología Vasca*. Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1971.
- CELAYA, A.: "El Derecho Privado de Vizcaya en la concepción del Fuero de 1452", *La Sociedad Vasca Rural y Urbana en el Marco de la Crisis de los Siglos XIV y XV*. Publicaciones de la Excm. Diputación de Vizcaya, II Simposio que tuvo lugar en la Biblioteca Provincial de Vizcaya, 1973.

- CELAYA, A.: "El derecho foral vasco desde la perspectiva del derecho civil", *Euskal Herria, Errealitatea eta egitasmo. Realidad y proyecto*. (Joseba Intxausti zuzendaria) Lankide Aurrezkoa, Jakin, 1985.
- CELAYA, A.: "Propiedad Troncal y Patrimonio Familiar: La Troncalidad en Bizkaia", *Euskal Erakunde Zibilei Buruzko Nazioarteko Ihardunaldiak*. Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitatea, 1991.
- CELAYA, A.: *Derecho Civil Vasco*. Universidad de Deusto, Bilbao, 1993.
- ETCHEBARNE, E.: *Erramun Harginaren Oroitzapenak*. Etor, Donosti, 1989.
- FERNANDEZ DE PINEDO, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850*. Siglo Veintiuno editores, Madrid, 1974.
- GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en la alta edad media*. Caja de Ahorros Vizcaina, Colección "temas vizcaínos"/IX. urtea/105. zenbakia.
- GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: *Vizcaya en el Siglo-XV, Aspectos Económicos y Sociales*. Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 1966.
- GARCIA DE CORTAZAR J.A.; ARIZAGA B.; MARTINEZ OCHOA R. M. eta RIOS M. L.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1979.
- GARCIA DE CORTAZAR J.A.: "Medievo y mundo urbano", *Los Vascos a través de la Historia, Comportamientos, mentalidades y vida cotidiana*. Gipuzkoako Kutxaren Argitarapenak, Jose Luis Orella (Zuzendari eta Koordinatzailea), Donosti 1989.
- GARCIA DE CORTAZAR J.A. eta ARIZAGA, B.: *Euskal Herria Erdi Aroan I eta II*. Gaiak, Donostia, 1991.
- GARCIA DE CORTAZAR, F. eta MONTERO, M.: *Historia de Vizcaya, Tomo I.- Los orígenes, la Edad Media, el Antiguo Régimen*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1980.
- GARCIA DE CORTAZAR, F. eta MONTERO, M.: *Diccionario de Historia del País Vasco I eta II*. Editorial Txertoa, Donosti, 1983.
- GARCIA DE CORTAZAR, F. eta LORENZO, J.M.: *Historia del País Vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastian, 1988.
- GARMENDIA, F.: "Euskal Erakundeak. Sarrera", *Euskaldunak, Euskal Etnia, III*. Etor, Donosti, 1978.
- GARMENDIA, F.: "Gure Mendiak eta Euskal Gizartearen Eraketa", *Mendiak I. Berezko eta giza-giroturiko Eusko Lurra*. Etor, Donosti, 1981.
- GARMENDIA, F.: "Erronkari Araneko Elkartasun-Bizitza", *Mendiak IV. Berezko eta Giza-Giroturiko Eusko Lurra*. Etor, Donosti, 1982.
- GARMENDIA, F. eta IRIARTE, J.L.: "Arauketa Gipuzkoan", *Euskaldunak. La Etnia Vasca III*. Etor, Donosti, 1978.
- GARMENDIAK, F.: "Egingo Ote Euskalerria Geroaren Jabe?", *Donostiako Udako IV. Ikastaroak. Euskal-Herria Presente y Futuro* (Enrique Freijo Balsebre Zuzendaria). EHU-ko Argitarapen Zerbitzua, 1985.

- GEREÑO, J.: *Diccionario de Modismos, Con ejemplos de aplicación Euskara-Castellano, Castellano-Euskara, Esaeren Hiztegia*. Joseba Gereño, Bilbao, 1980.
- IDOATE, F.: *La Comunidad del Valle del Roncal*. Diputación foral de Navarra, Pamplona, 1977.
- IHARTZATAR HEIKO SAGREDO: "Euskal Gizarte-Asmo Batentzako Oinharri Ideia Batzu", *Zehatz I*, Donosti, 1977. eko Urtarrila/Otsaila.
- IRALA, A.: *Keperin de Jemein-i idatziriko eskutitzak* (Argitaratu gabeak).
- IRALA, A.: *Bat bitan banatzen da II. Mao Tse-tung-en azkon zorrotza*. Etor, Donosti, 1976, 9. orr.
- IZAGIRRE, K.: *Diccionario de locuciones del euskera y correspondencias españolas, Euskal Lokuzioak, fictionarie des locutions de l'euskara et correspondances françaises*. Hordago, Donostia, 1984, VII. orr.
- LAFOURCADE, M.: "El Particularismo Jurídico", Haritschelhar, J. (Director): *Ser Vasco*. Ediciones Mensajero, Bilbao, 1986.
- LEKUONA M.: "Eusko Institutuzunak", *Euskaldunak. La Etnia Vasca I*. Etor, Donosti, 1978.
- LEKUONA, J.M.: "Erri literaturaz. Atsoitzak eta esaerak", *Lekuonatar Manuel Jau-naren Omenezko Idazki-Bilduma III*. Kardaberaz Bazkuna, 1977.
- LEKUONA, J.M.: "Literatura Oral Vasca", *Cultura Vasca II*. Erein, Donosti, 1978, 65. orrialdean eta Euskaltzaindia: "Ahozko Euskal Literatura", *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia, Elkar, Bilbao, 1978, 167. orr.
- LEKUONA, J.M.: *Ahozko Euskal Literatura*. Erein, Donostia, 1984.
- MOKOROA, J.M.: *Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca I eta II*. Etor, Donostia, 1990.
- OTAZU Y LLANA DE, A.: *El igualitarismo Vasco: Mito o Realidad*. Editorial Txer-toa, Donosti, 1986, (Bigarren Argitaldaria).
- SARRAILH DE IHARTZA, F.: *La Nueva Vasconia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, Oiartzun, 1979.
- VILLASANTE, L.: *Axular-en hiztegia*. Oinati, 1973.
- WEBER, R.P.: *Basic Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2. argitara.

LOS REFRANES EN LA LITERATURA

Durango, 7-XII-1996

Louis Combet,
Profesor emérito de la Universidad de Lyon

Para que las cosas sean bien claras, y a riesgo de parecer algo pesado, quisiera recordar algunas definiciones. ¿Qué es exactamente un *refrán*? ¿En qué se distingue el *refrán* del *proverbio*, del *adagio*, de la *sentencia* o *máxima*? Para el *refrán*, bastará con reproducir la definición que he dado en varias ocasiones:

“Frase breve y de uso común, que dispensa una enseñanza de orden práctico, material o moral, expresada en forma metafórica o a veces directa, y provista de elementos poéticos (ritmo, rima, asonancia)”.

Del *proverbio* y del *adagio*, diré que no se distinguen en nada del *refrán*. En cuanto a las *sentencias* y *máximas*, que considero expresiones sinónimas (como también el *aforismo*), me parece que se diferencian del *refrán* por su carácter más culto o erudito. Muchas de ellas proceden de fuentes conocidas (profanas o sagradas), y se encuentran con frecuencia en la literatura moral y ascética, algunas veces en unión con los refranes. Adviértase, por fin, que los críticos y los historiadores de la literatura usan a veces indebidamente la expresión *proverbios morales* para designar las sentencias, con lo cual pueden producirse algunas confusiones.

Desde la emergencia de las literaturas *escritas*, se nota la presencia de las sentencias y de los proverbios en los libros sagrados y profanos. Por ejemplo, en el mundo mediterráneo, la Biblia y, más tarde, la literatura griega y romana. En el siglo XVI, Erasmo recogió este tesoro paremiológico en sus *Adagia*. Pero sabido es que los adagios compilados por Erasmo no son siempre, ni con mucho, verdaderos proverbios populares (1). En contra de lo que se cree a veces, el autor de los *Adagia* no tenía especial afición a lo popular, y muchas de las paremias que recoge son en realidad expresiones eruditas que consideraba sobre todo adornos lingüísticos, destinados a ser saboreados y a veces utilizados

(1) Véase “Les principes de la parémiographie érasmienne”, en *Richesse du proverbe* (2 vols.), vol. 2, “Typologie et fonctions”, Université de Lille III, “Travaux et recherches”, Presses Universitaires de Lille, 1984, pp. 9-23.

por una élite. Entre ellas se admitían los proverbios populares —con tal que no fueran triviales o groseros.

Sin embargo, este último caso no era el más frecuente y, en España (como en otras partes en Occidente), los proverbios se han conservado, por así decirlo, pese a Erasmo. Me refiero aquí sobre todo a los proverbios castellanos, a esos *refranes* que debieron de madurar desde la formación de los lenguajes vernaculares y que han florecido en el dominio del castellano con un vigor impresionante antes de ser recogidos por escrito a partir del siglo XIV.

Mucho se ha escrito sobre los refranes, especialmente por lo que respecta a su origen, su naturaleza y su función. Aquí me limitaré al examen de este último punto.

Moglek, bada, Peru Abarkaren bidez, Peru eta Marixeren herri-ipuuingintza arbuizatzen du, eta *ipuin gatz-gabeak* direla esaten. Ordainetan, fabula sa-

siklasiko bat (*ipuin txit ederra*) kontaktzen jartzen du bere seme Txomintxo. Zer gertatu da? Peru Abarka osatzen ari den irudi naturalista hori ere *asmatur* dela, *sortur*, ideologia baten arabera *osatur*, eta hor ez dira Peru eta Marixe xaloak kabitzen: baserritar eskolatugabe horiek ez dute hitzen balio metaforikoa, ironikoa, polisemikoa ezagutzen, eta, batez ere, ez dute *letraren lustrerik*. Hizkuntzaren ikuspegi aurre-kontzeptuala dute.

Baina kritika ez da ohartu oraindik Peru Abarkaren emazteak ere Marixe izena duela (eta ez dut uste kasualitatea denik: Peru eta Marixe *Peru Abarkako* senar-emazte!).

Herri ipuinetako matrimonio axolakabe, arlote, zurruteroak ez duen sendotasun ideologikoa eman nahi dio Mogelek Basarteko bikoteari, Basarteko Peru eta Marixek osatzen duten bikote berria *eredu* izan dadin. Herri ipuinetako pertsonaia *gatz-gabe* berak dira Mogelek hautatu dituenak ere, baina, ideologiaren galbahean iragazirik, lustre berriz duindu ditu: galbaheketan *osatu nahi litzatekeen gizon euskaldunak* baztertu beharreko osagarriak kendu dira (alferkeria, zurruta, liskarra, hizkera narratsa...) eta berriak erantsi (fedea, oreka, bizitza bertutetsua, euskara garbia...). Ezjakinetik ikasira dagoen bidea eginak dira Mogelen pertsonaiak.

Mogelek *hil* egin behar zituen herri ipuinetako Peru eta Marixe, eta berriak sortu. Ni nago Mogel baliatu egin dela, Cervantes zaldun-nobelez bezala, herri-ipuinetako pertsonaia arloteen esistentziaz, bere neurriko euskalduna osatzeko. Mogelen Peru eta Marixek ez daukate deus herri literaturako Peru eta Marixerenetik. Hizkera bera ere desberdina dute, eta Peru zurruteroak nekez ulertuko lioke Basarteko Peru katedratikoari darabilen erretolika...

6

Oroimena nork bere neurrira josten duen kapa izaki, begira dezadan berriro neure haurtzarora. Oso garbi ikus dezaket euskaraz bakarrik dakien haur hura. Mundu oso-osoa du eszenategi. Garden daukat gaztelania ikasi berri duen haurraren isla ere. Bi eszenategi ditu, hizkuntzen arabera markatuak: ordu arteko mundu bera —etxea, lagunak, herria— eta letraren bidez manifestatzen zaion mundu exotikoa —eskola, liburuak, zinea—. Orain eszenategi bakar bat eta gero bi, ez daukat koszientziarik haur hark bizi izandako aldaketaz, aldaketaren prozeduraz eta prozeduraren denboraz. *Río* eta *ría* berezten dituzte don Antonio maisuak eta naturak, haurrak ordurarte *erriyua* ikusten zuen tokian. Bi hitzak, *río* eta *ría*, idatziko ditu don Antoniok pizarran. Haurraren *erriyuak* ez dauka pizarririk.

Osaba-izebak ditut Azkoitian, eta Oriotik Azkoitiara joan nintzen behin oporrak pasatzera. Bazkaltzen ari ginela, izebak postre garaian: —Anjel, txermenik nahi? Nik, ezetz. Gero, nire lehengusuak-eta postrea jaten ikusi nitueanean, gogoratu nintzen, asko gustatzen zaizkidala udareak.

Hamaika urte bete berri, etxetik irten, eta Seminariora noa. Joseba izeneko mutil bat ezagutuko dut hara iritsi helduko. Aurkezpenak egin ditugu gaztelaniaz. —Me llamo Angel. —Yo, Joseba. —¿Joseba? ¿Qué nombre es ése? —José, en vasco. —¿José, en vasco? Pero ¿José no es, pues, Jose en vasco?. Gogoratzen dudan nire lehen galdera esplizittoa da eszenategiez. Euskararen eszenategia menostua eta hautsez betea dago ordurako. Gaztelaniak dauka kulturaren lustre osoa. Familia eta lagunak nituen euskararen erreferentzia. Orain, ordea, gaztelaniaz mintzatzen naiz lagun berriekin. Etxean ere ama irudika dezaket nik bidaltzen dizkiodan gutunak irakurritz. *Querida madre*.

Hona oroitzapenok hemen gogoratu izanaren arrazoiak: bi hizkuntzen eszenategiak desberdinak dira, eta hizkuntza bakoitzak ere eszenategi ugariak ditu. Gorabehera amankomun asko dituzte elkarren artean, dudarik ez dago horretaz, baina eszenategi bakoitzak bere logika propioa du, bere amaraun propioa josten du.

7

Lizardik *Barne-muinetan* argitaratu zuenean, eten handia eragin zuen euskal poetikan. Bai hizkerak eta baita gai lirikoak garatzeko manera poetikoak ere ez dute zerikusirik aurreko poesiarekin. Etendura baino gehiago, amildegia egon zitekeen obraren eta irakurlearen artean. Baina, paradoxikoa badirudi ere, ni nago orduko irakurleak arazo handiagoak izan zituela hizkerarekin, Lizardiren poesiak ekarri zuen talaia-aldaketarekin baino.

Zein da, funtsean, Lizardiren orijinaltasuna? Lizardik guztiz desberdin diren bi gora-behera, europarra eta euskalduna, uztartu nahi zituen. Orixek bezala. Baina Lizardik tradizio europar garaikidea ekarri nahi izan zuen, eta tradizio horrek konotazio jakinak ditu (abangoardia, profanoa, begiak eta bihotzaren uztarketa, halako plastikotasun sentibera transmititu nahia...).

Orixek edaten duen tradizioa, berriz, ez da garaikidea. Atzera begiratzen du, eta, poesia mistikoaren tradizioarekin bat eginik, hango gaien alderdi intelektualenak ekartzen ditu, eta sentzualenak baztertzen. Orixeren garaian poesia katolikoak garrantzi eta ospe handia zuen, gogoratu besterik ez dago Paul Claudel-en *L'annonce faite à Marie* entzutetsua, eta poesia mistikoa sinbolismoaren hainbat alderdirekin uztartu zuena. Orixeren heziketa literarioa, ordea, oso bestelakoa zen, eta klasikotasunaren zentzu estatiko eternala zuen. Horregatik jo zuen, poesia mistiko garaikidearekin konprometitu ordez, San Juan de La Cruz-en balore seguruetara.

Lizardik zein Orixek euskaraz ez dauden bi poesia-mota garatzen dituzte. Eta darabilten hizkera literarioa? Lizardik baino errazago zeukan Orixek: San Juan de La Cruz-ek poesia herrikoira jo zuen, eta Orixek ere gertu zeukan gure kantutegi, balada, marijesien mundua batetik, eta eliz-giroko poesia eta kantutegiaren tradizio zabala bestetik.

Lizardik antolatu nahi duen poesiak ez dauka gertuan eredu poetikorik, baina zarauztarra ez da hutsetik hasten, askok pentsatu izan duen bezala. Espainiako poeta garaikideek hamazazpigarren mendera, barrokora, jo zuten bezalatsu egin zuen Lizardik ere, eta Oihenarteren hainbat ekarri poetiko bereganatu zuen: aditz trinkoa, hiperbatona, metro laburrak...

Labur adierazteko: idazle guztiok jotzen dugu, bakoitzak bere ezagupideen neurrian eta apeten arabera, tradizioa, baina tradizioaz egiten dugun hautamenak berezten gaitu, anitza baita tradizioa.

Idazle batzuk motz geratzen dira ahaleginean. Badakizue Lizardirengatik esaten dena: Lizardi, mon petit poète: Rimbaud etorri duk hitaz galdezka...

Hitz horiek adierazten ez dituzten beste kezka batzuk bizi zituen, ordea, Lizardik:

“Guk badakigu idazle errazak, olerkari errazak, gure aldean *publico* handia dutena; gure bakartasunean otzan-otzan etsitzen dugun ezker, zer dela eta zuek guri harrika?”. Eta aurreraxeago: “Baina elerti-gaietan ez da biderik zuzenena, norbere zale eta joeratik aterata ibilaraztea”.

Gordin esan beharra dago: ezin dira erritmo, neurri eta arnasa guztiz desberdinetako bi tradizio parez pare jarri. Talaiaren arazoa da.

Lizardiren kasuan, gainera, idazle bati estimatzen zaion gora-behera garrantzitsu bat dago, eta guztiz nirea egiten dudana, bai hizkera poetikoari dagokionez, baita materia poetikoari berari dagokionez ere: tentsioa. Idazlearen gogoak *aitzina, beti aitzina!* egin nahi luke, baina esku artean daukadan baliapide poetiko landu gabeen errealitateak ukalondotik oratzen dit, esanez bezala: hi, amigo, ez al hoa urrutiegi?

Pozik nengoke tentsio horixe nabarmenduko balitzaie gure literatur lanei: tentsioa hizkerarekin, tentsioa kontagaiarekin, idazleok tradizio zabal baten, tradizio horri eman nahi geniokeen etorkizunaren eta irakurleen artean soka batez marraturiko triangeluaren ertzak bat egin nahirik gabiltzan txerpolari baikara bokazioz.

8

Idazten hasi nintzenean, haritz, lizar eta pagoez beterik zegoen nire literatura. Lizardiren sagasti berri, sagasti zuriek halako ukitu piktoriko bat eskaintzen zioten euskal baso klasikoari. Mikel Lasak, berriz, bere haurtzaroko tamariza eta pikondoak desagertu direla oharturik, *gure denbora hunen desolamendua!* kantatzen zidan. Gabriel Arestiren *Maldan beheraren* ondorengo paisaia urbanoan ez neukan arbolarik. Deskrubritzeke (entitate poetikorik gabe, alegia) zeuden (eta daude) artelatzak, olibondoak, mahastiak, kainaberadiak...

Horrelakoxeak dira idazleok literaturaren zelaian dauzkagun aukerak: daukagunaren inguru-mariko glosa egitea, falta zaigunari arnasa ematea, edo, erre-

ferentzia multzo izugarri hori itogarrizat harturik, hortik ihes egin, eta euskal basoari su ematea. Ez dago besterik. Oso sinplea dirudi, baina zelai labur horretan dauzka idazle batek bere aukera guztiak.

Horixe da nire eremua ere: ez dut haritzez eta pagoez hitz egin nahi, zinez estimatzen dut Lizardiren sagastiek ekarri zuten aldaketa imaginarioa, tamarizen faltak adierazten duen hartzaro galduak bizi nau zuetariko asko bezala, eta ez daukat basoari su emateko bokaziorik. Nire poetikaren ardatz bihurtu ordez, erabili egiten dut basoa: ekintzen eszenategi soila da batzuetan, gertakizunen mezulari edo iragarle da bestetuetan, deskribapenei kolorea emateko elementua gehienetan... Eta izena jenerikoa du beti arbolen multzoak: basoa. Basoko argi xehetuak erakartzen nau. Adar artetik iragazten den lanbroak. Orbelaren hots hezeak... Horrekin guztiarekin akzio jakin baten giroketa lortu nahi nuke. Tradizioa neureganatzeko manera da.

Hizkera narratzaileari buruz, berriz, zer esan? Egiteko asko daukat. Ez ditut Tartas, Joanategi eta beste hainbat behar bezala ezagutzen. Seguru nago Tartaserenean aurkituko dudala esaldi bat baino gehiagoren antolamendu berririk. Egingo huke Joanategik badituela interesatzen zaizkidan parrafo-hastapen interesgari bat baino gehiago. Orain arte ez nuen, aitor dut, Duvoisin-en *Baigorriko zazpi liliak* ezagutzen. Egun hauetan irakurri ahal izan dut folio solteetan, eta parrafo ordenamenduari buruzko hainbat ohar jaso dut. Horretaz gainera, orain badakit hartzak nola galdu zuen buztana, badakit animaliek noiz galdu zuten hizketerako dohaina. Badakit azeriari ezagutzen nizkion hainbat izenez gainera (Luki, Luki Barrabasa, Axarko...) Iparraldeko tradizioan Borjatto ere deitzen ziotela. Eta orain ezagutu egiten dut, halaber, *Xerezaderengandik* edo Bocaccio-ren *Decameron*-etik datorkigun aitzakia baten inguruko ipuin bilketaren euskal testigantza bat gehiago: zazpi ahizpa ederrek ipuin bana kontatu beharko dute Baigorriko herriko jaunaren dotea nork jasoko...

9

Literaturak artifizioa du oro. Baita herrikoitasunaren sustrai herrikoenetan jasotako totem literario herrikoienak berak ere. Txiritak, gai serio bat kantatzen duenean, halako goi-sena batez janzten ditu bertsoak, garaiko hitz kultoak-eta bertsoetan tartekatuz. Gaurko bertsolari gazteak errejistro herrikoien bila ibiltzen dira, eta badakite hainbat girotan Txiritra bera baino askoz ere jatorrago izaten. Ilustreen kongresu batean, berriz, berehala adieraziko dizute, halaber, berak ere ikasiak, eta filologoak, eta ilustreak direla.

Eta herrikoitasunaren altxor eta gordailu izan nahi zuen *Euskaldunak* poeman Orixek honelako perlak sartzen dizkigu etengabe: "Tximist-ostotsez, erakus, Jauna, gure Sinai-mendi hontan, bakar zerala Jainko". Aurreraxeago: "Bebil, inguru, lur biribilla gaiztoz ta gaitzez naasirik. Gurutz-oineko Bildots-alboan zora bage egon nai dut nik, eguna sortzen den aldera".

10

Lapurdiko *Aitak eman daut dotea* kantu jostaria baliatu nuen *Otto Pette* nobelan Jonaneren eta Errondalen izua azpimarratzeko. Errondalek azpilik aurkitzen ez dion xalotasun batez hasi da Jonane kantari:

Aitak eman dit dotea
neurea, neurea:
Urdeño bat bere umekin,
oilo koloka bere txitoekin,
tipula gorda guzti haiekin.

“Jonanek maiz kantatzen zuen —jarraitzen du testuak— haurretako jolas hura. Haur taldeko bik beren eskuez zubi baten moduko arkuak osatzen zuten, gainerantzekoak, makurturik, arkupetik pasa zitezten; arkuak osatzen zutenek bakarrik ezagutzen zuten kantuko hitz seinalaturen bat esan arte ibiltzen ginen haurretan, harik eta hitz seinalatuarekin batera arkupean egokitua preso gelditzen zen arte, arkuak osatzen zutenen beso artean.

»O-tso-o-oak jan daut urdea,
neurea, neurea...

»*Otsoa* hitz ezkutua esan orduko, Jonanek bi besoak bizkar gainetik pasatu, eta preso hartu ninduen. Musu eman zidan ezpainetan.

»Nik, musuari erantzun ordez, Jonane ikusi nuen zure borrhoroen atzapurretan...”

Izuaren atari gisa erabili nuen nik, bada, Leon Barbier-ek Azkueri festagiroko kantu moduan eman ziona, gauza jakina baita egunerokotasunaren erraietan bazkatzen dela izua:

Otsoak jan daut urdea,
neurea, neurea, azeriak oilo koroka,
arratoin batek tipula korda,
adios, neure dotea!
adios, neure dotea!

11

Tradizio jakin bat tradizio jakin batetik. Ez dugu gure tradizioarekiko axolarik izan, eta, gainera, ia hizkuntzurtz utzi gintuzten haurtzaroan. Horregatik egiten zait beharrezkoa nire tradizioaren ezagutza, horrela bakarrik zorrotzuko baitut nire trepeta literarioa. Horrek ez dit, ordea, nire zereginaren beharra ezkututzen: albokoek zer egiten duten begiratu, eta aurrera egiteko naiz katea luze baten katanbegi.

Literatur tradizio oro apokrifoa da (baina ez iruzurra), eta giza errealitatearen interpretapen desberdinen biltoki da mendez mende eraiki den jauregi literarioa.

Eta hor, jauregi literatio eder horretan, neuk ere, ahal dudantxoan, literatura erantsi nahi nioke literaturari.

IV. HERRI LITERATURA JARDUNALDIAK

ONDORIOAK

Paremiologia gaitzat hartuta Euskaltzaindiak bere egin dituen Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak amaitzerakoan, Jardunaldiok antolatu dituen Herri Literatura azpibatzerdeak, ondorio hauek ateratzen ditu ekinbide honen azken une honetan:

1. Azpibatzerde honen helburu nagusia herriliteraturako alderdi desberdinak ikertzea denez, eta mundu honetako teoria eta praxia sustatzea, bete-betean esan daiteke Jardunaldiok emaitza berezia eskuratu dutela taldearen helburua bete dadin.

2. Kanpoko jende espezialduen ekarria, oraingoan ere, garrantzizkoa izan da, guretzat osabide ezin-utzizkoa. Informazio ugaria emateaz gainera, metodologia zehatzak eta aberasgarriak aurkeztu dizkigute, eta ikuspegi berriagoak eskaini, guretzat lagungarri estimatzekoak. Gure eskerrona ikerle horientzat.

3. Bestalde, euskal unibertsitateko departamentuetan ari direnen ekarria ere aipagarria eta eskertzekoa da zinez, alderdi oso desberdinak eskaini dizkigutenez: euskal munduko informazioa, bilketa lana eta konparaketa beste hizkuntzetako paremiekin, alderdi linguistikoak, sozioalinguistikoak, etnografikoak eta etnologikoak, literarioak eta abar.

Beraz, euskal paremiologian azken urteotan egin den berrikuntza eta aurrerapena uka ezina eskaini zaigu, agian oraindik sakondu beharrekoa, batez ere gainerako jende espezialduen eginiko lana gurearekin erkatzean.

4. Ikuspegi berriak agertu zaizkigu, bai ikerketa aldetik, bai zabalkunde eta dibulgazio aldetik, bai praxi literario baten aldetik. Eta honenbestez azpibatzerdeak hornituztat ematen ditu bere helburuak.

5. Jardunaldiak Durangoko egin izanak esanahi berezia bereganatzen dutela aitortzen dugu. Eta bereziki Jardunaldiak, *Refranes* y *Sentencias* liburuaren lehenengo argitalpenaren (1596) IV. mendeurrenean, eta Euskaltzaindiaren lehen euskalegunen 75. urteurrenean egin izana, orduko ikerlarien eta gaurkoen arteko lotura azpimarratzen dugularik. Eta, bide batez, Jardunaldiak egiteko eskaini zaigun laguntza eskertu nahi genioke batez ere bertako Udal eta "Cafés Baqué" enpresari.

6. Jardunaldiotako hitzaldi eta txosten guztiak 1996 urteari dagokion *Euskera* aldizkariaren azken alean argitaratuko dira.

7. Azkenik, gure eskerrik beroenak Jardunaldiotan azaldu zareten guztioi, eta denon artean emango ahal ditugu ezinbesteko zaizkigun aurrerapausuak. Honelako nahikundez amaitzen ditugu Herri Literaturaren IV. Jardunaldiok.

Durango, 1996-XII-07

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

64

HIZTEGI BATUA

epai - erretratu

- epai
 epaiketa
 epail *Heg h. martxo*
 epaile
 epaimahai
 epaimahaiburu
 epaimahaiko iz
 epaitegi
 epaitu, epai(tu), epaitzen
 epe
 epeka
 epel
 epeldu, epel(du), epeltzen
 epeltasun
 eper
 eperki
 eperkume
 epifania
 epika
 epiko
 epistola
 epopcia
 epotx* c. ipotx
 era
 era berean
 erako (izond: *aziendentzat txit leku ona eta erakoa*)
 erara (adlag: *nire gogamenak erara eta egoki adieraztea*)
 craz (adlag: *auzotegi honetako baserritarrak nahikoa eraz eta polito bizi ziren*)
 erabaki 1 erabaki, erabakitzen ad
 erabaki 2 iz
 erabakiarazi, erabakiaraz, erabakiarazten
 erabakigarri
 erabakior* c. erabakigarri
 erabakitzaille
 erabakizun
 erabat
 erabateko
 eraberritu, eraberrri, eraberritzen
 eraberritze
 erabide
 erabilaldi
 erabilarazi, erabilaraz, erabilarazten

erabilera
 erabilerraz
 erabilgaitz
 erabilgarri
 erabilgarritasun
 erabili, erabil, erabiltzen
 erabilpen h. erabilera
 erabiltzaile
 eradoski, eradoski, eradoskitzen
 eragabe
 eragabekeria
 eragabeki
 eragaitz 1 iz. 'zailtasun, eragozpen': *bi eragaitz aurkitzen dizkiot nik gaztelaniari neurtitzerako;*
 2 izond
 eragiketa
 eragile
 eragin 1 eragin, eragiten, *du/dio ad : hotzak dardara eragiten du; gizon batengan eragin nahi izan*
zuen ezbehar eta okerragatik; motorrak eragiten dio ardatzari
 eragin 2 iz
 eraginarazi, eraginaraz, eraginarazten
 eragingarri
 eraginkor
 eragite = eragin 2
 eragon *Bizk: lanari daragoio, 'lancan ari da'*
 eragotzi, eragotz, eragozten: 1 *Ipar, zah. 'egotzi'; 2 Heg 'debekatu'. Objektua aditza dencan: argia*
ikustea eragozten didatenak; 3 erdarazko molestar, deranger: eragozten dizu hain berandu
deitzeak?
 eragozgarri
 eragozle
 eragozpen 'lanak': *barka eragozpenak*
 eragozpide
 eraiki, eraiki, eraikitzen
 eraikiarazi, eraikiaraz, eraikiarazten
 eraikin
 eraikitzaile
 eraikuntza
 erail, erail, erailtzen, *du ad*
 eraile
 erailketa
 eraitsarazi, eraitsaraz, eraitsarazten
 eraitsi, eraits, eraisten: 'jaitsarazi, bota': *agintedunak eraisten ditu beren aukietatik*
 erakargarri
 erakarmen
 erakarpen
 erakarrarazi, erakarraraz, erakarrarazten
 erakarri, erakar, erakartzen
 erakatsi *Ipar h. irakatsi*
 eraketa
 erakunde
 erakusbide
 erakusgai
 erakusgarri 1 iz: *orduko hizkuntzaren erakusgarri zenbait; 2 izond: hau bai amodiozko proba era-*
kusgarria
 erakusketa
 erakusle
 erakusleiho
 erakusmahai
 erakusmen

erakuspen
 erakustaldi
 erakustareto
 erakustazoka
 erakuste: *erakuste oneko liburuak*
 erakustoki
 erakutsarazi, erakutsaraz, erakutsarazten
 erakutsi 1 erakuts, erakusten ad
 erakustera eman: *biziki maite nauela erakustera eman dit*
 erakutsi 2 iz: *ez duzu nire erakutsien beharrik*
 eraldatu, eralda(tu), eraldatzen
 eraldatze: *egurraren eraldatze-prozesuak*
 eralgi, eralgi, eralgitzen: *dirutza handia eralgi zuen*
 eralgiarazi, eralgiazez, eralgiazezten
 eralki, eralki, eralkitzen h. **bahetu**
 eramaile
 eraman, eraman, eramaten
 aitzina eraman
 atoian eraman
 atxilo eraman
 aurrera eraman
 gogoan eraman
 gaizki eraman
 eramanarazi, eramanaraz, eramanarazten
 eramangaitz
 eramangarri: *askoren artean banatu da karga, eramangarriago gerta dadin; lanpa eramangarria, konputagailu eramangarria*
 eramankizun iz 'sufrimendu'
 eramankor: *onginahi eta amodio egiazkoa eramankorra da*
 eransgarri
 eranskailu
 eranskin
 eranskor
 erantsi, erants, eransten
 erantzi, erantz, erantzten
 erantzuera h. **erantzun 2**
 erantzuki 'Norbaiti bere hutsa, hobena edo gaizki egina aurpegira botatzea edo gaitzestea': *norbaitek erantzuki hau egin dio Euskaltzaindiari: espainol gisa jokatu duela*
 erantzukizun = **erantzunbehar**
 erantzule
 erantzun 1 erantzun, erantzuten ad
 erantzun 2 iz
 erantzunarazi, erantzunaraz, erantzunarazten
 erantzunbehar = **erantzukizun**
 erantzupen h. **erantzun 2**
 erasan, erasan, erasaten, *dio* ad: 1'craso, eragin': *eguzkiak erasan dio; gure herriek biziro erasan zioten; 2 'esazarazi'; 3 Naf 'curia egin': berandu arte erasan du; erasaten badu, elurra eginen du*
 erasi, eras, erasten. Batez ere *Ipar* 'hitz egin, murmurikatu'. Batez ere forma trinkoetan
 erasia iz
 erasian
 erasiaka
 erasiatu, erasia(tu), erasiatzen *Ipar* 'errieta egin'
 eraskin* c. **eranskin**
 craskor* c. **eranskor**
 eraso 1 eraso, erasotzen ad
 eraso 2 iz
 erasoaldi

erasoka
 eraspen 'debozioa'
 eratorbide
 eratorpen
 eratorri, erator, eratorzen
 eratu, era(tu), eratzen
 eratziki, eratziki, eratzikitzen
 eratzan Liter 'etzanarazi'
 erauntsi 1 eraunts, eraunsten. Batez ere forma trinkoetan eta *dio* ad: *ateak ateari darauntsanean*
 erauntsi 2 iz
 erauntzi *Ipar* h. erantzi
 erausi 1 ad; g. er.; 2 iz da gaur batez ere
 erauzi, erauz, erauzten
 erauzketa gaur 'ateratze', etab
 erazagutu, erazagut, erazagutzen. Jas, Liter 'ezagutarazi'
 erazi* e. arazi
 eraztun
 erbatz batez ere *Bizk*: *erbatza bezain latza da; zuk horretaz ez dakizu erbatzik ere*
 erbeste
 erbestera, erbestera(tu), erbesterazen
 erbestera: *hainbat erbesterazeren ondorioz, beldurgarriki urritu zen irlandarren kopurua*
 erbestetar
 erbi
 erbikume
 erbinude
 erdaldun
 erdaldundu, erdaldun(du), erdalduntzen
 erdalkeria
 erdaltzale
 erdaltzaletasun
 erdaltzaletu, erdaltzale(tu), erdaltzaletzen
 erdara *erdal* forma dagokio hitz-elkarketako lehen osagai dencan
 erdarakada
 erdaratu, erdara(tu), erdaratzen
 erdeinatu, erdeina, erdeinatzen
 erdeinu
 erdera* e. erdara
 erdi 1
 erdi bana
 erdi bi egin
 erditik egin
 erdiz erdi
 Erdi Aro
 erdi maila
 erdi lo
 erdi 2 erdi, erditzen, *da* ad: *seme batez erdi zen*
 erdialde
 erdibanatu
 erdibide
 erdibideko
 erdibitu, erdibi, erdibitzen
 erdibitzaille
 erdietsi, erdiets, erdiesten
 erdigune
 erdikari
 erdikide
 erdimin
 erdipurdi

erdiragarri

erdiratu, erdira(tu), erdiratzen: 1 lehen *du* ad 'erdibitu, hautsi' batez ere *bihotza erdiratu* esapidean erabilia; 2 *da/du* ad 'erdian jarri, erdira eraman, bota': *baloia erdiratu zuen*

erdotsu: *erdotsuan utzi dute; oren erdotsu baten buruan etorriko da*

erditu, erdi, erditzen, *da* ad: *alaba batez erditu zen*

erditze

erdiuharte = penintsula

erdizka

erdizkatu, erdizka(tu), erdizkatzen

erdu *Bizk*: *erdu nire Aitaren bedeinkatuok* = 'zatoz(te)'

ere: *guk ere (bai); etxea ere; gaur ere; esan ere; batez ere; hala ere; *ere bai; *ere ez*

eredu**ereduzko****eredugarri**

eregi *Bizk* h. *craiki*

ereile

erein, erein, ereiten

ereinaldi**ereintza**

ereman* *Ipar* e. *eraman*

eremu**eremutar****ereserki****eresi****eretze(e)****ergatibo****ergel**

ergeldu, ergel(du), ergeltzen

ergelkeria**ergeltasun****ergji**

eri 1 'hatz'; 2 'gaixo'

erialdi**erietxe****erikor**

eriondo: *eriondoa ospitalean eman zuen*

eritasun**eritegi**

eritu, eri(tu), eritzen: 'gaixotu'

eritzi* e. *iritzi*

erizain**erizaindegi****erizaintza**

erizantza* e. *erizaintza*

erizpide* e. *irizpide*

erkatu, erka, erkatzen

erkatz *Ipar* h. *erratz*

erkide 1 iz 'partaide, bazkide'; 2 izond = **komun**

erkidego**erkin**

erkindu, erkin(du), erkintzen

erlakume* e. *erlekume*

erlastu, erlats, erlasten

erlategi**erlatibitate****erlatibo****erlauntz**

erlauntza* e. *erlauntz*

erlazain* e. erlezain
 erlazantza* e. erlezaintza
 erlazio
 erlazonatu, erlazona, erlazonatzen
 erlazkuntza* e. erle-hazkuntza
 erle
 erle-hazkuntza
 erlekume
 erlezain
 erlezaintza
 erliebe
 erlijio
 erlijioso
 erlijiozko
 erlikia
 erlisione *Ipar* h. erlijio
 erloi* e. erloju
 erlojari* e. erlojugile, erloju-konpontzaile, erloju-saltzaile
 erloju
 erloju-denda, erloju denda
 erloju-konpontzaile, erloju konpontzaile
 erloju-saltzaile, erloju saltzaile
 erlojugile
 erlojugintza
 erlojutegi
 ermita
 ermitatxo
 ermitau
 ernaberritu, ernaberi, ernaberritzen
 ernagarri
 ernai *ernai egon* esapidetan erabilia, batez ere
 ernalarazi, ernalaraz, ernalarazten
 ernaldu, ernai, ernaltzen
 ernalketa
 ernamuin
 ernarazi, ernaraz, ernarazten
 ernari
 ernatu, ernai, ernatzen
 erne 1 izond eta adlag
 erne 2 erne, emetzen ad
 ernearazi, ernearaz, ernearazten
 ernegarazi, ernegaraz, ernegarazten
 ernegatu, ernega, ernegatzen
 ernegazio
 ernegu
 ernetasun
 ero 1 izond eta iz
 ero 2 ero, eraiten, *du ad zah.* Ik **hil**, **erail**
 eroaldi
 eroale Fis
 eroan, eroan, eroaten. 1 Batez ere *Bizk* eta *Zub*: ik **eraman**; 2 Fis: *beroa eroan*; *elektroiak eroan*
 eroapen
 croetxe
 erokeria
 erorarazi, eroraraz, erorarazten
 erorbide
 erori, eror, erortzen
 erorialdi

eroriko
 erorka
 erorketa h. eroriko
 erorkor: *hosto erorkorra*
 erorkortasun
 erortoki
 erortze
 erosi, eros, erosten
 erosketa
 erosle
 eroso
 erosokeria
 erosotasun
 erospen
 erosta
 erostari
 erostun
 erotu, ero(tu), erotzen
 erpe
 erpin
 erpuru
 errabia
 errabiagarri
 errabiatu, errabia(tu), errabiatzen
 errada* e. edarra
 erradiadore
 erradiazio
 erradikal
 erradio
 erradioaktibitate
 erradioaktibo
 erradiografia
 errai plur 'gorputzaren bularralde eta sabelaldeko barne-organoak'
 errail
 errain 1 'semearen emaztea'
 errain 2 *lpar* 'giltzurruna'
 errainu
 errakuntza
 erralde
 erraldoi
 erramu 'ereinotza'
 erran, erran, erraten
 errape
 erratu, erra, erratzen
 erratz
 erraustu, errauts, errausten
 errauts
 erraz
 errazional* e. arrazional
 errazki
 erraztasun
 erraztu, erraz(tu), errazten
 erraztun* e. eraztun
 erre, erre, erretzen
 erreaktibo
 erreakzio
 erreal iz 'txanpona'
 errealdi

errealismo
errealista
errealitate
errearazi, errearaz, errearazten
errebal
errebelatu, errebela, errebelatzen: 1 Batez ere *Ipar* 'galdu, bidetik atera': *ardi errebelatuak; Parisko*
karriketan errebelaturik; 2 'argazkiak errebelatu'; erlijioan: *Jainkoak elizari errebelatu dizkion*
egiak
erreberentzia
erreberritu, erreberri, erreberritzen *Ipar* h. **berritu**
errebess
errebista h. 1 ikuskapen; 2 aldizkaria
errebolber
errebolta
erreboluzio h. iraultza; bira, itzulia
errebote
errediza h. altzari
errefain* e. atsotitz
errefau *Raphanus sativus*
errefera *Ipar* 'pilota-jokoan sakea edo botea itzultzea'
erreferatu, errefera(tu), erreferatzen *Ipar*
erreferentzia
erreflexio* e. 1 gogoeta, hausnarketa; 2 Fis islapen
erreflexu
erreforma
errefrau h. atsotitz
errefusatu, errefusa, errefusatzten
erregai
erregaitz
erregalatu, erregala, erregalatzten *herr, Heg;* h. **opari** egin
erregalu *herr, Heg;* h. **opari**
erregarri: *sukar erregarria; egia, askoren erregarria*
errege
errege bide, errege-bide
errege-erreginak: *Espainiako errege-erreginak etorri dira*
erregealdi
erregagai
erregego 'erregetza, erregetasun'
erregela
erregelamendu *Ipar* h. **araudi, arautegi**
erregelatu, erregela(tu), erregelatzten h. **arautu**
erregorde
erregetasun
erregetiar: *euskaldun erregetiar eta bonapartetiarrak*
erregetu, errege(tu), erregetzen
erregetxo
erregetza
erregezko: *erregezkoak, aitoren semeak eta herri xehea*
erregina
errege-erreginak
erreginagai
erregu 1 eskaria, otoitza
erreguka
erregu 2 'neurria': *bi erregu bihi*
erregular: *aditz erregular, poligono erregular*
erregutu, erregu(tu), erregutzten
errein* e. errain
erreinaldi

erreinatu, erreina, erreinatzen

erreinu

erreka

erreka jo

errekaitatu, errekaita, errekaitatzen. *Ipar*, zah. h. 1 bildu; 2 zaindu, artatu

errekaitu *Ipar* 1 'arta'; 2 'erreminta'

errekaratu, errekara, errekaratzen, *Ipar* h. erreka jo: *etxea errekaratu zaio*

errekasto

errekatxo

erreketa

erreki

errekina

errekora

errekordun

errektore 'hezkuntza sistemakoa'

erremate 1 *herr*, *Heg*; 'azkena, bukaera': *erremate txarra eraman = fin gaizto egin*; 2 'enkantea'

errematean atera

errematean ipini

errematea egin

errematera atera

erremediatu, erremedia, erremediatzen

erremedio

errementaldegi h. errementeria, aroztegi

errementari

errementeria

erreminta = lanabes

erremolatxa *Heg Beta vulgaris*

erremusina *Ipar*, zah. h. amoina, limosna

erremuskada *Bizk* h. purrustada

erren* e. errain

errendarazi, errendaraz, errendarazten

errendatu, errenda, errendatzen

errendimendu

errenditu, errendi, errenditzen

errenkada

errenta

errenteria

errentero *Heg* h. maizter

erreparatu, errepara, erreparatzen: 1 *Ipar* 'ordaindu, osatu': *egin kalteak erreparatu*; 2 *Heg* 'ohartu, hauteman': *errepara iezaiozu haur horren ibilerari*

erreparo *herr*, *Heg*

errepide

errepika

errepikapen

errepikarazi, errepikaraz, errepikarazten

errepikatu, errepika(tu), errepikatzen

errepikatzailer

errepira *Ipar*

errepresentatu* e. antzeztu, irudikatu, ordezkatu; adierazi, etab

errepublika

errepublikano

errepublikazale

erres askotan ez-sing 'bahia, bermea'

erresa 'zahi-mota berezia edo zahi-hondakina'

erresaka

erresalbu

erreserba

erresiñol h. urretxindor

erresinul* e. erresiñol
 erresistentzia
 erreskada h. errenkada
 errespetagarri
 errespetagarritasun
 errespetarazi, errespetaraz, errespetarazten
 errespetatu, errespeta, errespetatzen
 errespetu
 errespotsu
 erresuma
 erresumin
 erretaula
 erretegi
 erreten
 erreteila 'teilatutako konpontzea'
 erretilu
 erretiratu, erretira, erretiratzen
 erretiro
 erretiroa hartu
 erretoki
 erretolika
 erretor* e. erretore
 erretore 'parrokiako arduradun nagusia'
 erretoretza
 erretorgo *Ipar* h. erretoretza
 erretorika cf erretolika
 erretoriko: *ez dago hor sasi-galdera erretorikoa baizik*
 erretiratu Batez *erc Heg: 1 'argazkia'; 2 'giza irudia'*

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1996ko azaroaren 29an onartua)

65

HIZTEGI BATUA

erretreta - esplotazio

erretreta

erretxin izond: *agure erretxina*erretxina iz: *pinuaren erretxina*

erretzaile

erretze

erreuma

erreus 'akastuna': *arkume erreusa etxean jan ohi dugu, ez baita on ez saltzeko ez aurrerako; zuk batutako intxaurretatik erdiak baino gehiago erreusak ziren*

erreximenta 'marmelada moduko janaria'

errexin* e. erretxina

errezatu, erreza, errezatzen, *Heg*

errezel

errezelo 1 'susmoa': *banuen horren errezeloa; 2 Ipar 'akatsa'*

errezeta

errezibitu, errezibi, errezibitzen

errezoz *Heg*

erribera

errirent *Ipar 'eskola-maisua'*errirentsa *Ipar 'eskola-maistra'*

errieta

errieta egin

errieta eman

errima

erriro *Bizk*errinozero *Rhinoceros*

erritmo

errito

erro

erroak egin

errotik atera

errotik maite

erroz gora

errodura

erroi *Corvus corax*

erroitx

erroitxu, erroitz, erroitzen; g. cr. h. **amildu**

erroketa

errokizun

errola: *biztanle-errola*

Erromako zubi

erromania *Ipar h. erromero*

erromaniko

erromantiko
 erromantizismo
 erromantze
 erromeria
 erromero 1 'landarea' *Rosmarinus officinalis*; 2 'arraina' *Remora*
 erromes 1 'pelegrina'; 2 'pobrea'
 erromesaldi
 erromeskeria
 erromestasun
 erromestu, erromes(tu), erromesten
 erronbiko
 erronbo
 erronboedro
 erronda
 erronka *Heg* cf *herronka*
 erronka jo
 erronka bota
 erronka egin
*erropa** e. arropa
 errore Mat
 errota 1 'eihera'; 2 'gurpila'; 3 'paparoa'
 errotari
 errotarri
 errotazain
 erroti(ka)ko
 errotu, erro(tu), errotzen
 erru
 errudun
 erruduntasun
 errugabe
 errugabetasun
 errugbi
 errugbilari
 errukarri
 erruki
 erruki-ctxe
 erruki izan
 errukigabe
 errukior
 errukitasun
 errukitsu
 errukitu, erruki(tu), errukitzen
 errumes* e. erromes
 errun, errun, erruten
 errunaldi
 errute
 erruz
 ertain
 erten* e. irten
 erti
 ertigintza
 ertilari
 ertz 1
 ertz 2* e. ertz(e)
 ertzain
 ertzaingoa* e. ertzaintza
 ertzaintza
 esaera

esacra zahar
esaka: *ongi esaka, gaizki esaka*
esakune Bizk 'esacra'
esakuntza
esaldi
esale
esamesa
esan
esanahi
esannahitsu
esaneko
esaneקותasun
esanezin
esangin Bizk 'esaneko'
esangura
esanguratsu
esankizun
esapide
esatari
esate
 esate baterako
 esaterako
esateke
esateko
eseki, eseki, esekitzen
esentzia
eserarazi, esereraz, esererazten
eseri, eser, esertzen
eserialdi
eserleku
esertoki
esetsaldi
esetsi 1 ad; 2 iz
esfera
esferaerdi
esferiko
eskabide
eskaera
eskailburu h. **eskailera-buru**
eskailera
 eskailera-buru
eskaini, eskain, eskaintzen
eskainka
eskaintza
eskakizun
eskala
eskalada
eskalapoi
eskalapoin* e. **eskalapoi**
eskale
eskalera* e. **eskailera**
eskaletasun
eskandalu
eskaner
eskapada egin
eskapatu, eskapa, eskapatzen, h. ihes egin
eskapulario
eskaratz* e. **ezkaratz**

eskarazi, eskaraz, eskarazten

eskari

eskarmentatu, eskarmenta, eskarmentatzen *herr*

eskarmentu

eskarniatu, eskarnia, eskarniatzen *Ipar*

eskarnio

eskarnio egin *Ipar*

eskarola

eskas 1 *Ipar* iz 'eza': *lo-eskasa*; 2 izond 'bere mailara iristen ez dena, betea ez dena'

eskas izan 'falta izan, ez aski izan': *ura eskas dute*

eskasia 1 'gabezia'; 2 'urritasuna, aski ez izatea': *ur-eskasiak eragindako galerak*

eskastasun

eskastu, eskas(tu), eskasten, *zaio* ad

eskatima 'liskarra'

eskatu, eska, eskatzen

eskatzaile: *laguntza eskatzaile, laguntza-eskatzaile*

eskaut

eske

eskean

eskez: *besteren eskez egin du*

eskegi, eskegi, eskegitzen *Bizk*, -eseki-

eskeko

eskeleto

eskema

esker

esker on(eko)

esker gaizto(ko)

esker txar(reko)

-ri esker: *bizi banaiz, zuri esker bizi naiz*

eskerrak: a) *eskerrak zure laguntzari!*; b) *eskerrak ez dela etorri, eskerrak etorri ez den*

eskerrak eman

eskerrak bihurtu

eskerrik asko

mila esker

eskerga

eskergabe

eskergabekeria

eskergaitz

eskertu, esker(tu), eskertzen: *eskertzekoa da zure ahalegina*

eski

eskiatu, eskia, eskiatzen

eskiatzaile

eskilara* e. eskailera

eskizofrenia

esklabo

esklabotasun

eskola

eskola etxe, eskola-etxe

eskola ume, eskola-ume

eskolagabe

eskolastiko

eskolatu, eskola(tu), eskolatzen

eskolau -meza laguntzaile-

eskolaurre

eskolazain

eskoletxe* e. eskola-etxe

eskopeta

eskopetagile

eskorga**eskorta****eskribau****eskribautza****eskribitu, eskribi, eskribitzen, h. idatzi****eskritura****esku****esku bete:** *esku bete lan***esku eman:** *elkarri esku emanez***eskuz esku****esku hartu****esku-hartz****esku-hartzail****esku sartu****esku-sartz****esku-zarta** 'txaloa'**esku-zartaka** 'txaloka'**-ren esku egon****esku-huska(ko)****esku-hutsik****eskura (izan, egon, eduki)****eskura eman****eskura ordaindu****eskutik:** *etsaien eskutik galdu du bizia***eskutik eraman****eskutik eskura****eskubakar****eskumotz****esku-erakutsi****eskuaira****eskuaira** *Ipar* 'trebetasuna'**eskualdatu, eskualda, eskualdatzen****eskualdatze****eskualde****eskualdekatu, eskualdeka, eskualdekatzen****eskualdekatze****eskualdi** 1 'karta jokoan, jokaldia'; 2 *pintura eskualdi bat eman***eskuare****eskuarki****eskuarte** 'baliabideak': *bizitzeko adina eskuarte ez zaie faltako***eskuarteko** iz 'diru xehea'**eskubi*** e. eskuin**eskubide****eskubila*** e. eskuila**eskudantzia** *Jas* 1 'ausardia'; 2 'boterea'**eskudel****eskudun****eskuera****eskueran izan****eskueran eduki****eskuetaratu, eskuetara, eskuetaratzen****eskugain** *Ipar* 1 'eskuarte, baliabideak': *gurasoek eskugain zerbait bazuten*; 2 'abantaila': *beste edozein mintzairaren aldean zer eskugaina duen euskarak***eskui*** e. eskuin**eskuila****eskuilatu, eskuila(tu), eskuilatzen**

eskuin

ezker-eskuin
ezker eta eskuin

eskuinalde**eskuindar****eskuizkribu****eskukada** h. eskutada**eskukaldi** 1 'esku ukaldia'; 2 'laguntza'**eskuko:** *ni neure eskuko naiz***eskulan****eskulangile****eskulangintza****eskularru****eskuleku** = eskutoki**eskuliburu****eskultore****eskultura****eskuma** *Bizk.* h. eskuin**eskumakila:** *guztien nagusi beharra, guztien eskumakila eta morroin gertatu zen***eskumen****eskumikatu,** eskumika, eskumikatzen**eskumiku****eskumuin** Batez ere plur *Heg* = goraintzi

eskumuinak eman, egin

eskumutur**eskumuturreko****eskuoihal****eskupe:** *bere eskupe edo agindura dauden guztiak; handikien eskupetik herria atera zenean; berak ezetz esango du, baina eskupetik laguntzen die***eskupeko:** *eskupekotzat hamar pezetako bat eskaini zion mutikoari; eskupekoa eman zion***eskuperatu,** eskupera, eskuperatzen**eskuraezin****eskuragaitz****eskurakoi****eskuratu,** eskura(tu), eskuratzen**eskuratze****eskusoinu****eskutada****eskutitz****eskutoki** = eskuleku**eskutrapu****eskutur** *Bizk.* h. eskumutur**eskutzar****eskuzabal****eskuzapi****eskuzatar****eskuzerra****eskuzorro****eskuztatu,** eskuzta, eskuztatzen**eskuztatze****esleipen****esleitu,** eslei, esleitzen**esna** 'lo hartu gabe egon'**esnarazi,** esnaraz, esnarazten**esnatu,** esna(tu), esnatzen. Batez ere *Gip* 'iratzarri'**esne**

esne belar, esne-belar *Euphorbia*

esne denda, esne-denda

esne gauza, esne-gauza
 esne jaki, esne-jaki
 esne hauts, esne-hauts
 esne zopa, esne-zopa
 esne tela, esne-tela
 esneko hortz

esnedun 1 'esnea duena'; 2 'esneketaria'

esnegain

esneketari 'esne banatzailca, esne-banatzailca'

esneki

esnetegi = esne denda, esne-denda

esnetsu

esnezale 1 'esnea maite duena'; 2 'esneketaria'

espa

espageti

espal 'azaoa'

espaloi

espantagarri 'harrigarria'

espantatu, espanta, espantatzen, 'harritu'

espantu

espantu egin

espantuka

esparadrapu* e. esparatrapu

esparatrapu

esparrago h. zainzuri, frantses(-)porru

esparru

espartin

espartzu

espatsu

espazial

espazio

espedizio

espektro

espeleologia

esperanto

esperantza

esperantzetan egon, izan: 'haurdun egon'

esperientzia

esperimental

esperimentatu, esperimenta, esperimentatzen

esperimentu

espero

espero izan: *denek espero zuten txapeldun izatera iritsiko zela*

esperoan (egon)

espetxe = kartzela, presondegia

espetxealdi

espetxeratu, espetxera, espetxeretzen

espetxezain

espezialista

espezializatu, espezializa, espezializatzen

espezic

espezifikoa

espiritu

Espiritu Santu

espirituz

espirituzko

espiritual

esplikatu, esplika, esplikatzen

esplikazio
esplizitu
esplotatu h. leher egin; ustiatu, etab
esplotazio h. ustiapen

(Euskaltzaindiak, Azkoitian, 1996ko abenduaren 20an onartua)

BATZAR AGIRIAK

Gasteizen, 1996ko irailaren 27an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Charriton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
Sarasola, I.
Satrustegi, J.M.
Villasante, L.
Lizundia, J.L., idazkariordea
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Gasteizko udaletxean, 1996ko irailaren 27an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren euskaltzainak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute Miren Azkaratek eta Juan San Martinek.

Agiriak

Uztaileko bi agiriak onartu dira, Charriton, Davant, Irigoyen eta Oihartzabal jaun-en oharrak jaso ondoren.

Hiztegi Batua

Diapositiba-dotrina hitz saila, uztailean banatua, eztabaidatu da egungo batzarrean. Pello Salaburu mintzatu da batzordearen izenean lehenik, baina gero, beste batzar batera joan behar izan duenez, Ibon Sarasolak hartu du eginkizun hori. E. Knörrek igorriko oharrak, berandu iritsi zirenak, sartu dira batzar karpetan.

Batzordeak eztabaidarako utzi *diligentzia / dilijentzia* auziak denbora luzea eraman du. Lehenbiziko formaren alde agertu dira zenbait euskaltzain (Kintana eta Knörr, besteak beste), horrelako hitzak *g* letraz idatzi behar direla esanez, non ez diren mailegu zaharrak. Aldiz, I. Sarasolak *j* letra defendatu du eta ahoskera alderdiak aipatu. Gaia orokorra denez gero, espreski ikertzea erabaki da. Beste ohar batzuk ez dira onartu. Adibidez, *diosal* izango da sarrera, ez *diosala*; *diti* eta *ditare*, ez *t-*. Azken bi hitz haue-taz bozketa izan da eta batzordearen proposamena nagusitu. *Dona* ez da agertuko zerrandan, bozketa ere horrela erabakirik. Onetsi da, berriz, *diskurtso* zerrendatik kentzea eta *dostatu* aipatzea, “hobe: *jostatu*” adieraziz.

Hiztegi batuko batzordeak erabakitzeke utziriko *doktrina / dotrina* bikotearen gainean luzaz eztabaidatu da. Beti *dotrina* idaztea eskatu du E. Knörrek bere oharretan. X. Kintanaren iritziz, *doktrina* hobetsi beharko litzateke. J.M. Satrustegirentzat, kultismoengatik ezin bazter daiteke euskararen ondarea. P. Goenaga eta beste euskaltzain batzuk Satrustegi jaunaren iritzikide azaldu dira. Azkenean, bozketen bidez bi idazkerak, *doktrina / dotrina*, onartu dira, esanahia bereizi gabe.

Halaber eztabaidarako ekarri den *doan / dohainik* pareta izan da minutu anitzetako mintzagaia. *Doan* “bizkaiera” markaz agertzea zen E. Knörren proposamena, eta *do-*

hainik forma orokor gisa. Ildo beretik mintzatu da X. Kintana. J. Haritschelharrek eta Tx. Peillenek ere *dohainik* aldeztu dute. I. Sarasolak ukatu du *dohainik* formaren indarra, eta J.M. Satrustegik esan du hobe zela biak uztea. P. Goenagak galdetu du zein izango den *dohainik* formari dagokion izenondoa. Hau izan da erabakia, inor aurka azaldu ez delarik: *doan / dohainik*, batetik, eta, bestetik, izenondoa oraingoz *doako* bakarrik.

Hurrengo hitz saila, *dozena-entzutetsu*, banatu da egun. Oharrak urriaren 8rako behar dira igorri, hileko batzarra 18an izango baita.

Onomastika zerrendak

“Mundu zabaleko uharteak”, “Bibliako izen ohikoenak” eta “Greziako izen klasiko batzuk”, uztailako batzarrean aurkeztu zirenak, geroko utzi dira. Gai hauen gainean, Ibon Sarasola kezkatu agertu da, ezen Euskara Batuko batzordeak ez ditu aztertu zerrenda hauek, eta lana multzokatzen da. Euskaltzaindiak erabakizun premiatsu asko (esaterako, *guzti / guzi*) dituela esanez bukatu ditu bere hitzak.

J. Haritschelharrek esan du Onomastika batzordeari dagokiola zerrenda horiek batzarrera aurkeztea, salbu izen bereziak ez direnean (*uharte / irla*, adibidez). E. Knörr Onomastika batzordeburuak esan du orain arteko zerrenda guztiak Euskara Batuko batzordera pasa direla, osoko batzarrera aurkeztu baino lehen, eta elkarlanaren alde mintzatu da, Akademia bat eta bakarra baita, eta berdin hizkuntza. J.L.Lizundiak, lankidetzaren beharra azpimarratu ondoren, ponte izenei buruz erabakiak hartzeak presa gorria duela esan du.

A. Irigoyenek “Bibliako izen ohikoenak” eta “Greziako izen klasiko batzuk” txostenez berak egindako oharrak aipatu ditu. Gainera, esan du, ponte izenak direla eta, udal errodari begiratu behar zaiola. J.L. Lizundiak eskatu du oinarritzko materialaren eta material osagarriaren artean bereiztea, eta fotokopiatzeak dakazkien xahupenez gogoeta egitea.

X. Kintanak Hebreeraren Akademiatik hartu duen gutuna, osoko batzarraren karpetan sartua, azaldu du laburki. Izen judu batzuek, Kintana jaunaren ustez, bi forma izan litzakete, hala nola *Isaak* eta *Yitzak*.

Eskuarteoak

Hurrengo batzarra Tolosako udaletxean, urriaren 18an, izango dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Jose Ariztimuño “Aitzol” idazle eta euskaltzalearen sortzearen mendeurrenkari eta heriotzaren 60. urteurrenkari egingo da hiri horretan. Jagon sailaren Jardunaldiak 18an eta 19an izango direla esan du berebat J. Haritschelharrek. Gai honen haritik, P. Charrittonnek esan du P. Andiazabalek Ariztimuñoek Lafitteri idatziriko gutun batzuk aurkitu dituela. Tolosan berri ematea eskatuko zaio Andiazabal jaunari.

Urte bukaerari begira Euskaltzaindiaren diru egoeraz egin dute gero agerpena J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomia eragileak. J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren artean goizean sinaturiko hitzarmena aipatu du ondoren. Hitzarmenaren testua eskuratu dute euskaltzainek. 1996ko urtean 8.000.000 pezeta ja-

soko du Akademiak, hizkuntzaren esparruan udalarentzat egin eta egingo diren zerbitzuen ordain. Hauen artean izango da udalbarruti osoko toponimia azterketa, batzorde-lanaren zuzendaritzapena, lantalde baten laguntza.

J.A. Arana Martija jaunaren zahar-saritzeagatik Azkue Liburutegian gertatu den hutsunea betetzeko deialdi publikoa egingo da. Epaimahaia J. San Martin, J.A. Arana, P. Altuna, E. Knörr euskaltzainek eta J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak osatzea proposatu du euskaltzainburuak. Horrela erabaki da aho batez.

Azken ordukoak

P. Charritonek Jagon sailak antolatu dituen Jardunaldiei buruz hitz egin du. Xarles Videgainen artikulu bat aipatu du eta Tolosako Jardunaldietan sar litekeenez galdetu. Bestalde, Euskaltzaindiak euskararen jagote eremu horretan gehiago egin lezakeela esan du. E. Knörrrek erantzun du Jagon sailburua batzarrean ez delarik hobe puntu horiek harekin mintzatzea. Nolanahi ere den, esan du Tolosako egitaraua aspaldi hetsi zela. Bestalde, oroitarazi du azken urteotan Akademiak jagote eremuan burutu lana, bai eta Iparraldean ere, eztei zibiletako testuen alde, adibidez. Bukatu du esanez Euskaltzaindiak bakarrik inola ere ezin duela lan astun hori aurrera eraman eta agintariei dagokiela gehienbat eginkizuna.

X. Kintanak Michel Malherbe irakaslearen *Les langages de l'Humanité* izeneko liburuan (Paris, Robert Laffont, 1995) huts asko direla, eta ez guti euskarari eskainitako atalean, esan du. Kintana jaunaren arabera, gutun bat idatzi beharko litzaioke egileari. Idazkariak erantzun du gutunak baino aise egokiagoak direla aldizkari berezitueta agitaratzen diren kritikak.

A. Irigoyenek Euskaltzaindiari egin gutuna banatu da, Jose Luis Lizundiak Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian abuztuaren 21ean argitaratu zuen artiku baten ganean. Irigoyen jaunak dio egunkari horren bidez jakin zuela Euskaltzaindiak egin zuela International Congress of Onomastic Sciences delakoaren 1999ko biltzarra antolatzeke eskaria.

E. Knörr Onomastika batzordeburuak erantzun du Euskaltzaindiaren aurtengo otsail-leko batzar agiriaren pasarte bat, puntu horri dagokiona, irakurritz, hots, Akademiak eskari hori egitea eta Euskal Herriko Unibertsitateara jotzea, lankidetzeta bila, erabaki zen parrafoa. Esan du, gainera, euskaltzainek jakin behar dutela Alfonso Irigoyenek eta Ricardo Cierbidek asmo horren kontra hitz egin zutela elkargo horretan, Dieter Kremer buruzagitzakideak apirilaren 19an idatzi gutun batean ageri denez.

J.L. Lizundiak egunkarietan idazteko duen eskubidea defendatu du eta Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eskaria baztertzearan bortxa giroak izan zuen eragina berretsi, Aberdeen-en entzun ziren iritzia lekuko, deus ere kendu gabe biltzarren antolatzaile izendatu zen Santiagoren abantailei.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Tolosan, 1996ko urriaren 18an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.L.
 Diharce, X.
 Goenaga, P.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oihartzabal, B.
 Ondarra, P.
 Peillen, Tx.
 San Martin, J.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

forma gainerako erabileretako proposaturik. E. Larrereren aburuz, jende gehiena euskaraz jantzia ez izaki, hobe da bereizketa baztertzea. Bozketa egin da, bereizketa egin behar denentz, eta hau izan da emaitza:

bai	10 boto
ez	8
abstentzioa	2

B. Oihartzabalek honako hau ezartzea proposatu du ondoren: “*dotrina*, hobe *kristau ikasbide*” eta “*dotrina*, hobe *doktrina*”. Proposamen honek euskaltzain gehienek atxikimendua bildu du.

Egungo zerrendaren azalpen-egilea M. Azkarate izan da, P. Salabururen ordean. Batzordearen proposamenari zenbait aldaketa egin zaizkio.

Dragoi izan da eztabaidaturiko lehen hitza. Honek eta *herensuge*-k sarrera bana izatea erabaki da aho batez. *Drain* eta *drainatu* agertuko dira, E. Knörren proposamez. X. Kintanak eskaturiko *ebasko* eta *edaran ez*, *ebasgo* eta *eradan* erabaki da, testuetan duten pisua kontuan hartuz. *Edesti* hitzari dagokiola, X. Kintanak eta E. Knörrek “hobe

Tolosako udaletxean, 1996ko urriaren 18an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren kideak etorri direla. A. Irigoyen eta P. Salaburuk beren ezin etorria adierazi dute.

Agiria

Iraileko agiria onartu da, P. Goenagaren zuzenketa batekin.

Hizkuntz Arauak

Dozena-entzutetsu hitz saila aztertu da egungo batzarrean. Oharrak X. Kintanak, E. Knörrek eta P. Ondarrak igorri dituzte. Eztabaidan sartu baino lehen, ordea, irailako batzarrean erabaki gabe gelditu gai bat erabili da: *dotrina* / *doktrina*. P. Goenagak *dotrina* forma defendatu du, haren ustez bereizteko premiarik ez denez gero. X. Kintanak *dotrina* eraren alde hitz egin du. “katixima” esanahiarekin, *-k-dun* forma

historia” eranstea proposatu dute beren oharretan. Kintana jaunak Euskaltzaindiaren 1959ko erabakia ekarri du solasera. P. Goenagak esan du *edesti* hitzak ez duela zerrendan trabarik egiten. Bestalde, *hobe* eta antzekoak ongi azaltzea eskatu du. Kintana eta Knörrek proposaturikoa sartuko da.

Ediren eta *eriden* erabaki da, X. Kintanaren proposamenaren aurka. Aditz izena *edireten* ala *edireiten* izango denentz eztabaidatu da ondoren. B. Oihartzabalek aditz izenarentzako deribazio normala ematea eskatu du, irizpide orrokorrei jarraiki. Bide beretik mintzatu da I. Sarasola. Puntu honen gainean txosten bat aurkeztuko du batzordeak azaroko batzarrean. *Eduki* onartu da, *edukin*-en kaltetan. X. Kintanak iradokirik, eta *egin* sarreran izen kategoria ere adieraziko da. *Egoskor* sarrera dagoen dagoenean utziko da, nahiz esanahiak desberdinak izan. P. Ondarraren oharraren arabera, *egotez* forma sartuko da. *Egunoro* eskatu du E. Knörrek, ez *egunero*, baina batzordearen proposamena onartu da. *Ehizi* eta *ehizketa* kentzea erabaki da; *ihizi* bere tokian agertuko da. *Ehunki* hitzari “*hobe mende*” erantsiko zaio, X. Kintanak eskatu gisa. *Ekoitzi* izango da forma arautua, ez *ekoiztu*. *Enparantza* hitzaren ondoan “*hobe plaza*” ezartzea zen E. Knörren iritzia, eta hori izan da bozketaz erabakia, eztabaidaren ondoan.

Onomastikako zerrendak azaroko batzarrerako utzi dira.

Eskuartekoak

Euskaltzaindiak, Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz, antolatzen dituen literatur sarien epaimahaiak izendatu dira, era honetara:

Txomin Agirre eleberri saria: Xabier Gereño, Txomin Peillen, Ana Toledo.

Toribio Alzaga teatro saria: Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia poesia saria: Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan M. Lekuona.

Mikel Zarate saiakera saria: Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza, Alfonso Irigoyen.

Bestalde, Iruñeko udalak antolatu duen gazteentzako literatura sariketari Jose M. Sarrustegi izango da epaimahaikide, Euskaltzaindiaren izenean.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

AITZOLen mendeurrenaren agerizko bikura

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, idazkaria
 J.M., Lekuona, buruordea
 J.A. Arana Martija, diruzaina
 P. Charritton,
 J.L. Davant,
 X. Diharce,
 P. Goenaga,
 A. Irigoien,
 E. Larre,
 Tx. Peillen,
 J. San Martin,
 J.M. Satrustegi,
 L. Villasante, euskaltzainak
 X. Altzibar,
 J.M. Aranalde,
 G. Aulestia,
 J. Garmendia Larrañaga,
 A. Iñigo,
 J. Kortazar,
 J.L. Lizundia,
 L.M. Mujika,
 K. Otegi,
 P. Salaberri,
 A. Toledo,
 P. Urkizu, euskaltzain urgazleak

60. urteurrena betetzen den egunean, hain zuzen, nahi izan duela Akademiak Aitzol gogoratu, ospakizun honekin eta orain bi urte Bilbon, I. Jagon Jardunaldiak egin ziren bezalaxe, orain Tolosan eginez. Aitzoli buruzko zenbait aipamen eginaz, eskerrak bihurtzen dizkio Tolosako udalari, bere babesa eta harrera onagatik.

Ondoren, lau hitzaldi hauek ematen dira: Martin Ugalde ohorezko euskaltzainak, bere osasunagatik ezin etorria adieraziz, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak irakurtzen duelarik: "Aitzolen garaia" izeneko txostena igortzen du, urte haietako euskalgintzan zihardutenen izen eta lanak Aitzol ardatz hartuta; Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzain osoak: "Hiru aldiz ikusi dut Aitzol" izeneko txostena, benetan unkiagarria; Xabier Altzibar euskaltzain urgazle eta Literatura Ikerketa batzordekideak: "Aitzolen kazetaritza" izeneko ikerlan luze eta zehatza; eta Lourdes Otaegi Hernaniko Batxiler Institutuko eus-kara irakale katedradunak: "Aitzol euskalzalea" izeneko txoten jakingarria.

Jean Haritschelhar,
 euskaltzainburua

Endrike Knörr,
 idazkaria

Mahaipuruan eseri dira Antton Gonzalez Monfort, Tolosako alkateordea, zeren Jose Gurrutxaga alkate jauna Mexikon baita, eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Tolosako Antonio Maria Labaien kultur-etxean, 1996.eko urriaren 17an, arratsaldeko 7 eta erdietan

Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak bere ezin etorria adierazi du.

Antton Gonzalez Monfort alkateordeak bere ongi etorria ematen die bilduei, oso pozik hartzen duela Udalak Euskaltzaindia adieraziz Jose Ariztimuño "Aitzol" en mendeurrenkari, hileroko losoko bilkura eta Jagon Jardunaldiak hiri honetan egiteagatik.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak erantzuten dio poza Akademiarena berea dela, oroitaraziz Euskaltzaindiak ohitura duela, euskaltzale euskal idazle eta euskal ikerlariak beren sorterrian omentzekoa. Ohitura horri jarraiki Aitzolen mendeurrenaren karietarat, eta bere hilketaren

Bilbon, 1996ko azaroaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Diharce, X.
 Goenaga, P.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oihartzabal, B.
 Ondarra, P.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea
 Gorrotxategi, M., Onomastika batzorde-
 idazkaria, zegokion puntuan

eta jokatueta, nola eman behar diren eztabaidatzen du txostenak, adibidez, *ediren* eta *erran* aditzak: *edireten*, *erraten* ala *edireiten*, *erraiten*? Oraindainoko jokabidea jarraitzea proposatzen du testuak, hau da, euskara batuaren lege orokorretan sarraraztea. Txosten hori aho batez onartu da. Gai honekin loturik, eta P. Goenagaren eskariaren arabera, *Iparraldea, hobe* eta bestelako oharren esanahia zehaztuko da orri batean, Hiztegi Batuaren hastean tartekatuko dena.

Egungo hitz sortari buruz jaun hauek aurkeztu dituzte oharrak: P. Goenaga, X. Kintana, E. Knörr eta Tx. Peillenek.

Besteak beste direla, *erail* forma sartuko den ala ez, eta baiezkoan nola, eztabaidatu da luzaz. Azkenean, hitz berri hori bazterterik ez dela ikusi da. Ez da onartu X. Kintanaren proposamena, *erho* forma onar zedin, eta irizpide bera nagusitu da *eri* / *erhi*-ri buruz, hots, bi kasuetan ez da bereizteko premiarik ikusi. Bestalde, *erakutsi* izena ere dela adieraziko da. *Erla- / erle-* auzian, lehen forma aldeztu du Kintana jaunak, bere

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1996ko azaroaren 29an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute J.L. Davantek eta A. Zavalak.

Agiriak

Urriko bi agiriak onartu dira.

Dolumina

Gaietan sartu baino lehen, Jean Haritschalharrek B. Oihartzabalen aitaren heriotzaren berri eman du. Dolumina agertu dio zenduaren semeari gutzien izenean.

Hiztegi Batua

Epai-erretratu hitz saila aztertu da egungo batzarrean. Lehenik, ordea, "Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez" deritzan txostena, batzordeak onetsia, irakurri du Beñat Oihartzabalek. Euskalki hitzak euskara batura pasatzean, forma eratorrietan

oharretan idatzi bezala. M. Azkarateren egindako erantzuna banatu da, *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ageri diren datuetan oinarritua; datu horien arabera, *erle-* nagusi da konposizioan (*erlezain, erlekume*, e.a., eta *erla-* eratorpenean (*erladi, erlategi, erlauntz(a)*), e.a. Bi bozketa egin dira, bata *erlakume / erlekume* bikoteaz eta bestea *erlazain(tza) / erlezain(tza)*-z. Hauek izan dira emaitzak:

<i>erlakume</i>	6 boto
<i>erlekume</i>	12
abstentzioak	4
<i>erlazain(tza)</i>	4 boto
<i>erlezain(tza)</i>	13
abstentzioak	5

P. Goenagak proposaturik, *ernegu* eta *erreteila* hitzak sartuko dira. Batzordeak eztabaidarako utzi duen *erregalo / -u* bikotearen gainean hitz egin da eta *erregalu* hobestea aho batez onartu. Tx. Peillenek proposaturikoen arteik ere batzuk onartu ditu batzordeak eta egungo osoko batzarrak berretsi, hala nola *eriondo, ernetasun, erokeria* eta *errealidi*.

Abenduan aztertuko den *erretreta-esplotazio* saila banatu da. Oharrak abenduaren 10erako bidali behar dira Euskaltzaindira.

Santutegiko izen ohikoenak

Hurrengo, E. Knörr Onomastika batzordeburuak eta M. Gorrotxategi batzorde-idazkariak azaldu dute *Hiazinto - Zuria* bitarteko zerrenda, aurtengo ekainez gero erabakizun. Zerrendaren osagarri zenbait material banatu da.

P. Salaburuk, Euskara Batuko batzordearen izenean, eskatu du izendegi hau proposatzeko erabili diren irizpideak ekar daitezen, eta zerrendaren eta materialaren arteko kontraesanen bat edo beste adierazi. B. Oihartzabalek santuen izenak eta pertsonaia historikoen izenak bereiztea eskatu du. E. Knörrek erantzun du batzordea prest dagoela irizpide multzoa ekartzeko. Hala ere, kexu agertu da zerrenda hau onartzean gertatu diren atzerapenengatik. Bestalde, santuen izenak eta pertsonaia historikoen izenak %90tan berdinak direla argitu du. J. Haritschelhar euskaltzainburuak ere oroitarazi du aspaldi dagoela zerrenda hau erabakiaren zain.

Batzordeak irizpideak aurkeztea erabaki da.

1997ko batzar egutegia

Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak 1997ko batzar egutegia aurkeztu du. Ohiz kanpoko hiru ospakizun aipatu ditu: Polikarpo Iraizoz euskaltzainaren (1897-1971) mendeurrenkari egingo den batzarra, Ultzaman, martxoan; Antoine d'Abbadieren omeneko XV. Biltzarra, Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak antolatua, Hendaian, iraillean, eta Federiko Krutwigen omenaldia, Bilbon, azaroan. Euskaltzaindiaren X. Barne jardunaldiak martxoko batzarrarekin batera egingo dira.

Eskuartekoak

J. Haritschelhar euskaltzainburuak Zuzendaritzak Espainiako Hezkuntza ministro andrea den Esperanza Aguirreri urriaren 30ean egindako bisitaren berri eman du. Elkarriketa atsegina gertatu zen. Akademiaren lana azaldu zion Haritschelhar jaunak Aguirre andreari, orobat lan hori aurrera eramateko diru gehiagoren beharra. Ministroak 1997ko aurrekontuan igoera handi bat izango dela esan zuen, orain arteko kopuruaren aldean. Igoera hori lortzeko J.J. Gonzalez Txabarri diputatuaren ahaleginak aipatu zituen Aguirre andreak.

Eusko Alderdi Jeltzaleak gonbitarurik, atzo bilkura bat izan zela esan du berebat J. Haritschelharrek. Sabin Etxea deritzanean izan zen bilkura hori. Alderdiaren burua den Xabier Arzalluz, hiru burukide eta Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kultur diputatua izan ziren EAJren izenean, eta Zuzendaritza osoa Euskaltzaindiarenean.

Euskaltzaindiaren aurrekontua izan zen elkarriketaren gai nagusia.

Donostiako Udalak azaroaren 11an hartu zuen erabakia azaldu du ondoren Lizundia jaunak. Euskaltzaindiaren eskaria ontzat emanez, toki bat eman zaio Akademiari Fermin Calbeton kalean. *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren lantegia kokatuko da han. Gela bat izango da, gainera, beste egistamo batzuen batzarrak egiteko.

Azkenik, Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak gogorarazi ditu idazkariordeak. Parremiologia izango dute ardatz, *Refranes y sentencias* liburuaren laugarren mendeurrenkari. Durangoko historia museoa egingo dira.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Euskaltzaindiko karguak hautatzeko bilkura berezia

Eguneko aztergaietan agertzen zen bezala, 1996.eko azaroaren 29an, eguerdiko ordu batean bildu dira Bilbon Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan P. Altuna, J.A. Arana Martija, M. Azkarate, P. Charriton, X. Diarce, P. Goenaga, J. Haritschelhar, A. Irigoien, X. Kintana, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, J.M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, J.M. Satrustegi, L. Villasante eta P. Zabaleta euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea, erakundeko karguak aukeratzea helburu. Jarraikook euren egonezagatik ahala utzi dute beste euskaltzain baturengan, hots: I. Sarasola, P. Salabururengan, J.L. Davantek, E. Larrerengan eta A. Zavalak, J.M. Lekuonarengan, Mahaiburuan, F. Krutwig, aintzinakotasunez euskaltzainik zaharrena, eta, azkenik sarturikoa, idazkari euskaltzaina kagu baterako aurkezten delako, X. Kintana, azken aurretik sarturikoa, idazkari gisa jarri dira, J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea laguntzaile izanik.

Hitz batzuk egiten ditu hasieran J. Haritschelhar jaunak. Zuzendaritzarako bere proposamena aurkeztu du, hots, burutzarako bera; buruordetzarako E. Knörr; idazkaritzarako P. Goenaga, eta diruzaintzarako, J.A. Arana Martija. Ondoren, bere esker ona agertu dio J.M. Lejonari, azken zazpi urteetan ederki bete baitu bere lana. Jarrai lezan nahiko lukeela esan du, baina Lekuona jaunak beste kargualdirik ez izateko gogoia adierazio zion aspaldi.

A. Irigoienek bere burua aurkeztu du kargu guztietarako, diruzaintzarako izan ezin.

Euskaltzainburu kargurako bozketa egin ondoren, emaitza hauek lortu dira: J. Haritschelhar jaunak 18 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto; zuri, 4 boto. Ondorioz J. Haritschelhar gelditzen da izendaturik bi urterako.

Ondoren, euskaltzainburuorde kargurako bozketa egin da, honako emaitza hauekin: E. Knörr jaunak 16 boto; P. Goenaga jaunak 3 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto; zuri, 3 boto. Beraz, E. Knörr hautagai jauna izendatu da urte birako.

Hirugarren bozketa idazkari kargurako egin da, ondorio hauekin: P. Goenaga jaunak 22 boto; A. Irigoien jaunak 2 boto. Hortaz, P. Goenaga gelditu da izendaturik.

Azken bozketa diruzaintzarako izan da, hortik atera diren emaitzak honako hauek izanik: J.A. Arana Martija jaunak 22 boto; zuri, 2 boto. Ondorioz, kandidatua kargu honetarako izendatu da bi urterako.

Bozketak egin eta gero, F. Krutwig jaunak euskaltzain bilduen aurrean emaitzak ofizialki aldakarrikatu eta hautatuei zorionak eman dizkie, bere karguan arrakasta opatuz.

Besterik gabe, bilera amaitu da.

Azkoitian, 1996ko abenduaren 20an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
E. Knörr, euskaltzainburuordea
P. Goenaga, idazkaria
J.A. Arana, diruzaina
P. Altuna
M. Azkarate
P. Charritton
J.L. Davant
X. Kintana
F. Krutwig
E. Larre
J.M. Lekuona
B. Oihartzabal
F. Ondarra
J. San Martin
I. Sarasola
J.M. Satrustegi
L. Villasante
eta
J. L. Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea
J.J. Zearreta,
ekonomi eragilea
eta
M. Gorrotxategi, Onomastika
batzorde idazkaria (1.1. gaiari)

Azkoitian, Udaletxe batzar aretoan, 1996ko abenduaren 20an, goizeko 10ak eta 25 direla, eman zaitzazue hasiera Euskaltzaindiaren hileroko bilkurari. Ondoko zutabearen aipatzen diren kideak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute Tx. Peillen eta P. Salaburu euskaltzainek.

Aurreko agiriak onartzea

Azaroko bilkura ohikoaren agiririari ohar bat egin zaitzazue: *eraill* hitza dela eta, aditza hori bere horretan onartu zela adierazi da, zer litzatekeen hobe eta horrelakorik gehitu gabe. Agirian hala agertuko da, hortaz.

Kargu berritzeko bilkura bereziaren agirian ere ohartxo bat egin da. J. M. Lekuonari buruorde gisa zazpi urte egotzen zaizkio agirian. Zazpi urte ez ezik zortzi ere bete dituela eginbehar horrena, eta agirian hala adieraztea erabaki da.

Euskaltzainburuaren hasiera hitzak

a. A. Irigoienek heriotza ezustekoa aipatu du lehendabizi eta honek sortu duen samina eta dolua. Hileta elizkizunetan Euskaltzaindiak ere parte hartu nahi izan zuela esan du eta, hala, hamabost euskaltzain oso, hogeita hamaika urgazle eta bi ohorezko izan zirela Lekeitioko hiletetan.

Hurrengo bilerarako X. Kintanaren eta F. Krutwig-en artean prestatuko dute Irigoien zenaren nekrologia.

Heriotza honek Euskaltzaindian hutsune bat sortu du. Arautegiaren 33. artikulua arabera, hutsune hori hornitzeko proposamenak datozen bi batzarretan (urtarrilekoan eta

otsailekoan) aurkeztu ahal izango dituzte euskaltzainek. Hautatzea, berriz, martxoko bazarrean egingo da.

Hautaketa hau dela eta, M. Azkaratek esan du hautagaiak aurkezten hasi baino lehen on litzatekeela euskaltzainon artean zerbait hitzegitea. I. Sarasolak galdegin du ea hautagaiak bizkaitarra izan behar duen. Onartutako arautegi berriaren arabera, edozein euskalkitakoa izan daitekeela erantzun zaio, dagoeneko hiru bizkaitar bai baitira Euskaltzaindian. P. Altunak dioenez, hori horrela bada, are beharrezkoago egiten da M. Azkaratek egindako eskaria onartzea. Eta hala egin da. Datorren hileko bileran egin daiteke elkarrizketa hori, euskaltzainek jadanik hautagaiak aurkezteko duten eskubidea gorabehera.

Ondoren, J. San Martinek hartu du hitza eta "bizkaitarra" esaten denean, hori hizkuntz alderditik interpretatu behar dela argitu nahi izan du. Honen haritik, berari dagoen aspaldiko kontu bat atera du: bera ez zen Akesoloren ordezkari izan hautatua, J. A. Aranaren sarrera-hitzaldian baieztatzen denaren kontra. Kontu horrek hainbat kalte eta eragozpen sortzen omen dizkio eta Euskaltzaindiari oker hori zuzentzeko eskatu dio. Aranak onartu du okerra. J. San Martinek, euskaltzain oso izendatua izan zenean, ez zuen Akesolo jaunak libre utzitako aulkia bete, honen hutsunea geroago gertatu baitzen. Hain zuzen, euskaltzainen kopurua hemezortzitik hogeita laura igo zenean, aulki berria estreinatua zuela San Martin jaunak. Honenbestez, San Martin jaunak dio aski litzatekeela agiri batean behar bezala jasotzea eskatu duen zuzenketa. Horrenbestez, agiri honetan jasoa gelditi bedi Akesolo jaunak utzitako aulkia J. M. Barandiaranek bete zuela eta J. San Martinek aulki berria hartu zuela.

b. Ondoren, Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie euskaltzainei azken hauteskundeetan zuzendari talde berriari eman zaion konfidantzagatik. Euskaltzaindia, eskuartearen dituen lan eta asmoetarako behar dituen baliabideak ziurtatzen saiatuko dela esan du. Hori dela eta, Fundazio bat sortu nahi litzateke. Sanchez Asiain BBV Fundazioko buruarekin izandako elkarrizketa aipatu du. Nolanahi ere, datozen bi urteotan helburu hori betetzea lortzen bada, gauzak ez direla gaizki izango esan du.

c. Espainiako Senatuan ere onartze bidean da ehun mila diru laguntza. Gonzalez de Txabari eta Madrilaren diharduten beste zenbait pertsonari esker gauzatuko da. Euskaltzaindiak denek bere esker ona adierazi nahi die.

Dirulaguntzen kontu honek hizpidea emanda, I. Sarasolak esan du erakunde baikoitzak, ematen duenaren arabera izango lukeela kontuak eskatzeko eskubidea era. Bestela egiteak denbora galtzea dakarrela. Kontu hau garbi utzi beharko litzateke. Adibidez, Madrilera dirulaguntza proiektu jakin batzuetarako izan liteke, euskal erakundeek hauen kontu eman beharrik izango ez litzatekeelarik. Nolanahi ere, gai hau sakonago eta lasaigo aztertu beharko litzatekeela esan da.

Hizkuntz arauak

1.1.1. Santutegiko izen ohikoenak finkatzeko irizpideak aurkeztea

X. Kintanak egin du irizpideen azalpena. Argitu nahi da zer den ponte izena, zer santu izena eta abar. Nolanahi ere, zerrenda osatzeko dago.

M. Azkaratek Euskara Batuko Batzordearen iritzia azaldu du: elizaren tradizioari eman behar zaio pisua, erdaren eragina gorabehera. Herrietako jaien izenak ere kontuan hartu beharra aipatu da, nahiz eta herri batetik bestera alde handia egon daitekeen. Puntu honetan bi maila berezi beharko lirateke: maila ofiziala eta herri maila, herri bakoitzean erabiltzen dena alegia. Hala ere, J. M. Satrustegiren arabera, herrietako erabilera guztiak ezin dira besterik gabe onartu. Adibidez, Iturmendin “Karmesak” esaten dute. “Santakitz” bezalakoak ere ba omen dira. Mailak daude, hortaz, eta erabilera guztiak ez dira baliagarri. Beste iturri batzuk ere aipatu ditu Lizundiak: kantak, atsotitzak eta abar. Tx. Peillenek hauetariko zenbait bilduak omen ditu.

Oharraur aurkezteko epea, urtarrilaren 20a da. “+” ikurra ezarri zaienak eztabaida sortzen dute eta eskatzen diren oharraur hauei buruzkoak izango dira batez ere. Dena den, oharraur irizpideen gainean zein zerrendako izenen gainean egin daitezke, eta bereziki “+” ikurra dutenen gainean.

1.1.2. Mundu zabaleko uharteen zerrenda aurkeztea

Zerrenda hau ere hurrengo bileran aztertzeko da. Baina hemen ere irizpideak argitu behar dira. Irizpide hauek hurrengo bileran aurkeztuko dira oraindik erabat landu gabe baitaude.

1.2.1. Hiztegi batuko *erretreta-esplotazio* bitarteko zerrenda onartzea

Hiru euskaltzainen oharraur jaso dira (X. Kintanarenak, E. Knörrenak eta Tx. Peillenenak).

E. Knörren oharraur aztertu dira eta honako aldaketak egingo zaizkio zerrendari: *errezatu* hitzari, Heg. marka gehituko zaio. *Errezo* hitzari ere, koherentziaz, “Heg.” ikurra gehituko zaio. *Errezelo/errezelu* eztabaidaz batzordea *-u*-dun forma onartzeko prest agertu da, baina bozkatu ondoren (*errezelo*-k 10 boto, *errezelu*-k 6, gehi bi boto zuri), *errezelo* forma onartzen da. *Errient* hitza sartzeara eskatu du Knörrek, baina aldaketa hau ez da onartu. Onartu da *errejent* hitza sartzeara, baina bigarren bueltan. *Errukari*, *errukiren* ondoan *urriki* ‘damu’ ere badela onartu da. Hitz hau dagokion lekuan eta garaian agertuko da. Oraingoz, hortaz, *erruki*-ren sarrera bere horretan utziko da. *Erten* sarrera ere onartu da “e. *irten*” gehiturik. *Erti* sarrera ere eztabaidan jartzen du Knörrek, Kintanak bezala. Eztabaidan J. San Martinek ere hartzen du parte. Azkenean, bozkatu egin da eta batzordearen proposamena bere hartan onartu da (10 boto, alde eta 7, kontra). *Esamina* sartzeko eskaera dela eta, eztabaidagarritzat eman da, baina hiztegian *etsamina* forma proposatuko denez, hitz honetara iristerakoan egingo da eztabaida hori. *Eskailarapeko* sarrera hurrengo bueltarako utzi da. *Eskukaldi* hitza sartzeara onartu da, honako bi adiera hauekin: *kolpe*, 2. *laguntza*. *Espantagarri* hitza sartzeara ere ontzat eman da baina ez “h. *harrigarri*” oharra.

Espiritu / *izpiritu* eztabaida Knörrek ez ezik Kintanak ere jasotzen du. Bataren eta bestearen aldeko arrazoiak pisatu ondoren, azkenean batzordearen proposamena onartu da. Horren arabera, *izpiritu* sarrerara iristerakoan, hitz honek “h. *espiritu*” oharra era-

mango du alboan. Proposamen honek 14 boto izan ditu alde eta 3 kontra. Beste boto bat zuria izan da.

X. Kintanak egindako proposamenetarik, gorago aipatuez hartutako erabakiez gainera, *esparrago* hitzari buruzkoa onartu da. Honela geldituko da sarrera: “esparrago h. zainzuri, frantses-porru nahiz frantses porru.” *Espezia* hitza, berriz, hurrengo bueltan sartuko litzateke.

Tx. Peillenen proposamenetatik *espal* hitza sartzea onartu da ‘azao’ esan nahi duela adieraziz. Gainerako proposamenetatik, honako hitz hauek hurrengo bueltarako utzi dira: *esgrima*, *eskoadrilla*, *eskuburdinak*, *esmalte* eta *esmeralda*.

1.2.2. Hiztegi batua: *esponja-expres*

Hurrengo bileran eztabaidatzeko, *esponja-expres* hitz zerrenda banatu da. Oharrak egiteko epea, ohi bezala, urtarrilaren 20a artekoa da.

2. IV. Herri Literatura Jardunaldien ondorioak

J. M. Lekuonak irakurri du *IV Herri Literatura Jardunaldiak. Ondorioak* izeneko txostena. Euskaltzainburuak jardunaldi hauen garrantzia eta adituen partehartzea azpimarratu ditu. E. Knörrek, berriz, Jardunaldi hauek eta Tolosako Jagonekoek behar baino jende gutxiago erakarri dutelakoan, hausnarketa egin beharra aipatu du. Lekuonak eskatzen den hausnarketa hau batzordean egingo dela adierazi du eta ateratzen diren ondorioak Euskaltzaindiari aurkeztuko zaizkiola.

3. Sailburuak eta ordezkariak izendatzea

Euskaltzainburuak zuzendaritzaren proposamena aurkeztu du, hots: B. Oihartzabal, *Iker* sailburu; M. Azkarate, *Jagon* sailburu.

Ordezkaritzetarako, honako hau izan da proposamena: P. Charritton, Baionarako; J. M. Lekuona, Donostiarako eta P. Goenaga, Gasteizerako. Iruñerako, J. M. Satrustegiri galdegin zaio ea onartuko duen ordezkari-tza hori. Honek ordezkari-tza erabat hustua dagoela esan du, lehengo hainbat eginkizun orain zuzendaritzatik zuzenean bideratzen baitira. Eginkizunak eta ardurak argitzen ez diren bitartean eta orain arte bezala jarraitze-kotan, beste norbait bilatzeko eskatu du. Gauzak horrela, hurrengo bileran egingo da Iruñeko ordezkari-tzarako proposamena.

HABE-ren patronatorako, M. Azkarateren izena proposatu da. Eusko Jaurlaritzaren Euskal Komunitateekiko Kanpo Harremanetako Kontseilurako Euskaltzaindiaren ordezkari gisa, E. Knörr. Herri Agintee-kiko Hitzarmenaren Jarraipen Batzorderako, J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria. Hauek boto eta guzti. Beste lau kideak honako hauek izatea proposatzen da: E. Knörr eta J. A. Arana, zuzendaritza taldekoak alde batetik eta, gehienetan ekonomi arazoez aritu beharra izaten denez, orain

arte Jagon eta Iker Sailburuek bete dituzten lekuak, J. L. Lizundiak eta J. J. Zearretak betetzea proposatu da.

Madrilgo Biblioteka Nazionalerako J. A. Aranaren izena proposatzen da.

Eta azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren jarraipen batzorderako, P. Goenaga eta J. A. Arana.

Baiespena eman zaio euskaltzainburuak aurkeztutako proposamen honi.

4. Eskuartekoak

a. *Azkue saria*. Epaimahairako iazko izen berak proposatu ditu Euskaltzainburuak eta hala onartu da.

b. Alfonso Irigoienek heriotza dela eta, hainbat pertsonak eta erakundek beren dolumina adierazi diote Euskaltzaindiari.

Azkoitian, 1996ko abenduaren 20an

Jose Inazio Aranaren mendeurrenaren ospakizun-batzar irekia

J. Haritschelhar
 E. Knörr
 P. Goenaga
 J. A. Arana
 P. Altuna
 P. Charriton
 X. Kintana
 F. Krutwig
 J. M. Lekuona
 B. Oihartzabal
 J. San Martin
 eta L. Villasante
 euskaltzainak
 eta X. Aranburu
 J. L. Lizundia
 eta J. J. Zearreta
 euskaltzain urgazleak

Azkoitian, Udaletxeko batzar aretoan, 1996ko abenduaren 20an, arratsaldeko 6etan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiak A. Jose Inazio Aranaren heriotzaren mendeurrena ospatzeko antolatu duen batzarri.

Mahaian Euskaltzainburuaz gainera, Azkoitiko alkate den Nerea Zubizarreta andrea eta Juan Bautista Mendizabal kultura zinegotzia eseri dira. Baita hitzaldiak eman behar dituzten Arana eta Altuna euskaltzainak ere.

Lehendabizi, herriko alkate andreak ongi etorria egin dio Euskaltzaindiari. Ekitaldia Azkoitiko herriak ohore handizat duela esan du eta hurrengoan ere Euskaltzaindiak atea zabalik izango dituela herri honetan.

Ondoren, euskaltzainburuak bildurikoak agurtu ditu, herri ordezkariak eta azkoitiar idazlea omentzeko bildutako gainerako entzule guziak.

Agur hauen ondoren, J. A. Aranak hartu du hitza *Jose Inazio Arana bibliografoa* izeneko txostena irakurtzeko. Hitzaldian garbi azaldu da Aranaren bibliografo alderdi hau.

Ondoren, P. Altuna, Jose Inazio Aranaren bizitzaz eta lanaz mintzatu da. Batez ere, haren egunkaritik jasotako zenbait berri eman ditu Altunak, haren bizitzaren argi-ilunak erakutsiz. Eta ez bakarrik haren bizitzari dagozkionak, baita haren garaiko zenbait eskalarirekin izandako harremanak ere.

Azkenik, alkate andreak, hasierako asmo on berberaz agurtu ditu bilduak eta ho-rrera, zazpi eta erdiak inguruan bilera amaitutzat eman da.

Jean Haritschelhar,
 euskaltzainburua

Patxi Goenaga,
 idazkaria

1997.URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Bilbo, 1996-XI-29

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea*

Urtero legez, lehendabizi Zuzendaritzakoei aurkeztu diet 1997.erako batzar egutegiaren proposamena. Horretarako euskal bibliografiari begirada bat eman diot ohi bezala, Jon Bilbaoren *Euskal Bibliografia*, gure *Euskera* agerkaria, Luis Villasante, Santi Onaindia eta besteren literatura historiak, entziklopediak eta abar.

Datorren urterako ez dut ikusi lehen mailako ospakizun bat besterik, hau da: **Antoine d'Abbadie** jaunaren heritozako mendeurrena. Horrez gain, guretzako gomutagarria da aita **Polikarpo Iraizoz** nafar euskaltzainaren jaiotzeko ehun urteburua. Euskaltzaindiaren barnean, bestalde, azaroaren 29an beteko dira 50 urte **Federiko Krutwig** euskaltzain oso izendatu zela, gutxik legez, urre ezteiak ospatuko dituelarik.

Antoine d'Abbadieren heritozako mendeurrena. Ez dut hemen bere biziuz luzapenik emango, bai ordea, eranskina ezarriko. Aspalditik Euskaltzaindiak erabakia du bere XIV. Biltzarra irailean antolatzea Eusko Ikaskuntzarekin batera. Abbadieren mendeurrenean parte hartuko dute beste zenbait erakundek ere. Irailean, baita ere, beteko dira 100 urte, Hegoaldean, eta, zehazki Arratiako urian, hots, Areatza/Villaron, Euskal Jaiak egin zirela. Euskaltzainburuaren ideia bat dakart hona eta hau da: Bilbao Bizkaia Kutzari datorren urteko bere poesiako lehiaketa, irailera aurreratzea.

Aita Polikarpo Iraizoz 1897.eko urtarrilaren 31n jaio zen Nafarroako Ulzaman. Haren bataio izena Agustin Zarranz Bermejo zen (alboan doatzue *Euskera XXVI*, 2.enean, haren oroimenez, Francisco Ondarra eta Juan San Martinen artean egindako hil berri txostena eta bibliografia). Urtarrila ez da data bat ere egokia Nafarroarako. Bestalde, datorren urtean X. Barne Jardunaldian egitea tokatzen da, bi urtean behingo txanda jarraituz. Bi aldiz egin ditugu Bizkaian, 1979an Foruan eta 1993an Zornotzan; bi aldiz Gipuzkoan, 1981ean Loiolan eta 1989an Lazkaon; bi aldiz Araban, 1983an Angoston eta 1995ean Legutiano/Billerlen; bi aldiz Iparraldean, 1987an Angelun eta 1991n Ziburun; eta baten bakarrik Nafarroan 1985ean Lekarozen, hain zuzen. Horregatik bada,

datorren urtean X.enak Nafarroan egitea proposatzen dut, Zuzendaritzako berriztatzearen ondoren, Arautegiaren 50. artikulua aipatzen dituen gainerako karguen eta arduren horniketa: sailburu, ordezkari, batzordeburu, batzorde idazkari eta batzordekide, abenduan, urtarrilean, otsailean burutu eta hornituz, gero, martxoaren bukaeran X. Barne Jardunaldi hauek egin, gogoeta eta hausnarketarako gaia aurretiaz finkatu ondoren. Nafarroan non egin ordea? Zuzendaritzak Ultzaman uste du. Iraizozen omenezko ospakizunen barnean. (Patxi Ondarrari aipatu genion “Euskararen Lekukoetarako” aita Iraizozez lanak paratzea eta prest dago, hobeki esan jadanik aurreratuak ditu eta lehen Rodriguez Otxoa jaunari aipaturikoa, orain Fernando Pérez de Viñaspre Nafarroako Hiskuntza Politika zuzendari jaunari berrikitan zerbait adierazi beharko zaio).

HAEE/IVAP eta UZEIk antolakizun ardura eramanez, **Terminologiako Biltzar** bat egiteko asmoa agertu digute Euskaltzaindiari. Esan zaie ezin dela egin iraila-urrian. Azaroan, egitekotan, Eusko Ikaskuntzaren Biltzarraz kidekaturik gomendatu zaie. Urtearen bukaeran hobe edo, agian, hurrengo urtearen hasieran, Aizkibelen mendeurrenarekin batera. Dena dela, datorren urtean Euskaltzaindiak ez luke beste Jardunaldirik edo Biltzarrik antolatuko edo parte hartuko Abbadieren omenezko XIV. Biltzara bukatu arte eta X. Barne Jardunaldiez kanpo.

Bigarren mailako beste euskal idazle edo euskalariren baten ospakizuna balego herriren baten, bertako udalaren edo erakunderen babespean, antola daitezke batzordeen bilkurak. Horretan Literatura Ikerketa azpibatzaordea eredu-garri izan da eta egin ditu zenbait bilkura, Erreterian, **Jautarkolen** omenez; Hondarribian hil honen 22an, **Satarkaren** omenez; Markinan, 1995eko abenduan **Mogelen** omenez eta abar; Onomastika batzordeak ere ospakizun edo gertakizunen baten kariatarat egin ditu, aurtan bertan, Arrasateko Udaletxean, Iruñean, Gasteizen, Uztaritzen Eugène Goyhenecheren omenez, Andoainen eta abar. Beraz, batzorde hauen antzera beste batzordeen bilkurarekin bete daitezke horrelako ospakizunak, ez baita ahanzi behar Euskaltzaindia zazpi herrialdeetako instituzio bakarra dela.

1897.eko urtarrilaren 3an kaleratu zen *Euskalzale* aldizkaria (asterokoa) R.M. Azkueren zuzendaritzapean “euskaraz guztia eginaz”. Uste dugu Euskaltzaindiak zerbait egin beharko lukeela aldizkari horren mendeurrenean. Urtarrileko osoen bileran aipamen bat, gutxienez. Euskaraz oso osorik idazten zen Hego Euskal Herriko lehen aldizkaria. Merez du ospakizunen bat, J.A. Arana Martijak dioenez.

Beraz, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, 1990etik harrezkero eman-dako agindua betez, hots, 4-4-3 delakoa begiratzea, alegia, urteko 11 hilabete-tako bilkurak, abuztua salbu, honela banatuko lirake: 4 Bilbon, egoitzan; beste hainbeste, Donostian; eta bana, Araban, Iparraldean eta Nafarroan. Heldu den urtean ez dugu, ditugun xehetasunen arabera, ospakizun berezirik Araban.

Guzti honegatik bada, 1997. urterako batzar egutegi hau proposatzea onartu du Zuzendaritzak, Donostian, hil honen 15ean egindako bilkuran.

1997rako batzar egutegiaren laburpena

— **Urtarrilaren 31n**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, egoitzan, Bilbon. Arratsaldean *Euskaltzale* aldizkariaren mendeurren ospakizuna.

— **Otsailaren 28an**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, Donostian.

— **Martxoaren 21 eta 22an**, azken aurreko ostiralean -azkena, Ostiral Santu baita- Ultzaman, hileroko bilkura eta X. Barne Jardunaldiak.

— **Apirilaren 25ean**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, egoitzan, Bilbon.

— **Maiatzaren 30ean**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, Donostian.

— **Ekainaren 27an**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, egoitzan, Bilbon.

— **Uztailaren 18an**, azken aurreko ostiralean -25a Jaundonejakue baita- hileroko bilkura arrunta, Donostian.

— **Irailaren 26an**, hileroko osoko bilkura, Hendaian, Abbadieren omeneko XV. Biltzarrarekin batera.

— **Urriaren 31n**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta, Arabako ordezkartzan?

— **Azaroaren 28an**, azken ostiralez, hileroko bilkura arrunta eta Federiko Krutwig euskaltzainari omenaldia, egoitzan, Bilbon.

— **Abenduaren 19an**, azken aurreko ostiralez, hileroko bilkura arrunta, Donostian.

SAILBURU ETA ORDEZKARIAK (*)

Sailburuak eta ordezkariak izendatzea ezartzen du. Beraz, euskaltzainburuak Zuzendaritza entzunda proposamen hauek egiten ditu eta onartzen dira:

Iker sailburua: **Beñat Oihartzabal**

Jagon sailburua: **Miren Azkarate**

Gipuzkoako ordezkaria: **Juan Mari Lekuona**

Arabako ordezkaria: **Patxi Goenaga**

Iparraldeko ordezkaria: **Pierre Charritton**

Nafarroako ordezkaria: **Andres Iñigo**

Herrialde ordezkarietz kanpo, Euskaltzaindiak Erakundearen zenbait ordezkari ditu. Hara hor, proposatu eta egun onartutakoak:

HABEko Patronatoko ordezkaria: **Miren Azkarate**.

Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Lantalde Harremanetarako Aholku Batzordekidea: **Endrike Knörr**.

Herri Aginteeekiko Hitzarmenaren Jarraipen batzordekideak: 6.2. atalaren arabera-koak: **Jean Haritschelhar**, euskaltzainburua eta **Patxi Goenaga**, idazkaria. Eta 6.3. atalaren arabera-koak: **Endrike Knörr**, buruordea; **Jose Antonio Arana Martija**, diruzaina; **Jose Luis Lizundia**, idazkariorde-kudeatzailea eta **Juan Jose Zearreta**, ekonomi-eragilea.

Id. Madrilgo Biblioteca Nacionalekoa: Jose Antonio Arana Martija.

Id. Euskal Herriko Unibertsitatearekiko Hitzarmeneko ordezkariak: **Jean Haritschelhar**, euskaltzainburua; **Patxi Goenaga**, idazkaria eta **Jose Antonio Arana Martija**, diruzaina.

(*) *Azkoitian, 1996ko abenduaren 20ean onartua.*

JASOTAKO TXOSTENAK

ONOMASTIKA

GRUMERAN EDO TRIANO MENDIKATEAREN OKERREKO IZENAZ

Bilbo, 1996-X-11

Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzordeko idazkaria

Gauza ezaguna da joan den mendearen amaieran Bizkaian burdin meategiak hustutzen hasi zirela. Prozesua ez zen leku guztietan era berdinean gauzatu, eta dudarik gabe gunerik garrantzitsuena Somorrostro harana (egungo Muskiz Abanto-Zierbena, Ortuella eta Trapagaran udalerriak batez ere) eta horren ingurua izan zen. Biztanle kopuruak erabateko aldaketa jasan zuen auzo berriak sortuz eta inguru fisiko erabat itxurraldatuz. Mea iparraldera zegoen lerrokaturik Ibaizabal ibaiaren mendebaldean. Esan bezala, kokagunik aberatsena Somorrostro haranean zegoen. Barakaldoko Errekaortu auzotik Abanto-Zierbenako Gallartaraino, erdian Arboleda, Matamoros eta Triano auzoak zeudelarik. Meategi handienak ere hor zeuden, *La Franco-Belga* (Societe Franco-Belgue des Mines de Somorrostro), *Orconera* (Orconera Iron Ore Co.), *Luchana Mining*, etab. Horren mendebaldean Galdamezko meatokiak zeuden, udal hau eta Somorrostro artean egon arren Galdamezkoak soilik diren mendietan, eta oker, azken urteotan *Montes de Triano* deiturikoak.

Baina izen hau oso berria izateaz gain mendi horien ekialdean, eta urruti (Ibaizabal Inguruko herrietan), baino ez da erabiltzen, mendebaldean Galdamez eta Sopuerta-Garapen ez da izen hori inoiz erabill, eta ez da erabiltzen, *El Alta* edo *El Alta de Galdames* baizik, gauza bera gertatzen da Triano auzoan edo ekialdean mendi hauen magaletan dauden auzo txikietan. *Montes de Triano* izena erabat arrotza eta ezezaguna da. Azpimarratu behar da mendi hauek Galdamezko udalbarrutikoak direla, muga ez dagoelako mendi gailurrean, ohi bezala, Somorrostro aldeko mendi hegalean baizik (Peñas Negras izeneko lekuan, ezaguna museo txiki bat gauzatu dutelako). Horretaz gain Galdamez aldean badira auzo batzuk (*Laia*, *Ledo*, *Akendibar* eta *Urallaga*) nahiz eta bertan oso jende gutxi bizi, honek garrantzia du meategiak agertu arte mendi hartako biztanle bakkarrak Galdamezko baserritar batzuk eta abeltzainak baino ez zirelako, gaur egun berriz inguru guztiko jendeak erabiltzen du, aisiarako batez ere.

Hala ere, mendi hauen izen historiko ez da ez bata ez bestea **Grumeran** baizik eta horrela agertzen da oraindik Bizkaiko Herri Basoen zerrendetan eta Galdamezko artxi-boan mendeetan zehar, azkenengo aldiz 1827an, baina artxi-boa mendearen amaieran erre zutela azpimarratu behar da. *Grumeran* izena aipatu meategiak sortzean galdu zen inguru hartako biztanlekoak % 50 gorako gehiketa jaso baitzuen.

Triano eta *Alta* izenak sortzeko arrazoiak desberdinak izan ziren. *Alta* izena, idazki batzuetan *La Alta*, erratasunagatik sortu zen izen generikoa toponimo bihurtuz, *Montes*

de Triano izena berriz, jendearen ezagutza faltaz sortu zen. Horrela Somorrostro haranean bizi den jendearentzat erabat ezezagunak ziren (eta dira) mendi horiek, haiekiko loturarik ez baitute, eta aurrean zegoen auzo ezagunaren izena erabiltzen hasi ziren. Joera hau idazle askok ere hartu zuten, burdin-mea hobiak zeuden gunearen izena *Montes de Triano* atzekaldeko mendiari zabalduz.

Hiri edo herrietako biztanleek (kaletarrek) mendiez duten ezagutza faltari gehitu behar diogu biztanle kopuru eta izaeraren aldaketa. Horrelako izen aldaketak hobeto ulertzeko mendi horren gaur egungo izena Ibaizabalen ezker aldean ikustea besterik ez dago, liburuetan izen ofiziala ikasi dutenak alde batera utzita jende gazteak ez du ez *Triano*, ez *Grumeran*, ez *El Alta* izena erabiltzen *La Arboleda* edo *Monte de La Arboleda* baizik, mendi horietara joateko biderik erabilena Trapagarango *La Arboleda* auzoan hasten baita.

Labur esanda mendi horien izen generikoa **Grumeran** izan da, mende honen hasieran *El Alta* edo *La Alta* izenaz erabat ordezkatu zena, eta *Montes de Triano* ezagutza faltaz sortu eta zabaldutako izena baino ez da Gorbeiar *Monte de Murgia* edo *Monte de Zeanuri* Bizkaitik edo Arabatik ikusita, deitzea bezalakoa.

LEKIKOGRAFIA

ERROIBARKO LEXIKOAREN GAINEAN

1996-X-8

Orreaga Ibarra Murillo,
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

0. SARRERA

Lan honen helbururik nagusia, Erroibarko lexikoa arakatzea da. Hegoaldeko goinafarrera barruan kokatua den hizkera hau galtzeko zorian dago, gelditzen diren azken hiztunak oso zaharrak dira eta datozenek ez dute hemengo hizkera egiten, hau dela eta, eremu honetako bilketa lanari premiazkoa deritzogu.

Jakina denez, dialektologiaren arloan askotan oso balio gutxi eman zaio lexikoari. Alde batetik, lexikoaren aldaketak askoz ere usuago eta ugariagoak izaten direlako; eta bestaldetik, antzinaldeari buruz ez digutelako gauza handirik argitzen, izan ere beihalako dokumentuek lexiko gutxi erakusten dute.

Honako arrazoiak aipatu dira lexikoaren azterketari buruz:

...Uno tiene la impresión de que los componentes del léxico se distribuyen dentro de una familia de dialectos como los genes de una población, a veces se tiene la impresión de que se están extrayendo bolas de una urna.

Y aunque las coincidencias de vocabulario den testimonio de contacto entre dialectos, estas coincidencias, lo mismo que las divergencias, no tienen por qué ser antiguas (Mitzelena 1985[1976]: 84).

Estrukturalismoren ikuspegitik konparagarritasuna bideratzeko moduak biltzen ziren, alor semantikoak parekatuko zuten bideak arakatzuz eta hitz zerrendak ekidinez. Horrela, egitura alderatzera jotzen zen arazo semasiologikoak eta onomasiologikaok gaindituz. Izan ere, egokiago ikusten zen sistema lexikoak parekatzea, alegia, haien arteko oposaketak eta asoziazioak, hizkuntzaren egiturak item hauei emandako baloreak azpimarratuz.

Baina, alor semantikoak ere ez dira errazak antolatzeke, askotan batek ez daki non bukatzen duen bat eta non dagoen bestearen hasiera. Gainera, eremu semantiko bat osatzeko, behar beharrezkoa da beronen mugak zedarritzea, hala nola ezaugarri zedarriztaileak eta berau osatzen duten semema kopurua.

Guk uste dugu, hala ere, lexikoa egitura geolinguistikaren islada dela, eta horregatik kontutan hartu beharrekoa. Horrela, hiztegitxo hauen bidez, item askoren banaketa geografikoa argitzen da, nahiz eta aintzat hartu behar den dialektoa entitate supralokala ere badela, eta bere baitan biltzen dituela eskualde ezberdinetako hizkera.

Zentzu honetan, interesgarria da jakitea eremu honetan hainbat ezaugarri lexiko kokatzen direla: *erran, anitz, altzine, gibela, txipi, bota* (caerse), *erori*-ren orde, *heldu etorri*-ren adizki trinkoen orde, *iruetan ogei, karrika, sarri* etab.; dudarik gabe, hainbat hizkeratan ere arruntak direnak.

Bestaldetik, lexikoa da herriko kulturaren eta ontasunaren ispilua, eta gure gizataldean, bizimoduaren galerarekin batera desagertu dira herriko bizitzarekin, abereekin eta landareekin loturiko hainbat hitz, eta, gainerakoak abiada bizian galduz doaz, hitzuneekin batera. Are gehiago, Erroibarko hizkera heriotz bidean dagoen une honetan, gazteleratikako maileguen kopurua gero eta nabarmenagoa da, eta honetan, lexikoa da eragin zuzenena jasaten duena. Ikusi besterik ez dago Etxaideren galdeketeri (1979) emandako erantzun asko Erroibarren: *fuellea, razimo, otóñoa, rekesune, dedálea, intestinoak, limákoa, ardille* eta n/s (no sabe) ugariak.

Horrela ba, ez gara abiapuntu semantizista sakon batetik abiatzen, baina, pisuzkoak eta adierazgarriak diren ezaugarriak ekartzen ditugula uste dugu. Jakin ere badakigu hemengo item gehienak inguruko hizkeretan ere gertatzen direla, eta bakar-bakarrik hizkera honetan aurkituko balira eta ez, beste inon, izango lirateke hemengo berezitasunak, baina hori gutxitan gertatzen da.

Bestaldetik, ez gara mugatuko item lexikoen zerrenda bat egitera soilik; izan ere, fonologiak item batean eragin duenean itxura berezia ematen dio. Horregatik, euskaraz dugun arazoa, beste hizkuntzetan ez daukatena, hitza mugatzailearekin edo mugatzailerik gabe jartzea da. Kasu honetan eta fonologiak ematen dion itxura islatu nahi dugunez, hitza mugatzailearekin eta guttiz sartu dugu zerrenda honetan.

Izan ere, horrekin hasten dira eremu dialektalak banatzen, alegia, hizkuntz eremuen azpisailak, eta horiek osatzen dute hizkera baten arau multzoa. Are gehiago, eremu dialektalen arteko elkar ulermena, maiz askotan, ezaugarri hauetan oinarritzen da.

Modu berean egin ziren Izagirreraren hiztegi moduko lanak (Ultzamakoa eta Altsatsukoa). Izan ere item zehatz horren ondoan hitzaren erabilerari buruz zerbait esaten bada, alegia, ahozko produkzioak sartzen direnean, sintaxiaren eta morfologiaren gaineko datu batzuk agerian gelditzen zaizkigu. Honez gain, eremu honetako euskararen egoera larriaz jabetu ezker, dena suertatzen da interesgarri biltzea.

Biltzeko medotologiaz ezer gutxi aurreratu dugu orainarte, esango dugu hizkera honen inguruan sakabanaturik dauden material guztiak erabili ditugula:

Echaide 1979-koa, Perpetua Saraguetak utzitakoak, hauek beharreko ardura-ekin, izan ere andre honek kanpoko eragina jasaten zuen, anitz irakurtzen zuelako. Hau dela eta, item bat agertzen bada haren lanetan soilik, hala notatzen dugu (Mez.P). Izan ere, ez dugu ziurtasunik hemen erabiltzen zen edo irakurritakoaren ondorioa zen.

Honezaz gain, Picabearen lana (Pic) —Lintzoainen eta Zilbetin eginda-koa—, EAEL, Echaide (1979) eta Erizkizundi Irukoitza *EI*, baliogarriak izan zaizkigu hizkera zehatz honi buruzko informazioa jasotzeko. Hala nola Iribarrenen *Vocabulario Navarro* eta Dámaso Intzak Mezkitritzen bildutako esaera zaharrak (Intza).

Dena den, material gehiena galdeketen bidez lortu dugu, jakina denez harran honetan oso hitzun gutxi gelditzen dira. Hau dela eta, galdekizunak honako hiru herri hauetan egin ditugu gehienik: Lintzoainen (Lin), Mezkitritzen (Mez) eta Zilbetin (Zil) bereziki, baten bat Urnizan (Ur) eta Bizkarreta-Gerendiainen (Ger) ere (hemen hitzun bakar bat geratzen da). Beste herriez emandako datuak bibliografiaren bidez lortu ditugu. Gainerako herrien laburdurak hauek dira: Auz (Auzperri), Erro, Aintzinoa (Ai), Ardaitz (Ar), Larraingoa (Lar).

Horrela, hitzak heri gehienetan aurkitu ditugunean, ez dugu ezer eransten, aldiz, herri bakar batekoak direnean horrela zehaztu dugu.

Transkribaketari dagokionean, ez dugu alfabeto fonetikoa erabili nahi izan, gauzak ilundu daitezkeelako argitu baino. Horregatik, alfabeto arruntarekin egin ditugu ñabardura gehienak. Horrezaz gain “y” zeinua ere erabili dugu, igurzkarri sabaikoa ordezkatzeko, eta “j” aldaera belarerako. Bestaldetik, *h*-ak kendu ditugu, eremu honetan ordezkapen fonetikorik ez dutelako, halaber, bokal berdinen artean geminaziorik ez zegoenean, bokal bikoitza kendu dugu.

1. ERROIBARKO HIZTEGITXOA

A

Abantxu: casi. *Segur naiz abantxu dekálitroat edan zuela.*

Abarra: ramita para hacer fuego (Mez, Zil). *San Juan egunian bediketu abar batzuk, gero ondoko urtian botatzeko.*

Abarrikatu: romper, destrozar.

Abendua: diciembre.

Abia: tábano, mosca que pica a las vacas en días de calor.

Abie: arándano. *Uden juaten gine dena Ligeztara neskakoak amarekin abiek eske.*

Abilkeria: astucia.

Aborrezitu: aborrecer, aburrirse. (Lin) *Aborrezituik zagon.*

Abria: caballería utilizada para trabajo o en la labranza.

- Adarrukaldika:** a cornazos.
- Afera:** asunto, problema.
- Agá:** vara. *Tranka badu gáñian goitik bera agatzen duena.*
- Agatu:** sujetar con una vara.
- Agilona:** tejado con vertiente muy rápida a cuatro aguas (Auz).
- Agoa:** boca. *Itze agotik atra baño len, bi buelta emazkio miiari (Intza).*
- Agoxtenpat:** espera un poco, utilizado en sentido sentencioso, “sí, sí, ya verás”. Eusk. ago ixtent bat!!
- Agostía:** Agosto (Ai).
- Agoztegie:** pajar (Mez).
- Aguandie:** bocazas. *Urde agoandi ori!!*
- Agudo:** rápido, ligero.
- Aida, aida!:** expresión utilizada para arrear a las vacas.
- Aide urrun:** pariente lejano.
- Ailtzurtu:** escardar.
- Aingirua:** ángel.
- Aire gaixtua:** rayo (Mez).
- Airia bota:** eructar (Lin).
- Aise:** fácil.
- Aiskola:** arveja.
- Aitaiarreba, aitañarreba:** suegro.
- Aitatxi, apitxi:** abuelo.
- Aitu:** oír
- Aixkidantza:** amistad.
- Aixkidia:** amigo.
- Aizeratu:** aventar.
- Aizpe:** hermana.
- Akabantza:** final, remate.
- Akabatu:** rematar en el juego de la pelota (Lin).
- Ako!:** se ha acabado. Voz utilizada con los niños.
- Alaber:** igualmente, también. Respuesta habitual después de un saludo.
- Alamote:** almud.
- Alaya:** escalera (Lin).
- Albidedia:** habilidad.
- Alborendo:** pulmonía (Mez.P).
- Aldrebesian:** al revés.
- Alegie:** quizás (Lin).
- Alferra, auferra:** vago (Mez, Lin).
- Alkabelarra:** tipo de hierba silvestre, ancha, dura, triangular y siempre verde.
- Alkea:** vergüenza.
- Alkegabia:** sinvergüenza.
- Alkeizungarrie:** vergonzoso.
- Alkia:** asiento.
- Alkítze:** pondón utilizado para cortar las tximtxas de avellano.

Alkortze: 'Atajo' Etim. *curtiare*.

Alo: ¡Vamos!! *Alo mogie!!! Vamos muévete*.

Alorra: pieza para siembra.

Altxarre: primer bocado que se toma después de matar el cerdo, se saca de la tela del vientre.

Altxatu: esconder.

Altzairua: acero.

Altzina, altzine: 1. adelante. 2. delantero.

Altxirria, altxirria: estiércol de las ovejas cuando está convertido en polvo.

Altzoa: regazo.

Altzurre, atzurre, aitzurre: azada.

Amaiarreba, amaiñarreba: suegra.

Amarrekoa: punto que equivale a cinco sencillos en el juego del mus.

Amatxi, amitxi: abuela.

Ameka: once.

Amen: aperitivo, comida entre horas. *Yaten duzu amen bat edo otamen bat* (Lin).

Amesketan: en sueños (Lin).

Amorraea: trucha (Ur).

Anditu: hincharse los animales.

Anitz, aunitz: mucho. *Anitz yende zagon*.

Ántxue: oveja de un año que todavía no tiene cría.

Antxumia: cabrito.

Antxuzaiia: el que cuidaba los antxus.

Antzi, atzendu: olvidar.

Añegue: centeno.

Apa matia: dar un beso en el lenguaje infantil. *Karri (a)pa amatxiri* (Lin).

Apaldu: agachar la cabeza.

Aparexua: aparejo.

Aparra: baba, espuma de la boca.

Apitxi: abuelo.

Apondile: renacuajo (Lin).

Apozarra: sapo (Mez).

Aprille: abril. *Martxoan elurre norartio, aprillen elurra arartio* (Intza).

Aprobetxategi: aprovechado, vivo, el que no pierde ocasión de lucrarse en su empleo, o cargo.

Apurre: pan desmigado. *Ogi apurrek*.

Ara, ara!: ¡Mira, mira!

Arakaya: carne de ganado ovino.

Arana: arañón grande.

Aratxia: ternero en general (Lin, Mez). *Aratxe arai orotsa eta emei urrix*e.

Arboladie: arbolea.

Arbolarie: simple. *Arbolari tzar bat da*.

Arbolea: árbol (EAEL).

- Arданbilloa, armamiloa (Mez), armanbiloa (Lin):** araña.
- Ardi antxue:** oveja estéril.
- Ardimenatza:** oveja rasa.
- Area:** instrumento agrícola con tres puntas de hierro utilizado para desterronar y allanar la tierra.
- Argiko:** para el amanecer. *Argiko atratzen gine.*
- Aria:** hilo.
- Ariatu:** arar.
- Arimelkerie:** animalada.
- Arine:** ligero, ágil.
- Arixkoa:** macho cabrío castrado.
- Ariztie:** robledal.
- Armambilo sarea:** tela de araña.
- Arpatu:** encontrar (Zil).
- Arpoa:** horca de hierro de dientes. curvos.
- Arra:** gusano.
- Arraildu:** rajar los troncos con una cuña.
- Arraina:** trucha.
- Arramaskada:** arañazo hecho con ramas.
- Arramizkatu:** arañar.
- Arrandiko, arrandatx:** *arrandiko, arrandau, eso es para mí.* Cuando un grupo de niños veía una cosa, decían esta fórmula. El que antes la decía se quedaba con ello.
- Arrantzure:** a pescar (Urni).
- Arrapoa:** sapo.
- Arraspa, arrastelue:** rastrillo.
- Arratoña:** rata.
- Arrausia:** bostezo.
- Arrautzea, arrotzia, arroltzia:** huevo (Mez).
- Arraxpa:** rastrillo.
- Arrayua:** ¡demonios!
- Arrazoine:** razón.
- Arrebutxi:** tirar las monedas a voleo, para que se las disputen los chiquillos o el público.
- Arrekapetas:** juego en el atrio del suelo, sin determinar (Lin).
- Arretxintxin:** llevar a otro a horcadas, o sentado sobre los hombros.
- Arribetu:** llegar (Zil).
- Arroitaundi:** bocazas, que hace mucho ruido.
- Arroitu (Ai), aurritto (Ar):** ruido.
- Arront:** muy. *Arront ongi.*
- Arrotze koskilla:** cáscara del huevo.
- Artegie:** sitio para guardar las ovejas. Artégia, Mezkirizko etxe baten izena da.
- Arteka:** ranura.

- Artizela:** sitio abundante en bojes, donde se cobijaban las ovejas. *Batzuetan... uxu zegoen tokien (ezpela) artizela erraten gindekon* (Mez).
- Artorri:** sitio donde se siembra el maíz (Lin, Mez).
